

IZAN GINELAKO GARA

Herria ezagutzen



5. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA



IZAN GINELAKO GARA

Herria ezagutzen

LEHEN HEZKUNTZAKO

5.MAILAKO

IRAKASLEENTZAKO

GIDA PEDAGOGIKOA



5.- UNITATEA: IZAN GINELAKO GARA!

1.-DAKIGUNA ASTINTZEN

Aurreko unitatean naturak dituen altxorrak landu genituen. Herriko errekek, mendiak, animaliak eta parkeen izenak ezagutu genituen, uholdeek egindako triskantzak eta Deba errekaaren ibilbidearen desbideratzea eta ubidetzea auzoak eraikitzeko eta uholdeen ondorioz ez izateko. Herriko naturaren errealitatera hurbildu ginen, lehengo garraio bideak eta kirolak herrian garatu dituen historia eta protagonistak ezagutu genituen.

Unitate didaktiko honetan, berriz, herria fisikoki kokatzeko koordenadez, altueraz eta distantziaz baliatuko gara. Klima eta herriko bideak aztergai izango ditugu eta Euskal Herrian beti garrantzitsua izan den auzolana aztertuko dugu.

XII. mendearen azkeneko urtean, 1200an, Gaztelak konkistatu zuen Nafarroaren hainbat eskualde, gure bailara tartean. Ondoko mendeetan, Euskal Herrian, Espainian eta, batez ere, Europan iraultza eta gerra ugari gertatu ziren, batetik, Europako herrialdeek zituzten kolonietan eta, bestetik, Europan. Gaur ezagutzen ditugun nazioak osatzeke zeuden eta iraultza eta gerrak ziren bor-bor zegoen gizarte baten espresio ankerrak. XIX. mendearen erdialderako, gobernu liberalak absolutismoari gailendu zitzaizkion Europako herrialde askotan; Frantziako Iraultza (1789) horren abiapuntua izan zen. Lehen erregearen "ondasuna" zen nazioa, baina hortik aurrera aldatu egin zen ideologiaren politika; 1808an Espainiako "Independentzia" Gerra, Gerra Napoleonikoen barruan, izan zen eta eragina izan zuen Euskal Herrian, geroago Italiako estatuaren sorrera (1861), Alemaniako inperioarena (1871), eta 1848ko iraultzako saiakerak gaitutakoan, Errusiako Iraultza, 1917an, izan zen gertaera nabarmena.

XVIII. mendean Arrasaten, Diputazio gerra izan zen gertaera garrantzitsu bat eta Euskal Herrian, XIX. mendean bi Karlistadak gertatu ziren eta Cánovas del Castelloren hilketa Arrasaten. Gero, XX. mendean, 1936ko gerra izan zen eta Arrasate herria gogor astindu zuen gerra hark.

Modu didaktikoan ikasleei azaltzea gizakiek betidanik erabili **dutela gerra, baliabide suntsitzaile eta anker moduan** zaila dela azaltzea bada ere, saiatuko gara unitate honetan hori lantzen eta baita haren ondorioak ere.

XVIII. mendearen erdialdetik aurrera Arrasateko meategien gainbehera izan genuen eta hurrengo mendean industrializazioa garatzen hasia zen. 'Unión Cerrajera' XX. mendean sortu zen, berrogeita hamar urte geroago lehendabiziko kooperatiba eta horiek guztiak eragin zituen eraldaketak aztertuko ditugu: azpiegiturak, immigrazioa, biztanleria, hirigintza, kultur aniztasuna.

Gai horiez gain, Arrasateko garapenerako hain garrantzitsua izan den hezkuntza arloari errepasso sakona egiten saiatuko gara eskoletan, ikasleekin hezkuntzaren bilakaeraz eta ekarpenaz jakiteko.



BA AL DAKIZU?

Aurreko unitateetan egin dugun bezala, landuko diren gaien gainean ikasleek aurretik dituzten jakintzak biltzen hasiko gara unitate honen hasieran. Horretarako, unitatean zehar jorratuko diren kokapenaren, gerren, industrializazioaren hirigintzaren eta hezkuntzaren gaiak aukeratu ditugu.

JARDUERA1: *Non elkartzen dira Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia probintziak?*

Besaide da.

JARDUERA2: *Izan ote da gerrarik gure herrian? Noren artean?*

Gerra ugari dago, zoritxarrez, gaur egun munduan. Komunikabideetatik eta abarretatik izango dituzte haien berri gure ikasleek. Lehenik eta behin, gaira hurbiltze aldera, ezagutzen dituzten gerren berri galdetuko diegu. Gero, hipotesiak egiteko eskatuko diegu. Gurean gerrarik izan ote den ala ez, eta izan badira, ea noren artean izan ote diren hausnartzeko eskatuko diegu.

JARDUERA3: *Lan arloari dagokionez, zure ustez Arrasate zergatik da ezaguna munduan?*

Jarraian, bakarkako lana amaitutakoan, bere irudia albokoarenarekin alderatzeko eskatuko diegu. Nahi izanez gero, talde txikitik bildu eta taldekide bakoitzaren irudiak alderatu ondoren, norberak iritzia ematean izan dituen irizpideak azaltzeko eskatuko diegu. Taldean lanean hasi aurretik, erantzuna ez dela bakarrik azaldu beharko genieke; bakoitzaren irudia ez duela zertan izan lagunarenaren berdina, alegia.

JARDUERA4: *Hirigintzaren ikuspegitik, gure Arrasatek ba al du nahiko lekurik kirola egiteko? Eta oinezkoentzat?*

Hirigintza alorrean murgiltzeko eskatuko diegu, segidan. Lehenik, hirigintza zer den azaldu beharko diegu, akaso. Horretarako, lehenik, hitza aztertzeko, haren konposaketa, eta gero hipotesiak egiteko eskatuko diegu.

Behar bada, horrekin nahikoa izango da denen artean hirigintza zer den argitzeko. Bestela, hiztegi edo Internetera jotzeko eskatuko diegu.

JARDUERA5: *Begiratu, XX. mendearen hasierako Arrasateri buruz Jose Letonak egindako plano eta Biteri eskolak non zeuden kokatuko duzu. Eskolak zeuden tokian, zer dago orain?*

Mapa begiratu, egun, zer dagoenaz eta zer ez dagoenaz hitz egin dezakegu horrela eskolak non zeuden kokatzeko.

Koadernoko 3. orrialdea.

2.-KOORDENADAK. MUNDUAN NON GAUDE?

Gure herria munduan non dagoen jakiteko, hainbat erreferentzia izan behar dira kontuan. Alde batetik, meridianoak eta paraleloak. Mundua goitik behera eta ezkerretik eskuinera erdibitzen duten irudizko marrak dira.



Lerro horizontalei paralelo deitu zieten . Hala, munduaren gerri buelta osatzen duen paraleloari ekuatorea esaten zaio. Ekuatoreak 40.076 km du, orduan $^{\circ}$ grado bakoitzak 113'3 km du, Gu, ekuatore horretatik iparraldera gaude eta hala jaso behar da koordinadeetan. Horrela mundua iparraldea eta hegoaldea eremuetan banatzen da.

Lerro bertikaleei meridiano deitu zieten o meridianoa, berriz, Greenwich-eko meridianoa esaten dioguna, gure mendebaldetik pasatzen da. Meridiano bakoitzak 40.007 km duen neurrian, grado batek 111'11 km da. Neurri eta kokapen horiek kontuan izanik, gradu eta minutu hauetan gaude munduan kokatuta: **43° 04' 15'' I, eta 1° 14' 20'' M.**

JARDUERA1: Ikusi eta ikasitako guztiarekin dagoeneko ongi kokatuta zaude herrian. Baina jakingo zenuke gure herria kokatzen...?

Debagoiengan?

Gipuzkoan?

Euskal Herrian?

Iberiar penintsulan?

Europan?

Eta munduan?

JARDUERA2: Hortaz, zein izango dira Ipar buruaren eta Hego buruaren latitudeak?

Goikoa kontuan hartuz, Ipar burua 90° I izango da eta Hego burua 90° H.

Koadernoko 4. orrialdea

3.-ALTUERA/DISTANTZIAK

Herrien kokapena zehatzago jakiteko, altuera da beste neurri bat. Baina, zelan neurtuko dugu hori?

Neurri horri itsas maila esaten diogu, itsasoaren mailarekin alderatuz kalkulatzen delako eta unitatea da **msnm** (gaztelaniazko "metros sobre el nivel del mar").

Baina munduko itsaso guztiak ez daude maila berean, eta itsasoak, mareen eraginez, ez du maila iraunkorrik. Horregatik, herrialde bakoitzak bere erreferentzia itsasoa hartzen du leku eta garai zehatz baterako: Espainiak eta Frantziak Mediterraneo itsasoa dute.

Alacant-eko udaletxeko eskaileretarako hirugarren mailan dago kokatua lehen puntua eta eta puntu horren kota da 3,4095 m-koa .Gure herriko altuera neurtzeko erreferentzia. Erdiko kale aldeko udaletxeko ataripean dago erreferentzia iltzea gure herrirako: 211 metro; eta horregatik esaten dute plaza dela herriaren altuera erreferentzia. Garaiera horiei ortometrikoak esaten diete.

Gure herrian hainbat tokitan iltze geodesiko ugari jarrita daude altuerak jakiteko eta egin behar diren lan teknikoak egin ahal izateko erreferentzia horrekin.



JARDUERA 1: *Herrian badaude iltze gehiago jarrita zoruan puntu horren altuera jakiteko. Ikusi duzu baten bat?*

JARDUERA 2: *Zure ustez, zein dago altuen, San Andres auzoa edo Musakola auzoa?*

JARDUERA 3: *Zergatik uste duzu?*

Errekan beheara Musakola dago, beraz altuago San Andres dago. Honen inguruan eman daitezke erantzunak jasotzea ondo legoke, alturaren kontzeptua lantzeko.

Koadernoko 5. orrialdea.

4.- ERLATIBOTASUNA

Unitate didaktikoan agertzen den bezala mendien neurria ere duela urte batzuk aldatu zuten. Erreferentzia moduan Udalatx eta Anboto mendien neurria jarri dugu. Gaurko erreferentzia Alacant da guretzat, baina azken urteotan GPS gailuak, sateliten bidezko neurketak, erabiltzen ari dira orientatzeko, bidaiatzeko, mendi ibilaldiak egiteko, alturak zein koordenadak jakiteko.

Ortzian dauden sateliteak dira erreferentzia neurri horiek emateko eta duela gutxi arte Estatu Batuetakoak izan badira ere, orain Europakoak ere badira. Oso fidagarriak dira baina gerra garaitan neurrietan akatsak izaten dira.

Egun erabilera ugari du, baina batzuetan erreferentzia ofizialarekin 211 metroan dago Arrasate- ez dator bat, gps-ren bidez egindako neurketetan, beste bat altuagoa agertzen delako. Litekeena da, GPS gailuak orientatzeko eta koordenadak kokatzeko oso zehatzak dira baina altuera neurketekin ez horrenbeste.

5.- DISTANTZIAK

Non gauden kokatzeko, beste neurri bat da distantzia, toki batetik bestera zein distantzia dagoen kilometroan neurtzen du. Mendateak, lautadak, bihurguneak daude erabiltzen diren errepideetan, eta egun lehen baino lehenago iritsi daiteke herrietara errepideak hobetu dituztelako.

JARDUERA 1.- *Arrasatetik Maulera joateko, nondik joan beharko genuke distantziarik motzena egiteko? Begiratu mapan eta azaldu zeharkatu behar diren probintzien izenak.*

Maule, Euskal Herriaren Zuberoaren probintzian dago eta ofizialki Frantzian. Pirinio mendien beste aldean dago eta Nafarroako Erronkari aldetik bagoaz, tartean mendate handiak daude eta denbora asko behar da horretarako. Biderik azkarrena eta seguruena da autopistatik Iruneraino joatea eta handik eskuma aldera hartzea Maulera joateko, Lapurdi, Behenafarroa zeharkatuz Zuberoara iristeko. Bi norabide desberdin kilometro kopuru desberdin, bi distantzia desberdin.

Koadernoko 5. orrialdea.



6.- DENTSITATEA

Gure herriak 34'20 kilometro koadroko azalera du. Herrian, 2011n, 22.072 lagun bizi gara. Zenbatekoa zen, hortaz, gure herriko dentsitatea?

Gogoratu ezazu dentsitateak adierazten duela kilometro koadroko zenbat jende bizi den.

JARDUERA 1.- Gure herriko dentsitatea 2011n:
Koadernoko 6. orrialdea.

7.-HERRIARI BURUZ EZAGUT DITZAGUN DATU GEHIAGO.

Gure udalerriak 34'20 km. koadroko azalera du. . Gure udalerriko lur askoan ez da inor bizi, baina herriguneko hainbat auzotan dentsidade handia ematen da..

Hortaz, gure dentsidadea 2011an 645'38 biztanle kilometro karratukoa da. Nolakoak gara eta nola garen ikusteko datu gehiago ezagutuko ditugu:

EMAKUMEAK	11.109
GIZONEZKOAK	10.963
0-19 urtekoak	%15'3
20-59 urtekoak	%64'8
60+ urtekoak	%19'8
ZAHARTZE INDIZEA	%20'9.
OKUPATUAK	
1. SEKTOREA (nekazaritza)	%0'54
INDUSTRIA	%59'66
ZERBITZUAK	%39'80
LANGABEZI TASA	%13'69(Em.%16'23, Giz. %11'7)
HIZTUNAK 2 urtetik gorakoak	
EUSKALDUNAK	%55
IA EUSKALDUNAK	%19
ERDALDUNAK	%26
FAMILIA ETXEBIZITZAK	8.653
ETXEBIZITZA NAGUSIAK	7698
HUTSAK , BIGARREN ETXEBITZAK,	471, 244 eta 240
BESTE BATZUK	GUZTIRA 955

8.- KLIMA. Herriko klima aztertzeko hiru faktore aintzakotzat hartuko ditugu :

a).- ***Temperatura.** Klima ozeanikoa du; uda epelak nahiz beroak eta negua, hotz handirik gabe. Udaberriak eta udazkenak motzak izan ohi dira.



Azken urteotako tenperaturaren batez bestekoa $13'2\text{ }^{\circ}\text{C}$

b).- **Euritea** / hezetasuna.

Urtean hezetasun maila handia dago Arrasaten, eta historikoki urtarrila izaten da hilabeterik euritsuena, eta lehorrena abuztua.

c).- **Haizea**.

Lau dira herrian ibiltzen diren haizerik garrantzitsuenak:

A) Mendebaldekoa.- Haizea hezea, euria dakarrena. Murugain, Anboto aldetik iristen da gure herrira.

b) Hegoaldekoa.- Beroa eta lehorra. Hego-haizea deritzana, Gasteiz aldetik iriste da gure herrira.

c) Ekialdekoa nahiz Ipar-ekialdekoa. Ipar Europatik datorrena. Hotza eta sikua. Ipar haizea deritzana. "Frantses haizea". Gure herrira Bergara aldetik iristen da.

d) Hego ukitua duen neguko haize hotza. "Amillena"

JARDUERA 1.- Zure ustez, azken urteotan, asko aldatu da eguraldia? Hala baldin bada, zertan aldatu da? (Aldaketa klimatikoa)

JARDUERA 2.- Hemen daukazu Arrasateko mapa. Eguzkiak ekialdetik irteten du eta mapan agertzen da non dagoen. Kokatu mapan gainerako puntu kardinalak.

Ariketa hau egiteko, lau puntu kardinalak erakutsi ditzakegu, nola orientatu jakiteko. Baldin badakigu nondik irteten duen eguzkiak, besoak gurutzaturik, eskumako besoa kokatuko dugu ekialdera begira (eguzkiak irteten duen tokitik). Ezkerreko besoa markatuko du mendebaldea (eguzkia handik ezkututzen da) eta bekokiaren kokapenak markatuko du iparra. Aitzitik, buruaren atzealdea hegoa.

Koadernoko 6. orrialdea.

9.- AUZOLANA.-

Baserrien elkartzek sortzen duen taldeari auzoa deritzo eta zenbait tokitan gune sakabanatuak osatzen zituzten.

Auzoak behar komunak zituenez, behar horiei aurre egiteko sortu zen auzolana, hau da, hainbat etxek partekatzen zituzten beharrei aurre egiteko. Euskal Herrian nekazaritza munduan erabili da gehien bat eta egun, oraindik ere hainbat tokitan mantentzen da. Lan horietara ez agertzea da elkartasunik ez izatea.

Auzoko bideen kontserbazio eta hobekuntza auzotarren esku gelditzen zenez, auzolanen artean garrantzitsuenetarikoa zen auzolanaren bidez bidegintza eta bide egitea, lan horien bitartez bideak zabaldu eta konpontzen baitziren. Historikoki herrietako azpiegiturak eraiki, zaindu eta moldatzeko egin izan da eta oraindik herri askotan egiten da.



Udalaren edo biltzarraren kontura ziren ardoa, ogia eta beste janari batzuk auzolanean parte hartzen zuten guztiei ematea.

Antzinako garaietatik gaur arte iritsi da lanean jarduteko modu hori eta horretan aritzeak talde garela sentitzeak dakar eta sortzen dituen harremanak eta sentimendu loturak oso aberasgarriak dira.

Lan sistema hau berezia da, kideen arteko berdintasunean eta elkartasunean oinarritzen delako eta autoeratzeko aukera handia ematen duelako. Herriko konpromisu kolektiboari esker hainbat herritako oinarritzko azpiegiturak auzolanean egin dira, eta balio du mendez mendeko euskal jendarteak izan dituen behar komunitarioei erantzuteko.

JARDUERA 1.- Gure artean, auzolanean, gauza asko egin dezakegu. Zure ustez, zeintzuk izan daitezke lan horiek?

Koadernoko 7. orrialdea.

10.- BIDE MOTAK. AUZOBIDEAK. GAINERAKOAK

*Auzobideak.

Oro har, herri bateko auzotarrek beren lurretara basoetara eta barrutietara zuzenduta dauden bideak dira, auzolanean zabalduak.

1899ko auzobideen zerrenda

*1899ko ekainaren 27an Arrasateko Udalak herriko auzobideak zeintzuk ziren onartu zuen ohiko bilkuran (61 bide), jendaurrean 15 egunez izan eta gero.

*Garagartzako auzotar bati arrazoia emanez, "Kanpanzar bide" sartu zuen inbentarioan.

*Akordioak zioen herriko eta auzoetako puntu guztiak lotzeko zirela, gehienak burdibideak zirela eta erabilera publikokoak.

*Komunikazio edo garraio beharrak nahiko asetuta ikusten zituenez, bide berriak egiteko dirurik ez jartzea erabaki zuen, bere kontura izanik, bideak mantentzeko egiten zen auzoetako auzolanerako ogia eta ardoa "refacción de pan y vino".

*** JARDUERA 1.-Arrasateko toponimia mapa erabiliz, taldeka antolatuta, ikasleak saia daitezke kokatzen bide horiek; batzuk baserrien erreferentziak eta beste batzuk mendien edo toponimia izenena direnez, ariketa ona izango da antzinako bide horiek nondik nora doazen antzemateko.**

URIBARRI	SAN ANDRES
OLEAGA BIDE /CRISTIN ITURRIBIDE (1899)	BEDOÑA BIDE
BASTERGAIN BIDE (1779/1899)	SAN JOSEPE (1810-1825-1859-1899)
RAMAL DE OLEAGA(1899)	AZUBE BIDE (1476/1899)
CULLAMENDI BIDE (1899)	BEDOÑABE ESTRADA



OLARAN BIDEA (1899)	SOLOZAR BIDE
USAECHE ESTRADA (1899)	BIDE ZARRA (1899)
ANDRA MARI BIDE (1899)	
GOMIXTIO BIDEA (1899)	MEATZERREKA
UDALA	GALARRAGA BIDE (1899)
UDALA BIDE (1899) (Larragainetik)	MIRAFLORES (1899)
LARRAZAR (LABESUR) BIDE (1899)	ECHALDEBARRI (1899)
OBIAGA BIDE (1899)	COSTOBAL BIDE (1899)
ISASPARREN (1899)	AQUEY-BIDE (1899)
PAGUETA (1899)	GALARRAGA ESTRADA (1899)
GARAGARTZA	ZARAA-BARRI ALDEA (1899)
BIZCAY BIDE (1899)	MUSAKOLA
LEJARAZU BIDE (1691-1899)	ITSASALDEKO ESTRADA (1899)
LICIOTA BIDE (1899)	EPELE ERRECA (1899)
UDALA ALDEA (1899)	MOJATEGUI ESTRADA (1779/1899)
ELIZABIDE (1899)	SAGURDIA ZAR BIDEA (1799/1899)
ECHEVARRI ALDEA (1899)	SAGURDI ALDEKO(1899)
AQUIISO BIDE (1899)	ARANGUREN ALDE (1476/1851/1899)
CAMPANZAR BIDE (1899)	ARBE BIDE (1475/1779/1899)
COBATE BIDE (1835/1899)	GARRATS ESTRADA (1899)
ZARAZAGA BIDE (1899)	CATAIDE ESTRADA (1899)
GESALIBAR	ZALDIBAR
MENDIGUREN (1476/1477/1779/1899)	ERREGUEBIDE EDO AZUELABIDE
URQUIOLA BIDE (1899)	ECHAZURI BIDEA (1899)
PARRAYA BIDE (1899)	SANTA MARINA BIDE (1475-1553-1792-1899)
LIZUETA ALDEA (1899)	OBENERRECA (1899)
ARTABILLA BIDE (1899)	MACATS BIDE (1899)
SAN ANDRES	ASPOBALTS (1594/1602/1620/1778/1899)
MURUBIDE (1779-1899)KURTZETA BIDE	CONCECIÑO-ESTRADA (1899)
SAN ANDRES BIDE (1476-1731-1810-1899)	ITURBURU O SAN ANTONIO- BURU
BOLIÑATE MUNA (1603/1604/1899)	

JARDUERA 2.- Bide mota asko egon da eta dago, bakoitza bere funtzioarekin. Taldeak osatu, eta etxean edo lehengo baseritar bati edo pertsona nagusiei galdetuz edo Interneten ikertuz, ea zenbat bide izen aurkitzen duzun eta zertarako erabiltzen zituzten: Koadernoko 7. orrialdea.

Modu laburbilduan jaso ditugu Euskal Herrian betidanik erabili diren bideen nomenklatura eta informazioa, ikasleek beraien kabuz jasoko duten informazioarekin osatzeko.

Hiru motako bideak zeuden lehen: herriak elkarren artean lotzen zituztenak, herriak haien auzoekin lotzen zituztenak eta baserri zein auzo inguruetakoak:

Hauek dira:



***Burdibideak.**- burdientzako bide egokiak ziren, zorua, neurri handi batean, harrizkoa harlauzaz egindakoa baitzen. Horrela, euria egiten zuenean gurpilak ez ziren lokatzetan hondoratzen, harriak handik ibiltzea errazten baitzuen.

* **Mandobideak**

mandoak erabiltzen dituzten bideak dira, normalean burdibideak baino zertxobait estuagoak dira. Komenigarria da zorua lurtsua izatea, horrela mandoak ez labaintzeko.

***Kurtzebideak**

Horrela deitzen zaie Arrasaten baserria (etxea) eta eliza (hilerria) lotzen dituzten bideei. Zentzu erlijiosoarengatik beti oso zaindu eta errespetatu dira eta, esate baterako, prozesio guztiak, normalean hiletakoak, derrigorrez bide horietatik egin behar ziren, izan ere, oso zabaldua zegoen, herri sinismen bidez, txarra zela hildakoak beste bide batzuetatik eramatea.

***Zorbideak.**

Lehenagoko bide zaharrak herriaren eta auzoaren onurarako zabaltzen ziren, betiere beharrak kontuan harturik. Iraganbide horrek eskubidea ematen zuen handik ibiltzeko, nahiz eta inguratzen zituzten lurak pribatuak ziren.

***Estrada/estrata**

Ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten bideak dira, baina herri guztietan ez dira berdinak. "Errekarriz lauzatutako bidea, bereziki meharra edo aldapan dagoena", "bi horma edo hesien artetik doan bidea" eta "bi eraikuntzen arteko etxartea".

***Erregebideak**

Antzinako bide zabala, estatuaren ondasunen kontura egina eta gurdiak ibiltzeko gauza dena. Horrez gain, nolabaiteko garantia zuten herriak lotzen zituen. Oso bide garrantzitsua zen, ezinbestekoa gaur egun dugun bide sarea ulertzeko.

-burdinezko gurpildun burdiek edo gurpil zorrotzak zituztenek debekatuta zuten erregebideetatik ibiltzea, zuloak egin, zorua hondatu eta harri koskorak jasotzen zituztelako.

- bide zuloak zituen tokiak lurrez bete behar ziren, betiere bidearen bihurgunea mantenduz.

-bide bazterretako harriak bananduz gero, berehala konpondu behar zen derrigorrean.

-**Oinbidea.**-

Sendak edo bidezidorrak dira, hau da, pertsonak beren joan-etorrietan bakarrik zabaldutako bideak. Bide estuak dira, pertsona batentzako modukoak eta normalean hemendik ez dira abereak eramaten.



11.- GERRA GUREAN. GERRA HAUSNARREAN

Koadernoan datozen orrialdeetan, herriak jasandako gerretan murgilduko gara. Lehenik, ordea, interesgarria iruditu zaigu gerraren inguruan hausnartzea, banaka eta taldean. Gai korapilatsu horren inguruan dituzten ideiak, ikuspuntuak eta abar azalarazi eta denen artean aztertzekeo.

Horretarako, lehenik eta behin, hausnartzeko, hainbat galdera proposatu dizkizuegu.

Galdera horiek taldean landu daitezke edo banaka, egokien iruditzen zaizuen moduan. Galderen erantzunak idatziz eskatuko diegu, edo taldean lan egin badute, proposaturiko puntuan eztabaidatu ondoren, denen artean ondorioztatu dutena jasotzeko eskatuko diegu. Erantzun horiek, gero, talde handian jorratu ditzakegu, edo nahi izanez gero, talde bakoitzak atera dituen ondorioak horma-irudi batean jarri ditzakegu.

Gehiago landu nahi izanez gero, gerren inguruan aurkitzen dituzten irudiz eta argazkiz apaindu dezakegu lana.

Hausnarketa hori egin ondoren, uste dugu prest izango direla gerraren gaian murgiltzeko. Ondorengo jardueretan, gerraren inguruko hainbat iritzi eskatuko diegu, gerraren gaineko kontakizunen edo pasadizoren bat jasotzea etxean galdetuz edo herritarren bat elkarrizketatuz, eta abar.

JARDUERA1: Zer da gerra?

Zelan sortzen dira?

Zelan bukatzen dira gerrak?

Non ikasi duzu gerrari buruz dakizuna?

Zein gerra ezagutzen duzu?

JARDUERA2: Nortzuk galtzen dituzte gerrak, zure ustez?

JARDUERA3: Hemengo zein berbak deskribatzen du gerra? Iluna, Heriotza, Beldurra, Gosea, Negarra, Kartzela, deserriratzea...

JARDUERA4: Idatzi hemen gerrari buruz kontatu dizuten kontakizuna edo pasadizoa.

JARDUERA5: Gerraren inguruko hainbat esaldi agertzen dira bertan. Irakurri denak, hausnartu eta jarri ondoko koadroan zuk gerrarekiko lotzen duzun sentimenduarekin egokien iruditzen zaizun esaldia. Bat baino gehiago jarri ditzakezu, eta gero arbelean bederatzi zutabe marratzuko dugu (esaldi bakoitzarentzat bat) eta ikasleei eskatuko diegu azaltzea iritzia eta arbelean jasotzea. Gero, Arbelan aipamen gehien jaso duten esaldiak irakurriko ditugu, eta ikasleei eskatuko diegu azaltzeko zergatik aukeratu duen hori.

Koadernoko 8. orrialdea. Goi partean dagoen argazkia Gernikako bonbardaketaren ostekoa da, 1937ko apirilaren 26an "Legion Condor" izeneko hegazkin taldeak herri hori



birrindu zenekoa da. Gerra bateko dokumentu grafikoa da eta hausnarketarako lagundu dezake gerraren inguruan iritziak eta sentimenduak mahai gainean jartzeko.

JARDUERA6: Arakatu egunkariak, aldizkariak, Internet eta munduan zehar dauden gerren gaineko berriak eraman gelara. Munduko mapa handi batean gerran dauden herrialdeak adierazi ditzakezue eta bakoitzaren ondoan astero dauden berrien laburpena ipini dezakezue.

Koadernoko 8. orrialdea.

12.- GERRA GUREAN: GERRA DIPUTAZIOA

Frantsesak 1794ko uztailaren 24an sartu ziren Gipuzkoan eta Donostialdeko herri guztiak inbaditu zituzten, Moncay generalaren agindupean. Gipuzkoako gobernua Getarian zegoen ezkutatuta eta aukera ikusi zuen Gaztelako koroarekin apurtzeko eta 1200an galdutako independentzia berreskuratzeko.

Frantziaren babesean, Donostiak lideratzen zuen Gipuzkoa hiritar eta merkataritzakoaren nahia zen Estatuarekin zeukan foru ituna apurtzea, estatutik bertatik hainbat muga-zergez eta zergez ekonomikoki estutzen baitzuen. Moncay jeneralarekin bake hitzarmena sinatzea erabaki zuen, baldintza hauekin: erlijio katolikoa errespetatzea, foruak, ohiturak eta jabegoak errespetatzea, 1200. urtera arte bezala independentzia politikoa lortzea Espainiarekiko eta armak hartzen ez behartzea.

Jeneralak hasieran onartu egin zituen baldintza horiek, baina bere nagusiek ez zuten gogo handirik hori onartzeko eta Gobernu haren ordezkariak atxilotu zituen eta Baionara eraman zituzten preso. Gipuzkoarrak atxiloketa haiekin haserretu eta Arrasaten elkartu ziren Gipuzkoako hamazortzi herri.

Jose Maria Echaguibelen y Orbe notario arrasatearraren ekimenez Batzar partikularra deitu zuen 1794ko irailaren 1ean. Bileran hartara etorri ziren 18 herri eta haiek ez zuten onartu Getarian erabakitakoa eta Gipuzkoako independentziaren aldeko borroka aldarrikatu zuten, Espainiaren barruan eta frantsesen aurka borrokatzea erabaki zuten.

Frantsesen inbasioarekin Gipuzkoa geografia ikuspegitik bananduta gelditu zen Tolosa-Oria lineatik.

Arrasaten sortutako "Diputazio berriak" edo "Diputación a guerra" k frantsesen aurka borrokatzea defendatu zuten, Espainiak Gipuzkoarekiko zeukan burujabetasuna onartuz. Zer dela-eta, "Diputacion a Gerra". Bada, foruek esan zutena aplikatuz, hots, inbasioren edo gerraren bat izanez gero lurraldean, ejertzitza antolatzea eta hornitzea euskaldunei zegokiela onartzea zen. Hortaz, erakunde haren beharra zen ejertzitza aukeratu, ejertzitza bildu, antolatu eta hornitzea.

Gerra Diputazioak bere defentsa linea Deba herriaren aldean antolatu zuen, baina



Frantsesek Bergara okupatu eta arpilatu zuten 1794ko azaroaren 28an, baina Gabriel de Mendizabal bergararren agintean herria geroago berreskuratu zuten.

Moncey jeneralak Araba, Bizkaia eta Espainiako hainbat gune konkistatu zituen 1795ean, baina 1795eko uztailaren 22an Basileako bakea sinatzean, frantsesak Euskal Herrian eta Espainian konkistaturiko hainbat lurralde itzuli zituzten. Baionan espetxeraturiko gobernua aske gelditu zen, eta horrela bi diputazioak elkartu ziren.

Gipuzkoarren zati batek agerturiko asmo independentisten ondorioak, armistizioa sinatutakoan, luzaroan mantendu ziren eta sakonak izan ziren.

Gerra Diputazioa 1794ko azaroaren 28ra arte gelditu zen gure herrian, hau da, frantsesak Bergaran sartu arte. Gero, lekuz aldatzen joan zen, Gatzagan gelditu zen arte.

3.- GERRA GUREAN: 1808-1813ko GERRA NAPOLEONIKA

Lisboa konkistatzeko asmoz, 1807ko urriaren 19an Napoleonen tropak Irunen sartu, Oiartzun, Hernani, Andoain, Tolosa, Zumarraga, Bergara, Arrasate eta Gatzaga bereganatu eta Madrilera abiatu zen, konkistatzeko asmoarekin. Arrasaten izan zen, frantses gune handiena, baina eskualdeko herri guztietan nabaritu ziren janariak, arropak, dirua eta ondasunak desagertzea. Donostia frantsesen agintean zegoen eta Donostiako erreketak, 1813ko abuztuaren 31n, ekarri zuen gerra honek, ingelesak portugaldarrekin batera, biok espainarren aliatuak, Donostia susutsitu baizuten., 1600 hildako eragiten.

14.- GERRAK GUREAN: KARLISTADEN AURREKO EGOERA

Historiagile batzuek diote Gerra Diputazioaren garaia izan zela bi Gipuzkoako diputazioen arteko banaketa ideologikoa, geroago liberalen eta karlisten artean eman zen banaketaren isla edo germena.

XIX. mendea eta XX. mende hasiera gatazkatsuak izan ziren Europan eta baita Euskal Herrian ere.

Europan zabaldu zen konstituzio liberalaren aurkako mugimendua, paperen eta agirien bidez, agertu zen Euskal Herrian.

1822tik aurrera, liberalen aurkako iraultza handi bat prestatzeko koordinatzen hasita zeuden, eta, Espainiako erregearen aldeko partidek edo boluntarioek hainbat ekintza armatu egin zituzten.

Aliantza Santuak *San Luisen Ehun Mila Semeak* (Angulemako dukearen buruzagitzapeko frantziar tropak) bidali zituen Espainiara, eta horri esker, Fernando VII.a Espainiako errege absolutu bihurtu zen berriz. Halaxe bukatu zen Hirurteko Liberalaren (1820-1823) erregimen konstituzionala, eta beste aldi bat hasi zen: Zorigaiztoko Hamarkada (1823-1833).



Gerra haien jatorria edo eragileak hauek izan ziren:

*Ideologikoa:

- Absolutuak edo karlistak (haientzat Karlos-ek izan behar zuen errege).

- Liberalentzat, berriz, Isabel II, Fernando VII aren alaba izan behar zen.

*Ekonomikoa. Karlisten arabera, liberalek Euskal Herriko hondamendi ekonomikoa ekarri zuten, Batetik, zerga asko jartzen zizkietelako kanpoko produktuei; errentak igotzen zituztelako, herri lurrak saltzen zituztelako. Burgesiak liberalismorantz jo zuen, foru sistemak ez zuelako jakin merkataritzaren garapen gero eta handiagoa bereganatzen. Liberalek foruak kendu nahi zituzten, Espainiako batasun juridikoa eta zentralizazioa lortzeko.

*Erlijiosoak. Liberalek antiklerikalak eta erlijioaren aurkakoak zirela esaten zuten karlistek eta karlistek, berriz, erlijioaren defendatzailetzat zuten bere burua.

15.- GERRAK GUREAN: I. KARLISTADA (1833-1839)

Lehenengo karlistada 1833an hasi zen. Euskaldunen artean, emakumeek etxearen jabeatasuna zuten gizonak bezala, baina Lege Salikoa ezarri zuen Espainian Felipe V.ak. Gaur egun arte, Espainiar koroa heredatzea galarazten zien.

Fernando VII.ak, hil aurretik, emakumeak tronuratzeko aukera ezarri zuen, zuzenean nahiz zeharka gizonetako oinordekorik ez zegoen kasuetarako. Fernando VII.aren anaia, Karlos Maria Isidro infantea, beraz, ondorengotzatik kanpo gelditu zen, Fernando VII.ak alabak soilik zituen arren; Isabel eta Luisa Fernanda izenekoak.

Fernando erregea 1833ko irailaren 29an hil zen. Lege Salikoaren arabera, Karlos Maria Isidoro anaia oinordeko izendatu behar zuten, baina Isabel alaba izendatu zuten erregina. Adingabea zela-eta haren ama Marai Kristina hautatu zuten erregeorde. Karlistek, Karlos Maria Isidoren aldekoak, ez zuten egoera onartu eta aurre egin zieten liberalei, Isabelen aldekoak. Liberalek Isabelen alde, karlistak, lege salikoaren alde, Karlos Mariaren alde. Euskaldun gehienak karlistak: Txapelgorri, liberalek: pezetazaleak.

Lehen Karlistaldiari hasiera eman zion altxamendua gertatu zen Bilbon, 1833ko urriaren 3an. "Zazpi urteko gerra" ere deitu izan zaio anai arteko gerra honi.

Bi alditan banatzen dute Lehen karlistada:

1.- 1833-1835. Zumalakarregiren garaia deitu izan zaio.

2.- 1835-1839. Zumalakarregiren heriotzatik Bergarako Besarkada arte.

Gerra hasi zenetik sei urte geroago, nekea hasi zen nabarmentzen euskal karlisten artean eta baita liberalen bandoan ere. Liberalen aliatuak ingelesak ziren eta haiek jasaten ari ziren kostu ekonomikoarengatik, gerraren bukaera nahi zuten. Armadako batek, Lord Hayk, hasiera eman zion negoziatioari. Karlistek eta liberalek ez zuten begi onez ikusten negoziatioa, baina Ingalaterrako gobernuak bultzatu zuen prozesua. Lord Haykek karlistada baino lehen esku bakarreko teleskopioa asmatu zuen eta dirudienez, Bilbon



zegoen, bala batek Zumalakarregi jenerala zauritu zuenean.

Saiakera hau baino lehenago Jose Antonio Muñagorrik berea aurkeztu zuen: Foruak eta Bakea, 1838ko apirilean, baina porrot egin zuen Muñagorriren proklamak "proklamia" eta hark eta beste mila soldaduk muga gurutzatu zuten, Baionara.

Muñagorriren bertsoak hauek dira:

<p>Muñagorrik diona bere proklamian, Gerrak hondatzen gaitu bosgarren urtean; Iaz jarririkan Carlos Madrilgo bidian, Bultza zuten atzera, gerra bere oinean</p>	<p>Semeak soldadu ta preso gurasoak Ezin pagaturikan kontribuzioak Trintxera lanetara gainera auzoak Dolorezkoak dira gaur gure pausuak</p>
<p>Agintarti onenak preso daduzkate; Euskalduna izatea du bakoitzak kalte. Tejeiro ta Maroto guzien alkate: Zer gizon horietatik espera genzake.</p>	<p>Kordoiz inguraturik kostatik Ebrora, Trabaz gaude josirik behera eta gora. Atzenikan frantsesak itxi du frontera Gerrak ez dakar onik inondik inora.</p>
<p>Carlos agertu ezkerro probintzi hauetan Beti bizi gerade neke ta penetan, Nahiz kendu guk duguna behin ere ezer eman Bost negara egiteko nonbait jaio ginen</p>	<p>Atea ere ari da igotzen poliki Dirua ezkututzen da egunero hemendik. Nola bizi garen, harritutzen naiz ni</p>

Karlisten eta liberalen arteko Bergarako Besarkadak eman zion amaiera Euskal Herrian lehenengo karlistadari, 1839ko abuztuaren 31n.

16.- LEHEN KARLISTADA HERRIAN eta ESKUALDEAN. BERGARAKO BESARKADA.

Rodil jeneral liberala 1834ko abuztuaren 17an sartu zen Arrasaten, eta bertan gaua pasatu zuen. Biharamunean Arantzatzu suntsitzea agindu zuen eta han zeuden frantziskotarrak preso hartu zituen.

Debagoieneko bi herrik protagonismo handia izan zuten gerra hartan: Oñati eta Bergara. Oñati, Karlos erregeak gerrate garaiko kortetzat hartu zuen : errege inprimategia-Gazeta ofiziala hartu zuelako eta lehen karlistar unibertsitatea-Real y Pontificia Universidad-jarri zituelako. Bergarako hitzarmenaren sinadura ere Oñatin izan zen.

Lord Hay ingelesak, 1839ko urtarrilean, Rafael Maroto jeneral karlistarekin eta Espartero erreginarekin bozeramailearekin hasi zituen lehendabiziko elkarrizketak, gatazka konpontzeko. Adituek diotenez, behin eta berriro Esparterok foruak indargabetu nahi zituela eta horregatik karlistak asko haserretzen ziren, foruei eutsi egin nahi zieten, herriak eskatzen zuenaren arabera. Abuztuaren 27an apurtu ziren negoziazioak, baina handik bi egunera sinatu zen Bergarako hitzarmena. "**Begarako besarkada**", Irizar jauregian.

Aurretiaz akordioaren aurka agertu ziren buruzagi militar karlistak fusilatu zituen Marotok



Lizarran. Hortaz, ez zen antzematen besarkadaren aldeko giroa karlisten artean. Hitzarmen hori Gipuzkoako hiru batailoik eta Bizkaiko zortzik babestu zuten, baina gainontzekoak, Nafarroako hamahiruk, Arabako seik eta Gipuzkoako bostek, erbesteko bidea hartu zuten, erregegaiarekin batera.

Hamar puntuz osatutako testua izan zen eta eztabaidagarriena lehena zen; haren arabera, Esparterok gomendatuko zion gobernuari gortek foruak onartu edo aldatu zitzaten. Gainera, militar karlisten graduak mantentzen ziren.

Iruzurra izango balitz bezala, saldukeriatzat hartu zuten ituna Euskal Herrian; horregatik deitu zioten "besarkada". 1841ean Nafarroako Lege Hitzartua onetsi zen, zeinak Nafarroako foruen galtzea ekarri zuen.

Sinaduraren ostean, Esparteroren ospeak gorakada nabarmena izan zuen eta erreginaren erregeorde izan zen eta handikien tituluak jaso zituen: Bergarako Printzea, Garaipenaren dukea. Maroto Perun eta Txilen borrokatu zen, Jose San Martin askatzailearen kontra eta Txilen hil zen. Elgetako bizkondea eta Maroto etxeko kondearen tituluak jaso zituen.

17.-LEHEN KARLISTADAREN AMAIERA

Bergarako Hitzarmenak (1839/08/31) eman zion bukaera gatazkari, eta Bergarako Besarkadaren bidez berretsi zuten hitzarmena. Esparterok foruak errespetatzea aholkatuko zuela agindu zuen. Baina, kontuak kontu, zenbait aldaketa gertatu ziren, 1841eko urriaren 29ko dekretuari jarraiki: Batzar Nagusiak desagertu egin ziren, foru baimena indargabetu zuten, aduanak kostaldera aldatu zituzten eta erregimen fiskal eta ekonomiko komuna ezarri zuten euskal lurretan. 1841eko Foruak Aldatzeko Legeak arautu zuen Esparterok. Hura hil ostean, foru sistemaren zati bat berreskuratu zuten Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak; Zorigaitzaren Foruak esaten zaie.

Jendeak ez zuen nahi aduanak lekuz aldatzea, hornidurak garestituko zirelakoan. Baina Lehen Karlistada galdu eta gero, mugak behin betiko aldatu ziren.

18.- GERRAK GUREAN: II. KARLISTADA (1872-1876)

Euskal Herriko tokirik gehienetan bezala, aurreko hamarkadetan herrian izandako iraunkortasun politikoa gainbeheran hasi zen 1868an. Urte hartan liberalek Isabel II.a kanporatu eta Madrilen politika laiko eta aurrerakoiari ekin ziotenean, Euskal Herrian ordura arte nahiko isilik zeuden karlistek indarra hartu eta erlijio katolikoaren defentsan hasi ziren mobilizatzen, Karlos erregegaiaren inguruan. Kanta batek dioen bezala:..."aitaren seme irtengo gera Karlos Borbonen soldado/ bandera beltzak jarri ez gaitzan lege zikinen esklabo".

1872ko apirilera arte ez zen matxinadarik izan ordea; beraz, lau urtez tentsioak eta ezinikusiak elikatu zituzten. Gerraren hasieran gerrillari karlistek bereganatu zituzten Euskal Herriko eskualde gehienak eta hiriburuak. Espainian Errepublikak aldarrikatzeak are gehiago piztu zuen katolikoaren amorrua eta 24.000 txapelgorriz osatutako armada osatu zuten.



Behin, liberalek Madrilen Alfontso XII.a berrito jarritakoan, liberalen armadak, baliabide gehiagorekin eta prestakuntza profesionalagoarekin, hasi ziren garaitzen arazorik gabe karlistak.

Toki bateko eta besteko adiskide eta familia asko suntsitu ziren. Zatituta gelditu ziren herri horietako bat izan zen gure herria; gatazka zibila balitz bezala bizi izan zuten gerra, eta herriko historian oso oroitzapen mingarriak utzi zituen. Gatazka politikoak bizitzako arlo guztiak menderatu zituen: harreman pertsonalak, familiakoak edota ekonomia eremukoak.

Matxinadarako deia zabaldu zuten, apaizek, batik bat.

19.- BIGARREN KARLISTADA HERRIAN. GERTAERAK.

Bigarren karlistadaren zertzeladak nabariak izan ziren gerra hasi aurretik. Garai hartan oso famatuak ziren gerra Leintz bailarako Karlos VII.aren aldekoak. Anekdotak gisa, 1869an Aretxabaletan gertatutakoa: Eibarko musika bandakoek jotzen ari zirela, Arrasateko mutil gazte batzuk 'Gora Karlos VII.a eta beheara askatasuna' oihuka hasi ziren.

Arrasateko Udala liberala zen eta agintariek sarri "gora askatasuna" oihukatzen zuten.

Gerrari dagokionez, anai arreben arteko borroka zen eta gerra hark hondamendia besterik ez zion ekarri Arrasateri. Hondamendi ekonomikoa zen batez ere, herritik pasatzen ziren tropak janari eta jantziak lortzeko herritarrei agintzen zitelako ematea, et askotan jendea bortxatuz.

Arrasaten gertaturiko ekintzarik aipagarrienetako bat izan zen 1873an gertatutakoa. Gipuzkoako Karlista buruzagia Antonio Lizarragak Arrasate eskuratu zueneko.

Liberalak beren burua galdutzat joz, udaletxea hartu zuten gotorlekutzat, handik San Juan elizara tunel bat zeukaten eginda. Gauzak okertzen hasi zitzaizkion liberalen egindako tunel hartatik sartu ziren. Karlistek liberalak irtenarazteko asmoz parrokiaren inguruan piper ugari egindako sua piztu zuten. Kiratsa jasanezina zenez, liberalak errenditu egin ziren.

1874ko ekainaren 21ean, Isabel II.a Arrasatera etorri zen eta San Balerio kobazuloa bisitatu zuen.

Gesalibarko bainuetxea ospitale bihurtu zuten 1875. urtean, gerrako zaurituak zaintzeko. Sasoi hartan Benito Menni italiar apaizak Gesalibar bisitatu zuen. San Juan de Diosen beste bost anaiekin batera, alderdi karlisten osasun zerbitzuetan sartu zen, Gurutze Gorri neutralaren erizain moduan. Haren lana zen frontean lehen laguntzetako ospitaleetako ohatilari lanak betetzea.

20.- SANTA KRUZ APAIZA (Manuel Santa Cruz Loidi)

Elduainen jaio zen 1842an eta Kolonbian hil zen 1926an.

Gobernu liberalen aurka altxatu zen, erlijioa eta foruak defendatzeko, baina armada karlista fundamentu gutxikoa iruditzen zitzaion eta konpainia propioa osatu zuen. Bere gizonentzat



ez zegoen ez frontierik ez kuartelik: mendian ibiltzen ziren, liberalen tropei segadak egiten zizkieten eta gero desagertu egiten ziren. Konpainia ibiltaria zen berea, eta apaizak bere soldaduak gupidarik gabe fusilatu zituen ezkutuan ardoa edateagatik edo emakumeekin ibiltzeagatik.

Gure eskualdean, 1872ko abuztuan, Bergara eta Arrasate artean zihuan konboi militar bat erasotu zuen bere jarraitzaileekin, baina preso hartu zuten Besaide aldean -hala diote historiagile batzuek- eta Aramaioko udaletxean giltzapetu zuten, biharamunean fusilatzeko. Apaizak, gauean, gerrikoa balkoian lotu eta ihes egin zuen. Errekan sartuta igaro zuen gaua, hotzak akabatzen. Egunsentian Errotabarri baserriko morroia ikusi eta laguntza eskatu zion: "Gorrixa bazara ala zurixa bazara, lagundu arren".

Morroia liberalen aldekoa zen, baina errekatik etxera eraman eta arropa lehorra utzi zion. Santa Kruz, gero, Gantzaga auzoko Urdungio baserrira joan zen, bertakoa ezagutzen zuelako. Baserri hartan, arrosarioa errezatu eta gero, jabeak mendian gora eraman zuen: "Hiru egun pasatu zituen Nardingo koban (Lezeaga). Baserritar haren semeak, orduan 12 urte zeukan, egunero igotzen zion janaria apaizari. Handik gutxira muga pasatu zuen eta bere taldetxoarekin bildu zen.

Kobazuloa gordeleku ezin hobea zen: topatzeko ia ezinezkoa eta bailara osoa zelatzeko egokia. Kobazuloan kutxa bat jarri zuten, San Kruz apaizaren arrosario bat, biografia bat eta bi erretraturekin. Aita Santuaren barkamena jasotakoan erbesteratu zen, Jesusen konpainian sartu eta misiolari aritu zen Jamaikan, 15 urtez, eta Kolonbian, 34 urte igaro zituen. Esaten dute, handik Aramaiora gutun bat bidali zuela. Gutunak zera zioen: "Urdungioko baserrikoei esaiezue haien alde otoitz egiten dudala eta zerura iristen naizenean soka lodi bat botako diedala denak nirekin igotzeko".

Garai hartako borrokalaririk trebeenetakoa izan zen; bi bandoen buruzagien artean salatuena, gorrotatuena eta maitatuena izan zen.

21.- BIGARREN KARLISTADAREN AMAIERA

Gerraren ondorioz baserri asko suntsitu zituzten; eta udaleko diru-kutxa sosik gabe zegoen, gerrak iraun zuen artean aparteko zerga ugari kobratu baziren ere, eta, karlistei ondasun asko kendu bazizkieten ere.

Guda hasieran, karlistak armada liberalari aurre egiteko gai izan ez baziren ere, 1873tik aurrera, armada berrantolatuta, ia Hego Euskal Herri osoa kontrolatu zuten; hala ere, hiri handiak kontrolatzeko arazoak zituzten. Gainera, Alfontso XII.ak monarkia berrezarri zuen, eta karlista asko konforme gelditu ziren horrekin. Horrek guztiak porrota ekarri zien berriro.

Karlisten porrotaren ostean, 1876ko uztailaren 21eko legea argitaratu zuten: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan foru sistema indargabetu egin zuten. Lege haren helburua zen Batzar Nagusiak, Foru Aldundiak, euskal udalen eskumen tradizionalak eta salbuespen fiskala eta militarra desagerraraztea. Nolanahi ere, lurralde horiek Espainiako gainerako



probintziek ez bezalako tratamendua jasotzen jarraitu zuten, 1878ko otsailean ezarritako kontzertu ekonomikoaren bidez.

Gerrak iraun zuen bost urteetan, haurrek zailtasunak izan zituzten eskolara joateko eta, haren ondorioz, askok ez zuten irakurtzen eta idazten ikasterik izan.

Koadernoko 9. orrialdea.

22.- CANOVAS DEL CASTILLOREN HERIOTZA.

XIX. mendearen azkeneko herena Espainiako politikan pertsona eraginkorrena izan zen. Gubernuburua izan zen eta borbondarren berrezarkuntza gauzatu zuena.

II. gerra karlista bukatu bezain pronto 1876ko uztailaren 21ean, lege baten bidez, bertako foruak deuseztatu zituen.

Arrasateko Gesalibarko bainuetxean egun batzuk pasatzen zegoela, Michele Angiolillo hil zuen. Hiltzeko lehendabiziko ahalegina Donostian egin zuen, baina ez zuen lortu.

Abuztuaren 8ko eguerdian senar-emazteak bainuetxeko geletatik jangelara hurbildu zirenean, egunkari bat irakurtzen eserleku batean jarrita zegoela hil zuen. "Il Poppolo" egunkariaren Emilio Rinaldini kazetariaren izenpean erregistratua zegoen bainuetxean.

Hiltzeko zioa zein izan zen?. Bada, 1896an Bartzelonako Canvis Nous kalean prozesioa ospatzen ari zela, bomba batek eztanda egin zuen eta zazpi hildako izan zirenez, atentatu horren errunduntzat anarkistak hartu zituzten eta Montjuicen epaitu ondoren, 1897ko maiatzean, bost fusilatu zituztelako. Angiolillo anarkista zen eta hilketa horiek mendekatzeko Canovas del Castilloren aurkako atentatua prestatu zuen.

Bergarara eraman zuten atxilotuta eta epaitu ondoren 1897ko abuztuaren 20an, "garroteko heriotza zigorra" sistemaren bidez hil zuten.

osu Arteaga arrasatearrak film labur bat egin zuen 2011n, Canovas hil zuen Gregorio Mayoral Sendino borreroaren inguruan, eta esan daiteke historia hura ikuspegi guztietatik aztertua dagoela.

Canovasen heriotzak oihartzun handia izan zuen Euskal Herrian eta Estatuan. Bainuetxeak bere izen ona galdu omen zuen eta bainuetxea "El iris" eta "La Rosa" merkataritza baltzuek erosi zuten 1898ko urtarrilean. Berrikuntza lan batzuk egindakoan, 1898ko ekainean, atek ireki zituen berriro, osasun etxe (psikiatrikoa) bilakatuta.



JARDUERA 1.- Hemen daukazu lehendabiziko bertsoa. Bigarrena, topatuko zenuke?
 Kontatzen dute, Txirrita bertsolari ospetsuak behin, Donostiako udaletxean (lehengo kasinoa), topo egin zuela Canovasen alargunarekin eta bi bertso bota zizkiola.

Unitate didaktikoan ezker aldean jarri dugu bertso bat eta bigarrena topatzea eskatzen dugu, dituzuen baliabideekin, Interneten bidez... Laguntza moduan hauek dira bertsoak:

Il da Canovas, fuera Cánovas,
 Pikaro gaizki eziya,
 Galdu zituen gari-zelaiak,
 gallendu zaio sasiya;
 Galdu zituen ipar garbiyak,
 Gallendu trumoi nasiya,
 Galdu zituen fueruak eta
 Jaungoikuaren graziya,
 Galdu zituen bizi-lekuak,
 Galdu du bere biziya .

Iru relejo, iruna kate,
 Iru mallakin bakoitza,
 Buruan iru korona eta,
 petxuan iru orratza,
 amoriyua iru dobletan,
 tximista bezain zorrotza,
 iru tirotan utzi zizuten
 zuri senarra illotza,
 iru ezpatak zulatzen dute
 señoira, zure biotza

Kodernoko 9. orrian

23- GERREN ARTEKO GARAIA: MAROKOKO GERRA, DIKTADURA, ERREPUBLIKA.

Azken Karlistada amaitu zenetik, 1876an, 1936ko gerra hasi zen arte, igarotako urteak politika eta gizarte ikuspegitik gorabeheratsuak izan ziren.

1936ko gerra hasi aurretik bi errepublika eta haien artean beste bi diktadura eta Marokoko gerra eta I. Mundu Gerra ezagutu zituen herriak. Union Cerrajera 1906an sortu zuten eta lantegi hartan liskar ugari izan ziren eta 1916an greba luze bat izan genuen, eta hark sekulako ondorioak izan zituen herrian. Zuzendaritzak 10 orduko lan ordutegi berria inposatu nahi zuen eta langileek greba egin zuten, lau hilekoa izan zen eta lanera itzuli baziren ere, 31 kaleratu zituzten.

Espainiak Ameriketako koloniak galdu berri zituen eta Europako potentziek Afrikako lurren



banaketa egiten ari ziren eta Espainiak horretan parte hartu ahal izateko Marokoko okupazio militarari ekin zion. Espainiako gobernuak Frantziakoarekin akordio bat sinatu zuen, bien artean banatzeko. Espainiako Armadak eraso egin zuen Maroko 1919an, eta protesta ugari izan zen. Arrasaten gerra horren aurkako iritzia oso sustraituta zegoen eta mutil batzuk, gerra horretara ez joateagatik, Ameriketara joan ziren. Behin antzerki talde batek emanaldiak egin zituen Maalako trinketean.

Marokon zeuden soldaduei elkartasuna adierazteko eta dirua jaso eta bidaltzeko herriko soldaduei. Gerra hark 1925era arte iraun zuen, baina 1923rako Marokoko gerran parte hartzen ari zen jeneral batek, Primo de Riberak, Espainian diktadura ezarri zuen 1923ko abuztuaren 13an, eta 1930eko urtarrilaren 30era arte iraun zuen. Arrasaten 1923ko irailaren 30ean udal kargu guztiak kendu zituzten eta Guardia Zibilaren postuko komandanteak herriko agintea hartu zuen. Geroago, urriaren 2rako beste udal korporazio bat izendatu zuten.

Gizonek botoa emateko eskubidea berreskuratu zuten 1931n. Emakumeek, ordea, beste bi urte itxaron behar izan zuten eskubidea berreskuratu zuten arte. Hauteskunde horiek errepublikanoek irabazi zituzten eta Espainiako monarkiak atzerrira alde egin behar izan zuen.

Monarkia erregimena erorita Bigarren Errepublika garaia hasi zen. **Apirilaren 14an**, behin-behineko gobernu errepublikanoa eratu zuten eta Gorte Konstituzionalerako hauteskundeak deitu zituen ekainaren 28rako: konstituzio berria egin nahi zuten Espainian. Hauteskundeak errepublikanoen eta sozialisten artean eratutako koalizioak irabazi zituen. Horiek, beraz, kutsu ezkertiarra zuen konstituzio berria idatzi zuten. Konstituzio hark ondorengo aldeak jaso z

Biztanleen askatasun eta eskubideen aldarrikapena; herriaren subiranotasuna; bozka eskubidea emakumeentzat; autonomia eskubidea izaera berezia zuten eskualdeetarako; eta gurtza askatasuna eta Estatuaren eta Elizaren arteko banaketa.

24.- ERREPUBLIKA GURE HERRIAN

Erregimen monarkikoaren aurkako oposizioa herriko indar politikoak eta sindikalez osatua zegoen..

Erregimen monarkikoaren gaitzespena agertu zuen **1931ko apirilaren 14ko** hauteskundeak, eta bigarren Errepublika aldarrikatu zen. Eibarren bezperan eman zen aldarrikapena. Jendea kalera irten zen bere poza agertzera. Arrasaten 600 pertsonatik gora manifestazioan irten ziren: Zentro errepublikanotik irten eta udaletxeraino joan ziren; Herriko Musika banda zuen buru eta emakume txano batez jantzia eta eskuetan Errepublikanoen bandera zuela. Udaletxean bildu zirenei Bernardo zinegotzi sozialistak hitz hauek egin zizkien: *"Gizonak! Iritsi da hainbeste nahi dugun errepublika, eta berarekin bukatu da, urrearen, sablearen eta sotanaren inperioa"*. Ekitaldia errepublikaren aldeko oihuekin



bukatu zuen.

Apirilaren 14ko udal hauteskundeetan hauek ziren emaitzak:

Lau errepublikano: Resusta, Garro, Ubago, Letona.

Bi sozialista: Gomez, Uranga.

ANVko bat: Markaide.

Lau karlista: Etxebarria, Pagoaga, Zubillaga, Zulueta.

Hiru nazionalista: Osinaga, Axpe, Uriarte.

Bilkura honetan Eugenio Resusta errepublikanoa hautatu zuten, 13 boto alde eta bat kontra. Gomez zinegotzi sozialistak eskatu zuen agurra bidaltzeko Errepublikako behin-behineko gobernuari eta Alkatetzatik Primo de Rivera-ren eta Martinez de Aguido-ren koadroak kentzeko.

Letona zinegotziak proposatu zuen Arano maisuaren koadroa jartzea pleno aretoan. Markaide zinegotziak, bere aldetik, Alfonso XIII-ko plazari Errepublika plaza izena ematea proposatu eta Udalak onartu egin zuen.

Aspek eskatu zuen Gobernuari eskatzeko euskal autonomia eman zezala eta Markaidek eskatu zituen Galan eta Garcia Hernandez-en koadroak (Jakan eman zen errepublikaren alde 1. altxamenduan fusilatu zituztenak).

Bigarren errepublikako lehen parlamentua osatzeko hauteskundeak egin ziren **1931ko ekainean**. Bi koalizio aurkeztu ziren hautagai: Estatutuaren aldekoa, EAJ eta karlistak eta, bestetik, ezkerreko koalizioa (errepublikanoak, sozialistak eta ANV).

Garai hartan erlijioak garrantzi handia zeukan jendartearen eta Arrasaten liskar ugari izan ziren horien kontura: Eskoletan eta Udaletxean zeuden erlijiozko sinboloak, eskoletan ematen zen hezkuntza, apaizek omen zeuzkaten abantailak kentzea, elizak jai bezala hartuta zeuzkan egunak lanegun izendatzea, garizuma...

25.- 1934KO URRIAREN 5EKO EGUNA". AURREKARIAK

Eskuina garaile irten zen 1933aren bukaeran, Estatuko hauteskundeetan, eta lantegien jabeek langileen lan baldintzekiko erabakiak gogortu zituzten: Plantilak murriztu, lan orduak gutxitu -Industrial Mondragonesan eta Elman astean 4 egunetan eta Metalurgian 3 egunetan lan egiten zuten-, lanetik langileak botatzea- 1934ko abuztuan UCEMen 51 langile bota zuten. Garai **hartan**

1934ko maiatzaren lehenean herrian egin zen manifestazioan, lan eskola baten errebindikazioa aldarrikatu zen.

Rikardo Semperek Espainako gobernu osatu zuen 1934ko apirilean, baina denbora gutxi iraun zuen eta kalean liskar handiak izan ziren: Falangistek estatu osoan erasotzen zituzten alderdi ezkertiarren lokalak, enfrentamendu armatuak eman ziren faxisten eta Gazteria Sozialista eta komunisten artean, grebak, eta gerra hotsa entzuten zen.



Gobernua erori zen 1934ko urriaren 1ean. Alcala Zamorak Lerroxi eman zion gobernua egiteko agindua eta horren arabera, ikusten zuten CEDAk (Espainiako eskuindarren koalizioa) lekua izango zuela gobernuan. Horrela izanez gero, ezkerrean partiduek pentsatu zuten Errepublikaren bukaera izango zela.

Urriaren 3an tropak kuartera bueltatzeko agindu zuten eta urriaren 4an gobernu berria izendatu zuten eta CEDAko 3 ministro zeuden. Alcala Zamora buruzagi sozialistak esanda zuen: "Alderdi sozialistak hitz ematen du estatu kolperik bada, iraultzari ekingo diola".

Estatuan antolatutako errebelta izan zen PSOE eta UGTren eraginez; bakarrik Asturiasen lagundu zioten anarkistek mugimenduari, probintzia eta herrietako juntak antolatu ziren, baina antolakuntza eskasa izan zen, probintzia gehienek aitortu zuten mugimendua ez zegoela ondo antolatuta.

Arrasateri dagokionez, errebolta hasiera emateko Eibartik etorri zen abisua goizeko ordu batean. Talde bat joan zen etxez etxe partaideak esnatzen eta taldeetan banaturik, gauzain, mikeleteak, aguazilak, lantegi zainzaileak beren etxeetan edo lantokietan harrapatu zituzten. Trenbideko geltokia hartu, trenbideko errai batzuk jaso, langileak atxilotu eta preso eraman zituzten. Herriko bi arma dendetan sartu eta eskopetez eta kartutxo hornitu ziren. Baserritarrei esnea kendu, UCEMeko ekonomatoa asaltatu eta janari guztiak Trinketera eraman zituzten. Kutxa ebatsi zuten eta patruila armatuak herriko leku estrategikoetan jarri ziren. Goizeko 5etarako, Guardia Zibilaren kuartera baino ez zuten falta hartzeko.

Bergara lanera zihoan Eugenio Edurra karlista kontrol patruila batek gelditu eta esan zioten etxera itzultzeko, baina bideari jarraitu eta tiro egin zioten, eta bernan zauritu. Handik hiru egunera Eibarren hil zen.

Handik gertu, Toribio Agirrearen etxean Marcelino Oreja Elozegi UCEMeko kontseiluburua bizi zen eta bera atxilotzera joan ziren, eta berarekin batera 20 pertsona atxilotu zituzten, eta Trinketera eraman zuten aparte jarriaz.

UCEMeko aholkularia eta probintziako diputatua Dagoberto Resusta etxetik irten zuen suhiari zer gertatu zitzaion jakiteko; Herriko Etxera abiatu zen eta bertan erreboltaiekin topo egin zuen. Bere kontra ezer ez omen zeukaten eta etxera joateko esan zioten.

Goizean bando bat atera zuten Errepublika sozialista aldarrikatuz: dirua abolitu zuten, berdintasun sozialaren aldeko dei egin zuten, eta Gizarte errepublika aldarrikatu, gerra legea ezarri eta janariaren banaketa Herriko Etxetik antolatuko zutela esan.

Kuarterari jarritako setioak jarraitzen zuen, baina presazko dei bat jaso zuten: Takolo ingurutik soldadu batzuk agertu zirela kamio batean. Gauzak horrela, Herriko Etxera korrika joan ziren eta atxilotuak Frontoi atzealdetik zeuden ortuetara atera zituzten, "Ferixaleku" rako zegoen bide bazterreko metro bete pasotxo paretara, zubi ondoan. Orduan



tiroak entzun ziren. Orejaren gorpua, behintzat, besoak zabalik eta zerraldo. Eta handik metro batzuetara beste gorputz bat aurkitu zuten hilik, Resustarena. Haien aurretik pasatu ziren sozialistak erresistentzia utzi eta ihes egin zuten mendira.

Soldaduak herrian ez ziren geratu; hori ikustean berriro herrira jaitsi ziren eta bando bat atera zuten arratsaldeko 6etatik aurrera kalean inor ez egoteko debekua iragarritz, baina ordubete geroago Burgostik zetozen bi konpainia soldadu sartu ziren Arrasaten. Tiroketa batzuk izan eta Herriko Etxeari setioa jarritakoan, hilaren 6an bukatutzat eman zuten errebolta. Altxamendu haren gidaria Iraultza Batzordea izan zen eta 200 pertsona inguruk osatu zuten eta gehienak UGT, Gazteria Sozialista eta Elkarte Sozialistako bazkideak ziren eta komunista banaka batzuk.

Arrasateko Iraultza Batzordea osatzen zutenak hauek ziren: Pedro Ruiz de Alegria, Bitor Berezibar, Jose Agirregomezkorta, Zelestino Uriarte, Frantzisko Azkonaga, Ismael Diez, Jaime Uriarte, Gillermo Lasagabaster eta Markos Vitoria.

26.- URRIKO 5EKO ONDORIOAK.

Mugimenduko buruek ihes egin zuten Frantziara eta beste batzuek mendira. Atxiloketa ugari egin zuten eta bi aste epean 170 preso inguru ziren, gero guztira, 230 atxilotu, zauritu asko eta Hondarribiko Guadalupeko gotorlekura eraman zituzten.

Hilaren 6an eta 7an Arrasateko alkateak 6:30etatik aurrera kalean ibiltzea debekatu zuen eta Herriko Etxea itxi zuen. Armada abenduaren 14 arte izan zen herrian eta asaltoko guardia 1935eko otsailaren 24 arte,.

Union Cerrajeratik 92 langile bota zituzten eta ELMATik Arrasateko 132 pertsona, Aretxabaletako 43 eta Oñatiko 24 pertsona auziperatu zituzten eta Bergaran erabateko lanuztea egin zuten eta grebak 6 egun eta erdi iraun zuen.

Musakolako Barrenazar baserriaren inguruan udaleko gauzain baten gorpua agertu zen, Secundino Vitoriaren gorpua, hain zuzen ere, Marcos Vitoriaren mugimendu horren kide baten anaia. Eskuan arma bat zeukala, prentsak zioen ez zekitela tirokatu edo bere buruaz beste egin zuen, baina egozten omen zioten errebolta hartan hildakoei "azkeneko tiroa bota izana". Pertsona hori hil zutenak karlistak izan ei zirela zabaldu zen, baina gaia argitzeke gelditu zen.

Heriotzak ikertzeko auziperatuak herrira ekarri zituzten hilketak irudikatzeko, eta tratu txar ugari egin zieten.

Guadalupeko gotorlekura bueltatu ziren, baina batzuk lortu zuten ihes egitea eta Errusiar alde egitea. Arrasateko Udalak hainbat akordio hartu zuen, altxamendu haren kontra aritu ziren pertsoneri, indar armatuei nolabait eskertzeko eta saritzeko.



27.- ALTXAMENDUA GURE HERRIAN. ARRASATE ERORTZEA.

Estatu osoan, Errepublikaren legalitatearen kontra Espainiako armadako Franko jenerala, Afrikako gerretan aritutakoa, armetan altxatu zen beste batzuekin batera, Afrikatik tartean Mola jenerala. Nafarroatik hasi zen altxamendu hori eta hiru mila nafar baino gehiago fusilatu zuten militarrek, falangistek eta karlistek. Geroago, estatu osora zabaldu zen gerra.

Geroago, Mola jeneralaren tropak Nafarroako erreketeen laguntzarekin "Dios, Patria y Rey" lelopean Gipuzkoa inbaditu zuten "Ejército Nacional", "Cruzada de liberación" deitu zieten altxatuek beraien armadari eta altxamendu hartan, 1937ko apirilaren 26an "Legion Condor" zeritzan hegazkin talde alemanek Gernikako bonbardaketa egin zuen, baina hori baino lehen Eibar, Otxandio, Elorrio, Durangon zibilen kontrako bonbardaketak burutu zituzten.

Oñati eta Gatzaga erori ziren 1936ko irailaren 21ean, militarren eskuetan, Arrasateren defentsarako azkeneko borrokak Bedoña auzoan izan ziren eta Galdakaoko Accion Nacionalista Vascako milizianoak hartu zuten parte; konbate horiek hilaren 25aren eta 26aren goiz partean izan ziren; bertan, Loramendiren omenezko zutarria profanatu zuten, gero kendu eta Aretxabaletako espetxean egon zen. Geroago jarri zuten lehengo tokian. Egun horretan, arratsaldeko 4etan, Portaloitik irten ziren Errepublikako azken blindatuak, eta une berean bestaldetik altxatuak sartzen ari ziren.

Trenaren geltokitik eta Maalako errebaletik iritsi ziren, Portaloian aurrean elkartu ziren guztiak eta bandera gorri horia jarri zuten. Herrian bi sute handi egin zituzten, bata zentro errepublikanoaren aurrean eta bigarrena plaza erdian; bi sute haietan, ikurriña, bandera gorri eta errepublikanoak, Galan eta Hernandezen Pablo Iglesias eta Sabino Aranaren erretratuak erre zituzten, dokumentu eta liburu askorekin batera.

Arrasateko biztanleria. 1936ko bukaeran 3.060 bizilagunekoa zen eta 1933an 7.835 biztanle zeuzkan. Ematen du biztanleriaren %60 baino gehiagok Bizkaira ihes egin zuela eta bertan gelditu ziren, ezelako zapalkuntza arriskurik antzematen ez zutenak..

Gerra guztien ondorioak latzak izaten dira eta Estatu kolpe hura II. Errepublikako legalitatea ordezkatzeko helburu zuen eta fusilamenduak, espetxeratuak, erbesteratuak, errepresio handia eragin zuen bizitzako arlo askotan. Bukatutzat eman zuten 1939ko apirilaren 1ean eta 1975 arte Francisco Franco Bahamonde buru izan zuen. Bizkaia eta Gipuzkoa "provincias traidoras"tzat hartu zituzten eta errepresio gogorra izan zen Euskal Herrian. Hauek dira Burgosen 1937-4-1ean Frankok emandako diskurtsoaren hitz batzuk: "En el día de hoy, cautivo y desarmado el ejército rojo, han alcanzado las tropas nacionales sus últimos objetivos militares. La guerra ha terminado. El Generalísimo Franco. Burgos 1 de abril de 1939".



28.- GERRAREN ZUSTAR SAKONAK

Gerrak ondorioak izan zituen herritar guztiengan eta baita herriko bizitzan ere. Herritar batzuek gerra irabazi zuten, eta beste batzuek, berriz, gerra galdu zuten. Irabazleek eta galtzaileek hurrengo hamarkadetan pairatu zituzten gerraren ondorioak. Alde askotatik aztertu genezakeen urte haietan gertatutakoa. Hala ere, kontuan izanik gure ikasleek duten adina eta gaiak izan dezakeen konplexutasuna, gerrak izan zituen hainbat ondoriotan sakontzea erabaki dugu. Bestalde, kontuan izan zein ezezaguna den historiaren kapitulu hau, baita gure herrian ere.

Helburua izango litzateke ikasleak jabetzea gerraren ankerkeriaz eta laztasunaz. Horretarako, esan bezala, gerraren hainbat ondorioren inguruan lan egitea proposatuko dizuegu segidan. Koadernoan aurkituko duzuen irudien informazioa duzue jarraian.

29.- GERRATIK IHESI: IHES LEGEA APLIKATZEA. EBAKUAZIOAK

Herriaren ebakuazio horiek izugarriak izan ziren, izua baitzen nagusi bazter guztietan. Lehendabiziko egunetatik gogortu ziren bidegabekeriak eta kasua da Untzillatik Arrasatera etorritako bi baserritarri gertatutakoa, non batak besteari "ibiltzeko baimena" utzi zion eta bera asto batean zihoala Guardia Zibilak eta Erreketeek jarritako kontrol batean atxilotu zuten gizon bat. Gero, baserritar horri lizentzia utzi zionaren bila joan ziren Guardia Zibila eta erreketek, eta atxilotu egin zuten.

Espetxean zeudela, bi lagun haiek ikustera joan zen bati esan zioten ihesi legea aplikatzekotan aztertzen ibili eta gero "libre" utziko zituztela **Bergarara joan zitezten aginduz**. Legarreko kontrolera hurbildu zirenean, agindua eman zieten ihesi legea aplikatzeko, eta bi gizon horien kontra tiro egiteko agindua eman zieten soldaduei. Soldaduek behartuta tirokatu zituzten bi gizonak eta han bertan zerraldo gelditu ziren bi egunean, jendeak eskarmentua hartu zezan, eta bertan hilobiratu zituzten, zulo batean, harik eta handik urte batzuetara, Legarren maisuen etxeak egiterakoan, atera zituzten arte. Hortaz, Manuel Elorza eta Zesario Aginagalde baserritarrak hil zituzten frankistek, ihesi legea aplikatu ostean.

Alde egin zuen inork ez zuen pentsatu hainbeste iraungo zuenik ebakuazioak. Gipuzkoa frankisten esku erori zenean, jendeak Bizkai aldera ihes egin zuen. Izan ere, Bizkaia ez baitzen askoz ere geroago arte erori, 1937ko uztailan, frankisten esku.

Euskadiko Gizarte Laguntzarako departamenduak Santandertik Bilbora eraman zituen haur asko, beste herrietako hurrekin, 1937ko maiatzaren 21ean, haur horiek Habana itsasontzian sartu eta Southampton-era (Ingalaterra) eraman zituzten. Itsasontzi horrek 400 lagunentzako lekua zuen arren, 3.862 lagun itsasoratu ziren bertan. Sei eta 15 urte bitarteko adina zuten umeak ziren, 96 irakaslerekin, 118 gazte bolondres eta 15 apaiz. Ingalaterrako lurretara heldu zirenean kanpin dendetan ipini zituzten. Gero, Ingalaterra osoan barreiatu



zituzten taldeetan banatuta.

1939an bi urte geroago, erdia baino gehiago Ingalaterran zeuden eta Espainiana beren familiek eramandako tokietan. Itzulera kasu askotan frankistek egindako tranpa zen, zeren gerra bukatutakoan bando errepublikanoaren familiak jazartzen aritu zelako eta bueltatzeko eskaerak faltsifikatzen aritu zelako.

Askok ez zuten aukerarik izan Euskal Herrira eta Espainiara bueltatzeko eta atzerrira joan ziren.

30.- BATALOIAK OSATZEA.

-Dragones batailoia.- Eusko Gudarostearen batailoia tipiko bat izan zen. Lehen osagunea Arrasateko jendez eratu zuten. Geroago, Donostia, Hernani, Errenteria eta Gipuzkoako zenbait herritako jendea ere batu zitzaion.

Arrasate erori ondoren, Gazteria Sozialista Bateratuko hainbat kide Elorrion eratu zuten eta beren ikurrinerako kolore gorria aukeratu zuten.

Murugaineko frentean, lubakietan izan ziren, Elorrion, Axpe Martzanan, Legutianon, Diman eta Elgetako Intxortan. Intxortan 1937ko apirilean borroka gogorrak eman ziren armada frankistaren kontra eta erresistentzia historikoa eman zen frentea hartan, baja ugariarekin. Gune hau utzi eta gero, Bizkaiko fronte aldera joan ziren.

-Amaiur batailoia lau konpainiak osatzen zuten: lehena Arrasate konpainia, bigarrena Arturo Kanpion konpainia, hirugarrena Aitzorrotz konpainia eta Laugarrena San Martzial konpainia. Markina, Durango, Urduña, Miranda, Mundaka, Aramaioko frentean izan ziren. Beste batailoia batzuekin batera brigada bat Asturiasera joan zen borrokatzera.

-Amaiur batailoia. Elorriotik, EAJko kideak eta Eusko Gaztedikoak Gernikara joan ziren. Han osatu zen batailoia, Euskal Milizien buru zen Felipe Lizasoren esanetara. Batailoia hartako lehenengo konpainiako kide guztiak Arrasatekoak ziren (150 gizon). Beste 50 arrasatear inguru, beste batailoia batzuetan sartu ziren: San Andres, Loyola, Lenago il eta Itxarkundia. Halaber, "Acción Nacionalista Vasca"ko kideak beren batailoia propioak antolatu zituzten eta haien komandantea Gabriel Goitia izan zen.

-Arrasateko erreketek, Oñati eta Aretxabaletako beste batzuekin Zumalakarregi tertzioa osatu zuten 1936ko urriaren hasiera aldera. Batzokia tertzio horren egoitza bihurtu zen. Tertzio horretako hainbat partaide sartuz errepresiotik libratzeko modua ikusi zuten errepublikano, sozialista eta nazionalista arrasatearrak izan ziren. Lehendabiziko kapitaina Ezkurra "Uba kapitaina" izan zen. Jendea alistatzeko erabiltzen zuten leloetariko bat hauxe zen: "Nuestro destino...salvar al mundo, sirviendo a Dios y a España! ¡ Alistaos en el Requete!"

31.- FUSILAMENDUAK. HILDAKOAK.

Arrasateko okupazioaren ostean, 1936ko irailaren 26a, urrian eta azaroan Debagoieneko 54 herritar sartu zituzten espetxeetan eta gero fusilatu. Arrasaten fusilamendu kopurua 46koa izan zen. Epaiketa barik eta kasu askotan, Ondarretako ziegetatik atera, libre geratzen zirela



esaten zieten, dokumentu bat sinarazi, kamioan sartu, apaiz batek aitortpena egiten zien, hormara eraman baino lehen Fusilamendu gehienak Hernaniko kanposantuan eta Oiartzunen izan ziren.

Batez ere, gogorra izan zen herriko hiru apaizekin gertatutakoa, Arin erretorearekin, eta Markiegi zein Guridi laguntzaileekin. Haien atxiloteta baino lehen Herrira Urraca pastor frankistak topo egin zuen Erretorearekin eta esan zion "Grite Vd viva España"; erretoreak hala egin zuen. "Altuago" esan zion, eta hala egin zuen eta hirugarren aldiz hala egin zuen. Orduan, Urraca Pastorrek esan zion "Si de mí dependiera, ahora mismo sería fusilado". Parrokoa behartu zuten meza gaztelaniaz egiten eta bakarrik bukaeran, euskaraz berba batzuk egin zituen, gaztelania ulertu ez zutenentzat. Politikari asko irten zen mezatik esaten zutela meza euskaraz egin zuela.

Handik hiru egunera, 1936ko urriaren 21ean atxilotu zituzten hiru apaizak eta fusilatu egin zituzten "Te Deum" kantatzen zuten bitartean. Arin parrokoa zen, Markiegi ikastola kristauan parte hartzen zuen eta euskararen alde jardun zuen. Guridik eskoletan postulatu lana egiten zuen. 1936ko urriaren 24tik 25erako gauean fusilatu zituzten. Alkatea Jesus Gorosabel zen.

Geroago, azaroaren 2an, Arrasateko 16 pertsonaz osaturiko preso talde bat kamio batera igoarazi zuten, udaletxeko espetxetik atera eta gero. "Libre utzi zituzten", baina gero Oiartzungo kanposantuan fusilatu zituzten.

Etiketetik desagertutakoak "Frontean balaz zauritu zituzten liberazioaren gerraren ondorioz" eta "Gerra ekintzak". Horrela erregistratu ziren Arrasateko fusilatuen heriotzen arrazoiak, eta gaur egun oraindik horrela jarraitzen dute epaitegietan.

Fusilamenduez gain, guda frontea Arrasaten gelditurik egon zen hilabeteetan etengabe bonbardatu zituzten errepublikanoen xede militarrek eta lantegiak. Hori zela-eta, zibilen artean hildako ugari, jende nagusia eta umeak tartean, hogeiren bat, izan ziren herrian, hegazkinen bonbardaketaren, metrailaren eta granaden ondorioz.

32.- PRESOK. ERBESTERATUAK.

Euskal Herrian atxiloteta asko izan ziren eta 40.000 euskal preso inguru kalkulatu zuten eta haietatik 3.000ek heriotza zigorra zuten.

Arrasateko 300 presoek 4tik 7 urtera bitartean izan ziren espetxeetan. Batzuk kontzentrazio esparruetan eta handik eraman zituzten lan batailoietara. Espetxe hauetan izan ziren: Dueso, Ondarreta, Puerto de Santa Maria, Larrinaga. Deustu ko unibertsitatea eta eskolapioen komentua.

Askok erbestera joan behar izan zuten, Frantziara batez ere, eta han harrapatu zituzten eta alemanen eskuetan izan ziren, Angerseko kontzentrazio eremuan. Batzuk Kataluniatik,



Pirinioetatik, Frantziarantz abiatu ziren.

33.- GERRAKO GERTAERAK, GERRA ONDORENGO DEBEKUAK

1936ko gerra hau arrasatearren artean bi aldeen arteko banaketa ekarri zuen eta ezinikusia nabarmen nabarmena- lagunen artean, familien artean hausturak eman ziren. Ihes egindako edo preso izandako gizonen bizimodua gogorra izan bazen ere, emakumezkoena are gehiago. Gerra hartan eraso sexistak arma moduan erabili zituzten "garaileek" eta bortxaketa ugari izan ziren herri guztietan.

Herrian geratu zirenen andreen egoera oso latza izan zen. Hildako soldaduen alargunek eta frontean senarrak zituztenen andreak irain handiak jasan behar izan zituzten: ilea errotik moztu, errizino olioia edan eragin, danbor hotsari jarraitu plazan bueltaka ibili eragin. Olioak beherakoa sortzen zuen eta soinean egiten zuten kaka.

Errepublikanoen bonbardaketak herrian gertatzen zirenean, emakume abertzale eta ezkerrekoak Udaletxeko plazaren erdira ateratzen zituzten, ume eta guzti, bonbardaketak jasateko. "Eusko Deya" egunkariak abenduaren 22an ikusitako bonbardaketa kontatu zuen Juliana Guridi arrasatearrak: kanpaiek bonbardaketaren berri eman, espetxetik 67 pertsona atera eta plazaren erdian jarri eta kontzejupetik militarrek apuntatzen plazan zeudenei.

Garai hartako ezaugarri nagusia izan zen Giza Eskubideen urraketa, garbiketa politikoarekin eta euskararen galaraztearekin batera.

Gerrak debeku ugari ekarri zuen, horien artean euskarari zegozkionak: euskaraz eskola ematea debekatu zen eta eskolan zein kalean euskaraz hitz egitea. Debeku horiez gain, erlijioaren "garrantzia" bizitza-arlo guztietara zabaldu zen.

Inauteriak debekatu egin zituzten urte askoan. Erregimen berriaren moralaren kontzeptu estu eta ia surrealista debekatu egiten zuen "ohitura onen" kontra zihoan guztia. Euskara eta euskal nazioaren edozein manifestazio erabat baztertuta geratu ziren. 1939tik aurrera areagotu egin ziren debekuak.

34.- GERRAKO ZIGOR EKONOMIKOAK ETA ERANTZUNKIZUNAK

1937an ere antzeko desjabetze eta miaketak izan zituzten ebakuatutakoek utzitako etxeetan. Desjabetze horiek gehienetan jende oso apal eta langilearen etxeetan egiten zituzten, eta haien tresna eta altzarien arpilatze hutsa bilakatu ziren. Itzuli zirenean, eskuineko familien balkoietan beren maindireak zintzilik ikusi eta erreklamatu ezinaren iraina jasan behar izan zuten.

1937an sortutako Ondasunak konfiskatzeko komisioak "108 dekretua" aplikatuz alderdi politikoak legez kanpo uzteaz gain, hainbat pertsonari ondasunak errekeritu eta isunak jarri zituen. Hogeita hamasei herritarri 99 ondasun kendu zizkieten. Horrekin batera Erantzukizun politikoaren legea 1939an atera zuten eta horren arabera 19 prozesatu izan ziren herrian.



Herrian zeuden irakasleen %59 santzionatu egin zuten eta %39 bere lanetik kendu.

35.- LANTEGIETAN GERRAREN ONDORIOAK

Nazionalak Gipuzkoa bizkor hartu zutela –eta, Arrasate eta Bergara militarizatu zituzten eta Union Cerrajeran eta Elman gerrako materiala egiteko izan ziren.

Gerra galdu zutenek edo espetxean urte asko emandakoan, lana eskatzera Union Cerrajera ra joaten zirenean ez zieten ematen eta ELMAra ASAMera, Cucharerara joaten ziren eta normalean hartu egiten zituzten.

Union Cerrajeran gerra bukatu zenean kalkulatzan da 250 langileri, “gorriei”, ez zitzairen lanposturik gorde.

Union Cerrajerari dagokionez, hilabeteetan itxoin eta gero, batzuek lortzen zuten sartzea, baina beti beheragoko postuetan, lanpostu onenak gerra garaileen arteko jendeak hartuta. Asko eta asko ez ziren sartu sekula ere. Elma-ra, berriz, itxoin eta gero, gehienak edo danak sartzen ziren lanera.

Hainbat hamarkadatan gerrako garaileen familiartekoekiko faboritismoa bazegoela latente mantendu zen hainbat fabrikatan.

36.- GERRAREN ONDORIOAK UDALEAN

1937. urteko martxoaren 16an Gipuzkoako eta Bizkaiko gobernadore zibilaren idatzi bat irakurri zuten pleno aretoan. Idatzi haren arabera 40 funtzionarioetatik 17k kargua utzi behar zuten. 1939ko abenduaren 16an Gobernu Batzordeko ordezkariak onartu zuten idatzia. Lanpostu haiek hutsik geratu zirenez, 1940ko apirilaren 22an irabazleen artean horrela banatzea erabaki zuten:

%20 elbarrientzat

%20 borrokalari ohientzat.

%20 behin-behineko edo osagarri gisa arituko ziren ofizialentzat

%10 umezurtz frankistentzat.

%20 udalarentzat.

Horrela, ziurtatu zuten lanpostu guztiak erregimen frankistaren aldekoek betetzea.

Ebazpen hori bertan behera uztea erabaki zuen Udalak 1977ko azaroaren 16an.

37.- KALEEN IZENAK ALDATZEA.

Erregimenak herriko kaleen izenak aldatu zituen; hona hemen 1938ko abenduaren 22an egindako osoko bilkuran Udalak onartu zituen aldaketak:

Errepublikaren garaian	Frankismoaren garaian
Plaza de la Republika	Plaza de España
Calle de Arano	Calle del General Franco
Pablo Iglesias	Ferrerias
Galan y Garcia Hernandez	Zarugalde



Jardines de Viteri	Plaza del Maestro Arano
Plaza del Fronton Antiguu	General Mola
Plaza de San Francisco	Plaza de los mártires del 5 de octubre
Paseo de la Estación	Avenida de Navarra

38.- GERRAK EKARRITAKO ESKASIAK: GOSEA

1936ko gerrak eta haren ondorenak eskasia ugari ekarri zuen herrian.

Bestalde, elikagaien eskasia handia zen. Gosete handia ezagutu zuten herritar gehienek.

Beraz, 1939tik aurrera urte gogorrak etorri ziren, gose eta gabeziakoak.

Gerraosteko urteak errazionamenduaren urteak izan ziren. Errazionamendu liburuxkak urte askotan izan ziren. Errazionamendu kartilak atera zituzten, jateko ziren oinarrizko produktuak banatzeko. Liburuxka haien ardura emakumeena zen eta batzuek burla eta trufak jasan behar izan zituzten.

1936ko gerraren gaiak konplexutasun handia izan dezake. Horregatik, Koadernoan, gerra haren hainbat aurpegi aukeratu eta marrazkiz adieraziko ditugu.

10. eta 11. orrialdeetako marrazkietan ikusi dezakegu gerraren hainbat ondorio: gerraren pasarteak, Murugain eta **Intxortako konbateak** (Behealdean bi orrien artean Intxortako atearen monumentua. Euskal gudariak aurre egin zioten armada faxistari hainbat hilabetetan, eta toki historiko horretan monumentu hori dago, bertan eroritakoen eta erresistenteen omenez. Gune horretan gertatukoaz azaltzeko eta historikoki oroitzeko, ibilbide tematikoa zabaldu zuen Elgetako Udalak 2010. urtean, Intxorta 1937 taldearekin eraginez eta laguntzarekin. Gainerako marrazkietan, ebakuazioak, fusilamenduak, espetxeratzeak, herriko lantegi batean (Union Cerrajeran) gerra ekonomiaren barruan, emakumeek gerrarako jaurtigaiak egiten, eta **Arrasateko Laubide plazako oroitarrria**, 1936ko gerran hildakoen oroimenez egina 2003an.

Gure proposamena da taldea sei talde txikitari banatzea eta talde bakoitzak irudi bat aukeratzeko. Horrela, denen artean irudi guztiak aztertuko lituzkete. Talde bakoitzean bozeramaile bat aukeratu behar dute, lana amaitzean gelako gainerako lagunei taldean jasotakoa adierazteko. Kontu handia izan beharko genuke taldekide guztien parte-hartzea bermatze aldera.

Lehenik, irudia ongi begiratu eta aztertze eskatuko diegu. Nahi izanez gero, eta ikasleei azterketan laguntzeko, hainbat galdera eskainiko diegu: zein elementu agertzen dira irudian?, Zer uste duzu ari dela gertatzen?, Nola dago bertan ageri den jendea?, Zein sentimendu sorrarazten dizu irudiak?

ero, eskatuko diegu irudi horretan adierazi nahi duten ekintza edo gertaera zehazteko. Eta gertaera horren inguruan duten informazioa biltzeko esango diegu.

Azkenik, irudi horrek sorrarazi dien sentipena adierazteko eskatuko diegu; nahi izanez



gero deskribatuz edo hitz batez adieraziz.

Jarduera amaitzeko, landutako irudia azalduko die talde bakoitzeko bozeramaileak gainerako gelakideei.

Azalpenaren ondoren, gelako gainerako kideek irudiaz informazioa ote duten galdetuko dugu. Hala bada, adierazteko eskatuko diegu.

Talde guztiek beren azalpena amaitzen dutenean, ikasle guztiek marrazki osoaren ideia izango dute. Galdetuko diegu ea uste duten horrelakoak gurean gertatu diren.

Orduan, nahi izanez gero, eta jarduera osatzeko, ikasle bakoitzari eskatuko diegu irudi bakoitzak sortzen dion sentimendua idazteko.

Jardueran sakondu nahi izanez gero, azalpenaren ondoren irudiak trukatu ditzakete eta talde bakoitzari liburuetan, Interneten edo etxean galdetuz eskatuko diegu gelan azalduakoa zabaltzen saiatzeko.

Amaitzeko, talde bakoitzari denen artean aztertu dituzten irudiak kontuan izanik, eskatuko di

Gaiaren gainean gehiago sakondu nahi baduzue, ikasleei esan diezaiekegu etxean galdetzeko 1936ko gerrari buruz. Kontuan izan familia askorengan izan zuela eragina eta familia askotan gordetzen direla gerrako oroitzapenak. Nahi baduzue, elkarrizketa horiek grabatzeko eskatu diezaiekezue eta gero gelan entzun.

aiari tiraka jarraituz, kontuan izanik hori izan zela gurean izan zen azkeneko gerra, beste bat ez izateko zer egin beharko genukeen jar dezakegu eztabaidagai.

JARDUERA: *Osatu talde txikiak eta aztertu irudi zati bat. Zer dakizue irudian agertzen den egoerari buruz? Zuetako batek lagunek esandakoa jaso dezake, gero gelako gainerako lagunei azaltzeko.*

Koadernoko 10. eta 11. orrialdeak

39.- KARLISTADAK ETA INDUSTRIALIZAZIOA

Lehen Karlistada galdu eta gero 1841ean, ordura arte Ebro ibaian zeuden aduanak Pirinioetara eta itsasertzeko portuetara eraman zituzten.

Ordutik aurrera ezarritako politika ekonomiko protekzionistak merkatu berriak sortzen eta ekoizpena handitzen lagundu zuen. Horren ondorioz atzeritik ekarritako produktuak muga sariak ordaindu behar zituztenez, garestiagoak ziren. Beraz, erosleak gure inguruko produktuak erosten zituen eta ez kanpokoak, merkeagoak zirelako.

Aduanak lekuz aldatzearekin, hortaz, euskal burgesiak Espainiako merkatua irabazi zuen, merkatu horrek muga zerga handi xamarrek baitzituen, Europa Erdiko merkatu



kapitalistatik babesteko.

Mendizabalen desamortizazioa eman zen Arrasaten 1836-1837an eta, haren ondorioz Elizaren ondasunak, ohi den moduan, lehen dirua zutenen eskuetara joan ziren. Herrian ere jauntxoak bazeuden eta horretaz aprobetxatu ziren beren ondasunak handitzeko. Familia batzuk nekazaritza-baserrietan- beren ondasunak pilatu ondoren, XV. mendearen erdialdetik aurrera industrian garatu nahi izan zuten beren geroa.

Lehen aipatu dugun bezala bigarren karlistadak (1873-1875) ere eragin larriak izan zituen Euskal Herrian, **1876an euskal foruen ezabatzea**, espainiar gorteetako erabakiaz eman zelako.

4o.- MEATEGIEN USTIATZEAREN GAINBEHERA

Burdinaren eta altzairuaren presentziak sekulako garrantzia izan du Arrasateko historian. Historiagile batzuek diotenez, hainbat herritan nekazaritza gizarte batetik industria gizartera igarotze luzea beti eman da, baina Arrasateren kasuan, antzinako meategien ustiatzearen ondorioz, herrian industria, salerosketa eta zerbitzuak izan dira, altzairuaren industria eta bere merkaturatzea Espainian eta European egiten **zuten..** XV. mendean, esate baterako, Anberesko merkatuetan Bañez de Artazubiaga ezaguna zen eta Europako merkatuetan Arrasaten ekoiztutako produktuak oso ezagunak ziren.

Arrasate izan zen Gipuzkoako industriak jasandako aldaketaren isla. Antzinako burdinolak lantegi bihurtu ziren polito-polito eta lantegi horiek fabrika, beste lantegi batzuk bereganatu edo lantegi zaharrak handitzean.

Meategien ustiatearen gainbehera 1750. urtetik aurrera hasi zen eta hauxe zen 1782an herriaren egoera industrial:

Altzairua lantzeko hiru labe, barreno eta lima tailerra, kanoi eta fusilen lau bulego, giltzetarako hiru bulego, fusil kubetarako bulego bat, sarraildegia eta honekin batera perratzaile, arotza eta larrugile langileak.

Burdingintzaz gain, XIX. mendearen bukaera arte ehundegiek iraun zuten herrian. Aurrerapenaren dinamika frantsesen etorrerarekin eta osteko garaiarekin etengo da, frantsesen inbasioak triskantzak eta miseria ekarri zituelako.

XIX. mendeak garrantzi handia izan zuen burdinaren industriaren negozioan. Udalatxeko meatzeak agortzen hasi ziren eta lantegiek birmoldatzera jo behar zuten negozioan jarraitu ahal izateko. Arrasaten sei burdinola zeuden 1826an eta bi bakarrik geratzen ziren 1856an, Zaldibarkoa eta Zigorrolakoa. Zigorrolako burdinolan nekazaritzako lanabesak egiten zituzten (aitzurak, segak..) eta Zalibarkoan etxeko sarrailagintzako produktuak (sarrailak, bisagrak...)

XIX. mendean European siderurgia prozesuak gailendu ziren eta burdinolen kostuak ez ziren konpetitiboak eta krisia agertu zen herriko industria sarean.



Zaldibarko burdinola Monterron kondeari erosi ondoren, sarrailagintza lantegi baten esku gelditu zen 1869an, "Vergarajauregi, Resusta y Cia" izenekoan, hain zuzen ere, eta Zigorrolakoa "La Cerrajera Guipuzkoa"aren mende (lehenago Axpe y Cia) 1901ean.

4.1.- INDUSTRIALIZAZIOAREN LEHEN BELAUNALDIKO LANTEGIAK.

Oñatiko Mateo Urzelay Beristain eta Oñatiko zein Arrasateko sarrailagileek sortu zuten 1856an "Almacenes de Cerrajería" izeneko lantegia, 370.000 errealeko kapitalarekin (555,93 €). Arrasateko sarrailagileen artean Jose Maria Resusta "Maixortxo" zegoen. Merkatuan enpresak "Urzelay, Vergarajauregi y Companiak" rason komertzialarekin zegoen merkatuan. Bere lantegiak Oñatin eta Arrasaten zeuden eta hemen Vergarajauregik eta Jose Maria Resustak kudeaturiko lantegian zeuden. 1863an Urzelayek enpresa utzi zuen eta geroago 1869ko otsailaren 22an sortu zuten "Sociedad Comandataria Simple Vergarajauregui, Resusta y Cía" 1.098.500errealeko kapitalarekin (1.650'53€).

Lantegi berriaren tailerrak Zaldibar auzoan zeuden, baina herrian beste lantegi batzuk ere bazeuden: Txakolinenak zeinek fundidoaren bidez produktuak merkaturatzen zituen. Hogei langile zeuzkan. "Vergarajauregui.." enpresak Txakolin enpresa hartu zuen 1887 urtean eta

1890ean Aretxabaletako "Hijos de Echeverría y Cía". Enpresa hartako jabeak enpresa desmuntatu zuten eta makinaria osoa Zaldibarrera ekarri zuten eta "Vergarajauregi, Resusta y Cia" enpresaren akzionista bihurtu ziren". Enpresa hark 600 langile zeukan 1895ean, horietatik 500 Zaldibarko instalazioetan zeuden. Gipuzkoako lantegi handienetakoa zen. Haren tamainaren ideia egiteko, garai hartan Arrasaten 3.273 pertsona bizi ziren.

Garai hartan Arrasaten sarrailagintzan lan egiten zuen beste lantegi bat zegoen: "Axpe y Cia" eta Zigorrolako burdinola erabiltzen zuen.

Enpresen historian ideologiek beren zatia zeukaten. "Vergarajauregi..." lantegian karlistazaleak ziren, baina teknikari kualifikatuak liberalak. haien status pertsonalarekin deseroso zeudenez, enpresa uztea erabaki zuten eta ibilbide propioa jarraitzeko, aristokrata bati, Villafrancako kondeari Gaytan Ayalakoari, hain zuzen ere, kapitala eskatu zioten eta "Axpe y Cia" enpresaren jabeari, Evaristo Axperi, enpresa berria sortzea proposatu zioten: "La Cerrajería Guipuzcoana". Eta 1901ko irailaren 22tik aurrera izen komertzial hori izan zuen.

Bost urte geroago 100 langile zeukan enpresak eta Arrasaten, elkarbizitzen, arlo bereko bi enpresa handi zegoen, eta kompetentzia hark ez zien ematen abantailarik.



42- UNION CERRAJERAREN SORRERA.

Esaten dute Candido Gaytan de Ayala "La Cerrajería Guipuzkoana"ko lehendakaria izan zela lehena Jose Maria Resusta "Vergarajauregi, Resusta y Cia" enpresaren jabeari lehendabiziko proposamena egiten, Bergarako frontoian, 1905eko bukaeran, bi enpresak elkartzeko. 1906ko urtarrilaren 13an adostu zuten marka bat Union Cerrajera, SA enpresa sortzeko, termino hauetan:

- a) Enpresa biak desagertuko ziren eta Union Cerrajera SA izeneko berri bat sortuko zen.
- b) "Vergarajauregi..." enpresaren sei kide izango ziren enpresa berriko administrazio kontseiluan.
- c) Presidentea Candiko Gaytan de Ayala izango zela eta kudeatzaile nagusia Jose Maria Resusta eta bere ordezkari Toribio Aguirre.
- d) Enpresa berriaren kapitala 6.000.000 pezetakoa izango zen. "Vergarajauregi..."k bere ondarea osoa ematen zuen enpresa berrirako eta trukean kapital berriaren 5.000.000 pezet a(10.000 akzio) jasoko zuen, titulutan eta "La Cerrajería Guipuzkoana" 1.000.000 pezeta.
- e) Pertsonal administratiboak berean jarraituko zuten.

Enpresa horien kontseiluek proposamen horiek onartutakoan, 1906ko ekainaren 22an Union Cerrajera sortu zen, Maro Aginaga Barora Arrasateko notarioaren aurrean.

Akziodunen jatorria %50 Arrasatekoa zen eta gainerakoak, Oñatikoak %10, Aretxabaletakoak %10, Gipuzkoako hainbat herritakoak eta Araba zein Nafarroakoak.

Lehendabiziko akzionisten artean akziorik gehien zituztenak Agustin Mendizabal (1.775-887.500 pezeta) eta Jose Maria Resusta (1598- 799.000 pezeta).

Tailer handienak Zaldibarkoak ziren, 22.000 metro koadroekin, Bergarakoek 10.000 metro koadro eta Zigorrolakoak 2.000 metro karratu.

43.- UNION CERRAJERAREN HAINBAT ZERTZELADA HISTORIKO.

Lehendabiziko urteotan nabarmentzekoa da Toribio Agirreren papera, gerentea 1911tik 1931ra arte, gero 1933ra arte Lehendakaria izan zen eta herrian kargu bat baino gehiago hartu zuen: zinegotzia, epailea, alkatea... bere zuzendaritzapean fabrikak lehendabiziko neurri paternalistak hartu zituen.

Zaldibarko fabrika indarra hartzen ari zen, gainerakoen artean, eta ordurako bigarren Siemens labea abian jarri zen eta hotzeko laminaziotik Zigorrolatik Zaldibarrera ekarria zuten. Bizkaiko siderurgiatik desmarkatzeko Bergaran labe garaiak jartzea erabaki zuen enpresak.

Erabaki estrategikoak hartu zituen Zuzendaritzak: 1914. urtean Oñatiko Olate argindarreko zentrala ireki zuen eta harrez gero, Bergarako labeek elektrizitatea izan zuten. Estatu espainiarreko handienetarikoa bihurtu zen enpresa eta 1912an bere produktuak Hego Amerikako herrialdeetara iritsi ziren batez ere.



Langile kopuruari dagokionez, 1915ean Arrasate eta Bergarako lantegiek 800 langile zeukaten, 1920an 1.600 eta etxeetan lan egiten zutenak. Hasiara batean, produkzio arlo nagusia sarrailagintza zen eta UCEMeko katalogoa 1.200 sarraila desberdin izatera iritsi zen.

*1916ko uztailaren 20an nolabait langileen premiak arintzeko "Cooperativas de Consumos de Union Cerrajera" izenarekin elikagai denda bat zabaldu zuen, enpresako pertsonalarekin kudeatuta. Enpresak lokalak, argindarra, soldatak, mantenua jarri zuen eta kapitalaren %20. Kooperatibaren urteko irabaziak bazkideen artean banatzen ziren, bakoitzak egindako kontsumoaren proportzioan. 1941 arte iraun zuen eta gero ekonomato bihurtu zen.

*1936ko gerra osteko gosetea arintzeko, beharrezko ziren produktuak erosten zituen enpresak, txitxirioak, dilistak, babak, olioak, arroza **saillen** eta txaparen truke. Langileei banaketa Hetrucen bidez. Gara hartan errazionamendu kartilak indarrean zeuden eta lehengo beharrak asetzeko, enpresak inoiz alokatu zituen Arabako lautadaren lur sailak patata ereiteko eta gero bere langileei emateko. Ekonomatoak joan zen mendeko 1980ko hamarkadan itxi ziren.

* 1911n UCK "Reglamentos de Jubilación y Socorro" planteatu ziren langileei, osagarri gisa. Arautegiak enpresaren irabazietatik portzentaje bat markatzen zuen betebeharrak sozialerako: %2. Nabarmenezko da jubilatzen ziren gizonei bizi arteko pentsioa ematen zitzaiela (eguneko pezeta batekoa), emakumeei, osterak, pezeta erdia. Era berean, behargin pobreen seme-alabak mendi aldera edo hondartzara eramateko fondo bat bazegoen.

*1933an Pentsioetako kutxa sortu zen. 1935ean gaixotasunetarako seguru poliza bat kontratu zen eta 1935eko irailaren 2an HETRUC sortu zen, behargin gaixoei laguntzeko, batez ere, tratamendu kirurgikoetan eta hildako langileen senideak babesteko. Gizarte Segurantzak 1944an sortu zenean, Hetrucen helburua aldatu behar izan zuten, bikoiztasunik ez izateko. Asteko hasierako kuota 20 urtetik gorako gizonentzat 1'50 pezetakoa zen eta 20 urtetik beherako emakumeentzat eta gizonezkoentzat 1'25 pezeta.

Entitate hartako bazkideak izateagatik langileek hiru prestazio jasotzen zituzten:

***Gaixo egoteagatik subsidio ekonomikoa**

-**heriotzagatik laguntza ekonomikoa.** Hildakoaren familiak 4.000 pezeta jasotzen zuen langile zenean eta 8.000 pezeta bulegoetako enpleguak.

***Medikuen asistentzia (espezialitatea)** eta gaixotasunagatik kirurgia. Donostiako San Ignazio klinikan jasotzen zuten eta hainbat urtetan bertara joateko enpresak langileen eskura ambulanzia bat jarri zuen.

*** Pobreentzako zerbitzuak: ekonomatoa, jantokia eta kirol instalazioak**

Abiapuntua 1916an sortutako "Cooperativa de Consumo" zen, baina gero 1941ean



Gobernuak onartu zuen enpresetan ekonomatoak sortzea, ekonomato lege baten bidez. Denetatik zeukan ekonomatoak eta modu ekonomikoan saltzen zen. Harategia, arrandegia, oinetakoak eta hasiera batean telak saltzen zituzten, izarak egiteko. Erdiko kalean zabaldu zen lehendabiziko ekonomatoa eta irekiera ordutegia moldatzen zen langileen ordutegira.

-Enpresak jai egunetan eta Gabonetan opariak egiten zizkien langileei enpresaren izen ona mantentze aldera.

- Jantoki zerbitzua jarri zuen, kanpoan bizi ziren langileentzat. Hasiera batean jantokiaren funtzioa zen bazkaria prestatzea eta langileari ematea, bere lapikoan sartzeko, eta geroago sukaldeko pertsonal espezializatuak eguneko menua prestatzen jardun zuen.

*1948an Zalduspen kirol instalazioak inauguratu zituen, bere langileen gozamenerako.

***Futbol zelaia eta igerilekuak** zeuden. "Club Deportivo Union Cerrajera" k sortu zuen eta igerilekuak urte askoan gizonetzkoentzat soilik ziren eta emakumeei baimen eman zieten instalazioak itxi baino lehen.

* **Etxeak**.- Langileentzako etxebizitzak egitea Zerrajerak **musu konstantean egin izan ditu**, etxe txikiak 1924an, 18 etxebizitza 180.000 pezetaren truke. Etxe bakoitza Ingalaterrako etheen erara egindakoa: Atikoa beheko plantan sukaldea jantokia, lehengo pisuan hiru gela, komuna eta ortua. Etxe haien errenta zen 30 PTA hilean, eta "komunisten etxeak" esaten zieten. Gerra ostean 1940 eta 1950eko hamarkadetan etxe asko egin zituen enpresak Zigorrola auzoan. Roneoko antzinako eraikinean 20 etxebizitza 1943an, geroago 16 Gipuzkoa etorbidean. San Lorenzo auzoko etxeak eta pabiloi haren atzean Roneoko etxeak egin zituen enpresak. Garai hartan kontuan izanik erlijioak zer garrantzia zeukan Zigorrolan, ikatz begetala gordetzeko erabiltzen zuen biltegi baten orubean San Isidro kapera inauguratu zuen 1945ean, langileak mezetara joan zitezten. Garai hartan Zerrajeraz gain, Estatuak sortutako Obra Sindical del Hogar elkarteak 197 etxebizitza (Erdialdeko Grupo San Juan) finantzatu zuen Arrasaten, lehengo Solako jauregiaren orubean.

*1940ko hamarkadan ere beste lantegi batzuen finantzaketarekin "**Servicio antituberculoso industrial**" zabaldu zuen, garai hartan lan eta bizi baldintzen eraginez kasu asko zeuden tuberkulosi gaixotasunarekin tratatzeko. 1979 arte zerbitzuak bere jardura eman zuen Calixto Yeregui medikuaren ardurapean.

***Ospakizunak**.- Paternalismo horren barruan jai eta ospakizun asko zituzten enplegatuek. San Lorenzo egunean akzionisten batzarra eta horren ostean bazkaria eta jai ekintzak. Enpresa bakoitzak bere zaindaria zeukan: elektrizistak Santa Barbara, fundidoreak San Eloy, bulegariak San Marcos. Gauza horiek guztiak aintzakotzat harturik, arrasatear askok Union Cerrajerako langilea izan nahi zuten.

* **Aprendizen eskola**.- Eskola haren sorrera Lafitte injineru frantsesak enpresari proposatutako jardura batean oinarritu zen. XX. mendearen hasieran berak doitzailak eta tornulariak hezteko eskola partikularra ematea proposatu zion enpresari, eta berak



mekanika eskola ematen zuen bertan 1911n, eta gero 1923tik 1930era arte, Aprendizaje eskola sortu zuen eskola emateko. Langileek lan ordutegitik kanpo ikasten zuten, eta gero azterketa egitera Bergarara joaten ziren.

Garai hartan Viteri eskoletan zabaldu zuten Arte eta Lanbide eskolak aukera ematen zuen ikasketa teknikoak egiteko, Armengou irakaslearen ardurapean., Lafittek landutako materiei jarraituz. Eskola haiek herriko langile guztientzat zabalik izan ziren eta askorentzat ekarri zuen beren lantegietan zeuzkaten lanpostuak gero hobetzea.

44.- TREN VASCO NAVARROREN GARRANTZIA

1918ko otsailaren 15ean "Vasco navarro tren" izenekoa Arrasatera iritsi zen. Aurreikusita zegoen Lizarra-Gasteiz-Durango trenbidea egitea, baina azkenean Lizarra-Gasteiz-Mekolalde izan zen.

1887an hasi ziren obrak eta 1889ko otsailaren 17an Gasteiz-Gatzagain trenbidea zatia inauguratu zen. Enpresak hondoa jo zuen eta obrek ez zuten aurrera jarraitu.

Linea finantzatzeko tren pasatzen zen herriei finantzazioa eskatu zieten. Arrasatek 160.000 pezeta aportatu zuen eta diru-kopurua ardoaren gaineko zergaren bidez lortu zuen. Udalak obrak gelditu zeudela ikusiz aplikazio hori bertan behera utzi zuen 1890ean.

1906an sortua zen Unión Cerrajera eta lantegiak Arrasaten eta Bergaran zituenez, Unión Cerrajerak interes handia zuen linea bukatu zedin eta 1912an erabaki zuen linearen finantzazioaren zati bat, 10.000 pezeta hamarkada batean finantzatzea proposatu zuen. Obrak aurrera ez zihoazela ikustean, tranbia baten proiektua enkargatu zuen, Bergara eta Zaldibarko lantegiak lotzeko. Enpresarentzat oso garrantzitsua zen bere ekoizkinak esportatzeko eta lehengaiak ere hornitzeko, garrantzitsua zen kostu txikiko garraioa izatea. Eduardo Datoren eraginez, 1914ko irailaren 17an obrak hasi ziren eta horrela 1919ko irailaren 3an Gatzaga eta Mekolalde tren zatia inauguratu zuten. Trenaren geltokia egin bitartean, "geltokia" Unión Cerrajeraren sarreran izan zen.

45- 1936KO GERRA GARAIAN ENPRESAREN MILITARIZAZIOA

*1936ko gerrak Unión Cerrajeraren eta Elma enpresen militarizazioa ekarri zuen. Unión Cerrajerak ia bere ohiko produkzioa utzi zuen. Levefell koronelaren agindupean artilleriako jaurtigaiak, hegazkineko bonbetarako orekatzaileak, trenbideko torlojoak, kamioien gupilak zulatzeko iltzeak eta gerrako hainbat material ekoitzi zuten. Unión Cerrajera eta Elma eguneko 1.000 jaurtigai fabrikatzera iritsi ziren.

Asteko zazpi egunetan lan egiten zuten, hiru errelebotan eta urteren batean igandea jai egun bezala kendu zuten. Plantilari dagokionez, Unión Cerrajerak 1.140 langile izatetik 919 izatera pasatu zen 1936ko irailean eta frankistak Arrasatera etorritakoan, langile asko



frentera joan ziren, atzerrira, edo espetxeratu egin zituzten. Horren ondorioz, plantilla 400 langilez osatuta gelditu zen. Hutsik gelditu ziren lanpostuak gerrarako adinik ez zuten gazteek eta herrian gelditu ziren emakumeek okupatu zituzten.

*Frankoren ejertzitoak industria zibilen mobilizazioa egin zuen, lantegietako postuak betetzeko.

*1939ko apirilaren 1a izan zen 1936ko gerraren bukaera eta hortik aurrera lehen enpresak egiten zituen produkzioak eta langileen kopurua berreskuratzen joan ziren.

46.- UNION CERRAJERAREN INSTALAZIOAK.

Lantegiaren hastapenetan sekzioetan antolatu zuten (fundizioa, laminazioa, sarrailagintza, torlojugintza, tailer mekanikoa...) produkzio osoaren prozesua bere baitan hartzeko asmoz: mineralaren hasierako transformaziotik hasita produktua bukatu arte.

*Bergaran fundizio planta bat zabaldu zuten 1918an eta Arrasaten ere sekulako garrantzia izan zuen.

Hobekuntza nabarmenak egin zizkieten fundizio horri, baina 1951tik 1970era lehiakortasuna galtzen hasi eta 1973an itxi zen fundizioa Arrasaten.

*Makinaria tailerra 1914an instalatu zuen enpresak. Lehen mundu gerraren ostean, Versaillesko bakearen sinadurak europar merkatuak ireki zizkion UCEMi eta Alemaniako, Suitzako eta Txekoslovakiaiko makinak erosi zituen, bigarren mundu gerran, berriz, UCEMek bere makinak fabrikatu beharra izan zuen. Ordurako 1916an sarrailak fabrikatzen ziren Oñatin eta 1924an Yale sarraila hasi zen ekoizten enpresa, gero giltza lauho produktua eta geroago giltzarra.

*1909tik aurrera Torlojugintza izan zen arlo industrial garrantzitsua.

*Gurpilen tailerra 1952tik aurrera martxan jarri zen, hasiera batean altzairuzko gurpilak egiten, turismo kotxeentzat eta gero kamioentzat. Hasiera batean sekulako arrakasta izan zuen, baina gero altzairuzko gurpilak beste gai arinagoez ordeztu eta galerak izan zituen negozioak.

*Butano botilen produkzioarekin antzeko gauza gertatu zen. 1957an Butano SAK 1957an gas likidotuen banaketa hasi zuen eta UCEMek 1958an aukera ona ikusi zuen butano bonbonak ekoizteko. Lehia handia zegoen merkatuan eta esportatzeko ahaleginak egin bazituen ere, azkenean etxe gasaren agerpenarekin arlo hau indarra galtzen joan zen, desagertu arte.

*Toribio Agirreren ekimenez 1926an enpresak Ingalaterrako Roneo enpresarekin akordioa sinatu zuen, bulego altzarien fabrikazioari ekiteko eta arlo horretan aitzindaria izan zen hainbat urtetan. Hasieran enpresaren akzioen %50 Ingalaterrako enpresaren esku zeuden, baina 1932. urtetik aurrera UCEMen eskutan gelditu zen. 1956. urtean suediar enpresa baten lizentziarekin Roneok hozkailuak fabrikatzeari ekin zion eta garai hartan 10.000 ale



egin zuen.

* Asko izan dira enpresak ekoiztutako produktuak, batzuk ibilbide luzearekin, baina beste batzuk arrakasta txikiagoarekin. Haietako batzuk: ikatzeko plantxak, lehendabiziko plantxa Zigorrolako plantan egin zuten (1909-50), Bergman handia (1943-60), Bimetal (1933-39), arotzia metaliko profilak (1933-39), itsa burdindegia (1913-25), nekazaritzako lanabesak (goldeak...), (1914-20) etxeko gailuak (berogailuak, okela xehatzeko makina, diru kutxak) (1914-44), posta kutxak (1925-30).

* Beste batzuk ere landu zituen, baina ez zuten argirik ikusi: iltzeak (1909), esku lehergailuak (1921), hegazkin bonbak (1925), barautsak (1929), lokomotorak (1930), josteko makinak (1931), idazteko makinak (1932-36), autoak (1947), hozkailuak eta plantxa elektrikoak (1947), traktoreak (1947).

JARDUERA 1.- Badakizu Union Cerrajera enpresa funtzionamenduan ote dagoen?

47.- CERRAJERAREN BILAKAERA. ENPRESAREN DESEGITEAREN HASIERA.

Historiagile batzuek 1956. urtean jartzen dute gainbeheraren abiapuntua, Ulgor kooperatibaren sorreran, hain zuen ere. Kudeaketa berri baten oinarria jarri nahian, langileek enpresaren erabakietan eta kapitalean parte hartu nahi zuten, baina enpresaren aldetik ezetza borobila izan zen. Horrek enpresaren deskapitalizazioa ekarri zuen, bi motatakoa:

A) Giza deskapitalizazioa: teknika irrik onenak alde egin zuten kooperatibetara.

B) finantza deskapitalizazioa, enpresaren ahultasunak kapital merkatuetatik atzera egitea ekarri zuen.

1985 eta 1995 bitartean 500 baino lanpostu gehiago galdu ziren enpresan eta 1981ean Arrasaten 860 langile baldin bazeuden ere, 1992an 195.

Hainbat hamarkadatan irabazi handiak izan zituen eta banatu zituen enpresak, baina inbertsioak inoren diruarekin egiten zituzten. 1950-1978 epealdiko 20 urteotan izandako etekinen erdiarekin inbertsio guztiak ordaintzeko dirua zuten.

1975-1981 bitartean Bergarako lantegian laminazio berria egin zen 5.000 milioi pezetarekin atzerako egoera ekonomiko batean eta Arrasaten, inbertsiorik ez egiteagatik poliki-poliki joango dira ixten sekzio ugari (fundizioa, gurpilak, Zigorrolako ekonomatoa..) Zorpetze handian sartu zen enpresa eta 1979an lehendabiziko aldiz galera ekonomiko kontableak izan zituen eta finantzaketa gastuak hasi ziren hazten etengabe.

Enpresak enplegu erregulazioak eta birmoldaketa planak aurkeztu zituen 1980an eta 1982an.



Birmoldaketa plan gehiago aurkeztu zituen enpresak eta 1987an Bergarako Labe Garaiak saltzea proposatu zuen. Bitartean sekzioak jarraitu zuen ixten (laminazioa, makinaria, ekonomatoa) eta bere ondasunak saltzen hasi zen (Olateko argindar etxea, Zigorrolako zerrategia.. operazio haietatik ateratako diruarekin Kursaal Kasinoaren erosketan inbertitzen, Bandoakoa. Enpresaren helburua ez zen ia industrialia, espekulatiboa baizik, fabrikak zeuzkan 130.000 metro koadroekin espekulatzeke.

Arrasate eta Bergarako lantegiak banandu zituzten 1988an eta Bergarako Aristraini saldu zioten. Sindikatuen arloan nolabaiteko banaketa eman zen ondoko urteotan:

Bergaran ELA; UGT eta Bergarako CCOO sindikatuek nolabait egiten ziren desegiteko proposamenak onartzen joan ziren eta horren truke soberan zeunden langileen kalte-ordainak onartzen joan ziren. Bestetik, Arrasaten, LAB, CCOO eta ESK horren aurka zeuden. eta desegitearen aurka zeuden. 1993an, Arrasaten sinadurak batu ziren desegitearen kontra eta mozio bat aurkeztu zuten Plenoan, kudeatzaileei ez lagatzeko espekulatzeko. Haiek planak ezin bete zituztela ikustean alde egin

Langileek sortu zuten Unio nCerrajera Arrasate elkarte mugatu laboral gisa.

2001ean 100 langile zebiltzan lanean, baina 2008. urteko bukaeran Etxegintza krisiaren ondorioz ordainketa etendura aurkeztu zuen enpresak eta 2007an Roneo enpresak betiko itxi zituen atak eta eraikinak Logistika Aldekoak eta Astorek erosi zituen.

48.- LAN BALDINTZAK

Zereginen automatizazioa egin aurretik, senidez edo lagunez osatutako ekipoetan lan egiten zuten. Hamabostaldiaren hasieran enkargatuak ekipo bakoitzari azaltzen zion egin beharrekoa eta epe horren bukaeran egindako lanaren arabera dirua jasotzen zuen. Beraz, destajo erara lan egiten zuten.

Dekretuz debekatu zuten 1873an 10 urtetik beherakoek lan egitea, baina normala zen 10 eta 12 urteko gazteak, gehienak mutilak, lantegietan egotea. Normalean hasten ziren lanean gurasoen taldean lanbidea ikasi artean eta ikuskaritzaren bat izanez gero, ezkutatu egiten ziren. Era berean, piezen muntaketan lana zenean, gehienetan emakumeak arduratzen ziren lan horretaz, haien trebetasunarengatik, soldata handiagoa ateratzeko.

Gazteenen kontaktua lantegiarekin zen gurasoei gosaria ekartzeko eta bota pare bat egun euritsueta ekartzeko. Gero 14 urte betetakoan, apuntatzen ziren lantegian eta deitzen zieten.

Lana lantegietan eta etxeetan egiten zen eta ikustekoa zen, etxeetara eramaten zuten materiala mando batek eta asto batek tiraturiko bi gurditan eramaten zituzten.

Industrializazioaren hasieran, Ingalaterran borrokatu zuten asko 10 orduko lan astea



izateko, baina 1847ko ekainaren 8arte ez zen onartu. Emakumeentzat eta umeentzat soilik zen aplikatzekoa eta horregatik ez zen betetzen.

Union Cerrajera sortu baino lehen, 1900ean, astelehenetik zapatara lan egiten zuten, 10 ordu egunean. Goizeko 6etatik 12etara -8-8'30 gosaltzeko tarte batekin- eta arratsaldeko 13'30etatik 18'30etara 15 minutuko atsedenarekin.

1916an Union Cerrajerak lan ordutegi berria jarri zuen, 10 ordukoa, eta horrek ekarri zuen 4 hileko greba bat.

1919an Romanones-en gobernuak 8 orduko gehienezko jarduna onartu zuen (8-12; 2-6).

1925ean ordu bereziak legeztatu zituzten.

1933an langileak hasi ziren zapatu ingelesa eskatzen, hau da, zapatu goizean bakarrik lan egitea, eta neurri batean lortu zen, baina gero frankismoarekin zapatu arratsaldeetan ere lan egiten hasi ziren.

Soldatak.- Union Cerrajeraren soldaten erreferentziak ditugu eta alde nabarmenak ematen ziren. *Soldatak txikiak izaten ziren, eta lantegi batetik bestera aldeak izaten ziren.*

1909tik 1915era gizonen soldatak ziren egunean 3 eta 4 pezeta artekoak, baina emakumeek irabazten zuten 1'5 pezeta eta gazteek 1'25.

1930ean gizonek 8 pezeta egunean irabazten zuten eta emakumeek 5'5 pezeta eta gazteek 3'5 pezeta.

Union Cerrajerara sartzeko XX. mendearen hasieran kanpaiaren soinuarekin sartzen zen eta gero sirena hotsarekin ordezkatu zen eta zarata herri osoan entzuten zen.

Langileen sarrera kontrolatzeko pertsona bat zegoen "txapero" edo "listero" izenekin ezagututa. Langile bakoitzak lauki batean bere zenbakiarekin zuen eta lanera sartzen zenean jaso egin behar zuen-sartzea- eta utzi – irtetea-.Horrela, listeroak kontrolatzen zituen zeintzuk joanak ziren lanera edo ez.

Lan egiteko baldintzak gogorrak ziren lantegietan. Burdinazko pabiloiak ziren eta bero hormigoizkoak ziren eta negu hotzak eta ez zeuden eginda uda beroak aguantatzeko. Hasiera batean ikatza eta egurrarekin funtzionatzen zuten estufak jarri zituzten, baina ez zuten berotzen bolumen handi horietan.

Union Cerrajerako fundizioa eta pulizoa osasunaren kalterako lekuak ziren, aspiragailurik ez zeukatenez, oxido ferrikoaren hautsa langileen biriketetan gelditzen zelako. Hango langileen batz besteko adina 60 urtekoa zen.

Eskulangintzako eta nekazaritzako lanekin alderatuta, industriako lanak aldaketa handiak ekarri zituen: lantegietako diziplina zorrotza, lan aspergarria eta errepikakorra, ordutegi



gogorrak ... Lantegietan, ordea, argi artifizialaz eta erloju mekanikoaz baliaturik, ordutegi aldaezinak ezarri zituzten. Zeregin mekanizatua zela eta, diziplina eta ekoizpen erritmo zorrotzagoak izan ziren. Eta horrek guztiak zuzenean eragin zuen langileen osasunean.

Halaber, lanera iristeko garraiorik ez zegoenez, eskualdeko jendeak oinez egiten zuten bidea, autobus eta bizikleta zein kotxe gutxi zegoelako.

Geroago, Union Cerrajerak kamioi bat egokitu zuen; "Paloma" izena jarri zioten, Gesalibartik Arrasatera langileak ekartzeko.

Hainbat garaitan izandako lan baldintzak aztertzea proposatu nahi dizuegu hurrengo jardueran, ikasleek bete ditzaten.

JARDUERA 12: *Gaur egun, urtean zenbat ordu egiten dute lan langileek?*

JARDUERA 2: *Emakumeek gizonak baino soldata askoz baxuagoa zuten, erdia baino gutxiago gehienetan, lan antzekoa egin arren. Zer deritzozu horri?*

JARDUERA 3.- *Zuen gurasoen lantegietan, egun, berdin irabazten dute gizonak eta emakumeek?*

JARDUERA 4.- *Zure ustez, zeren arabera daude soldata desberdinak?*

JARDUERA 5.- *Gaur egun, urtean langile asko hiltzen da lan istripuetan, baina zure ustez zelakoak dira langileen bizi baldintzak?*

JARDUERA 6.- *Historikoki, arrasatearroi "zerrajeroak" esan digute. Zergatik uste duzu dela?*

Koadernoko 12 orrialdea

49.- UME LANGILEA

Dekretuz debekatu zuten 1873an 10 urtetik beherakoak lanean aritzea, baina agindua ez zuten betetzen. Geroago, lantegietara sartzeko adina 14 urtetan jarri bazuten ere, normala zen ikustea 1930. urtean 10 eta 12 urteko gazteak, gehienak mutilak, lantegietan izatea, eta helduen ordutegia izaten zuten.

Unitate didaktikoaren testuan oinarriturik saiatuko gara gara hartako ume langileen egoera ezagutzen eta horri buruz eragitea hainbat hausnarketa.

Testua irakurri ondoren, ikasleei galde diezaiekegu ba ote zekiten testuak adierazitakoa eta zer iruditu zaien. Gero, hainbat ariketa proposatu dizkizuegu hausnartzen jarraitzeko.

Zergatik uste duzu lan egin beharko zutela:

- a. *Etxean diru-beharra zutelako.*
- b. *Eskolara joan nahi ez zutelako*
- c. *Gastuetarako dirua edukitzeko.*

Zeri ematen diozu balio handiena?

- a. *Diru asko irabazteari*
- b. *Gustura lan egiteari*
- c. *Lana ahalik eta gutxien egiteari*



JARDUERA 2.- Gaur egun, munduko hainbat tokitan adin horrekin lan egiten dute.. Zer dakizu horri buruz?

Eta zein da zure iritzia?

Norberak ariketak bete ondoren, erantzunak komentatu daitezke. Lana, ahalegina, dirua, kontsumismoa, eskubideak eta gisako balioen gainean aritzeko aproposa izan daiteke.

JARDUERA3: Bildu informazioa horren inguruan eta partekatu taldeka

JARDUERA 4.- Nagusia izatean, zein ogibidetan lan egin gura izango zenuke?

Koadernoko 13. orrialdea

50.- ARRASATEKO EKOIZKINAK

Goian aipatu ditugu Union Cerrajerak yale sarrailak, giltzarrapoak, gurpilak, butano bonbonak. Asko izan dira Union Cerrajeran ekoiztutako produktuak, batzuek ibilbide luzea izan zuten, baina beste batzuek arrakasta txikia. Haietako batzuk: ikatzeko plantxak, lehendabiziko plantxa Zigorrolako plantan egin zen (1909-50), Bergman handia (1943-60), Bimetal (1933-39), arotzia metaliko profilak (1933-39), nekazaritza lanabesak (goldeak...)(1914-20) etxeko gailuak (berogailuak, okela xehatzeko makina, diru kutxak) (1914-44), posta kutxak (1925-30).

* Beste batzuk landu ziren, baina ez zuten argirik ikusi: iltzeak (1909), esku lehergailuak (1921), hegazkin bonbak (1925) barautsak (1929) lokomotorak (1930), josteko makinak (1931) idazteko makinak (1932-36), autoak (1947), hozkailuak eta plantxa elektrikoak (1947), traktoreak (1947).

Ulgor kooperatibak hasieran produktu hauek egin zituen: "Nuevo Sueño", "Superior" eta "Victoria" markakoak. Gero "Vera" sukaldeak ordezkatu zuen "Nuevo Sueño". 1962an Ulgorrek diseinu propioa erabiliz "Graziella" marka ekoiztu zuen.

1963an irten ziren merkatura "Fagor markako lehendabiziko izozkailuak. AEGko markako ikuzgailuak egin eta saldu zituen eta 1967an garai hartako ikuzgailurik aurrenetarikoak ekoizti zituen

Baxera garbigailuak.- 1967an fabrikatu ziren lehenak eta 1974an diseiñu propioarekin hasi zituen fabrikatzen besteak.Sukaldeko altzariak.-1962an merkaturatu zituzten lehenak, baina 1968an fabrikatzeari uko egin zioten.Telebistak "Aspes " markakoa egin zituzten.

Roneok bulegoko altzariak egin ditu mahaiak eta aulkiak, La Industrial Mondragonesa, herrian " La Cuchachera " izenez ezaguna (gero LIMSA) etxeko tresneria egiten zituen, koilarak, sardexkak, Elmak, ehogailuak, eskamadoreak, Asamen zartaginak, kateak. Ikerlanen robotak egin zituzten. Arrasate kooperatibak prentsa hidraulikoak, IFAM dabil hainbat urtetan giltzarrapoak egiten, JMAk giltzak, giltzak egiteko makinak mundu osoan ezaguna egin dute herria. Astore enpresa 1989an sortu zen eta kirol jantzien arloan goi mailako kirolariak jantzi ditu bere produktuekin.



Hemen aipaturiko produktuak dira Arrasateko enpresek ekoiztu dituzten hainbat produktu ezagun, kontaezinak diren egindakoak, txikiak, ertainak, handiak.

Behean planteatzen den jarduera egiteko zure gurasoei galdetu edo zure auzoko ziburuen tokian egoten diren zure lagunen gurasoei galdetu beraiek lan egin duten enpresetan zer egiten duten.

Koadernoko 13. orr

JARDUERA1: *Eskumako Koadroan herrian ekoizten ziren produktuen zerrenda aurkituko duzue.*

Eta zein produktu ekoizten ote dira gaur egun gure lantegietan?

Zuen etxekoek ere beren lanarekin ekoiztuko dute produkturen bat edo haren ekoizpenean lagunduko dute.

Bildu informazioa eta osatu zerrenda.

JARDUERA: *Bi zerrendak osatuta, herriko lantegietan ekoizten direnak eta gelakoen etxekoek ahaleginarekin ekoizten dena ezagutuko dugu. Nahi baduzue, emandako zerrendarekin alderatu dezakezue, zein produktu jarraitzen diren ekoizten konparatuz edo zergatik aldatu ote diren ekoiztutako produktuak hipotesiak eginez.*

51.- LAN GATAZKAK: GREBAK

Industrializazioa hasi eta bi hamarkada igaro ondoren, lantegietako langileak, proletalgoa, populazio talderik handiena bihurtu zen. Haren ondorioz, nekazarien nagusitasuna amaiturik zegoen. Bien bitartean, herriko hazkunde demografiko sendoa zela eta, gune geografiko eta soziala hiritartzeko lehen urratsak eman zituzten.

Industrializazioa hasi zenetik langileen borroka izan da etengabekoa, bere lan baldintzak hobetzeko borrokan, lan egiteko kondizioak hobetzeko, ordutegi hobeak, berea lan indarraren saltzearen truke beraien eskubideak lortzeko borroka etengabekoa izan da historian eta gatazka sozial ugari izan dira herrian. Horren isla grebak izan dira.

1893an "Vergarajauregui, Resusta eta Cia" enpresan lan urritasuna zelata eta soldaten jaitsiera zireal eta, greba egiten zuten bain ez zen konpondu eta langileak laneratu ziren.

1912an Arrasaten bi sindikatu zeuden, "La Asociación Obrera" y "el Sindicato profesional".
a) industrialak.

1915ean "Leuntzaileen greba" deritzana. Soldata jaitsi eta 14 eguneko izan zen.

1916an Union Cerrajeran historian izan den grebarik luzeena (lau hilabete) gertatu zen. Zuzendaritza saiatu zen 10 orduko ordutegi berria jartzen eta greba luzea izan zen. Langileak lanera itzuli ziren, baina 31 langile kanporatu egin zituzten eta haiek saiatu ziren beste enpresa batzuk sortzen.

Greba haren ostean, Solidaridad de obreros vascos, Metalurgiako Langileen Sindikatua UGT



barruan eta Sindikatu Librean sortu zuten.

1921ean herri osoan greba, ogiaren prezioaren igoerarengatik, kontsumitzaileen greba izan zela esan daiteke, baina prezioak ez zituzten aldatu.

1930eko abenduan errepublika aldarrikatzeko, Jakan matxinatu ziren Galan eta Garcia Hernandezen fusilamenduen kontra, greba egin zuten Zerrajeran. Greba hura deitu zutenak UGTko Sindicato Metalúrgicoan zeuden.

1931ko apirilean Errepublika aldarrikatu eta gero, hainbat lanuzte partzial izan ziren Union Cerrajeran, enpresaren ardura Marcelino Orejak hartu berri zuenean.

1933an Tornilleria sekzioan beste bat izan zen.

1934ko urriaren 5ean, UGTk eta sozialistek Greba Orokor Iraultzaileak deklaratu zituzten, Errepublika Soziala aldarrikatu, dirua indargabetu eta matxinada armatua abaian jarri zuten. Lau hildako, eta sekulako errepresioa izan zen grebaren ostean. Herria hainbat hilabetetan okupatu zuten, berrehun pertsonatik gora atxilotuta eta ehun kaleratze baino gehiago izan ziren enpresetan.

Frankisten sarrerarekin Union Cerrajeraren langileriaren erdiak Bizkaira alde egin zuen eta enpresa militarizatu egin zen. Union Cerrajerak errepresaliak hartu zituen eta herrira sartu eta bost egunera 423 pertsonari eman zieten baja. Horietatik 13 soilik sartu ziren lantegira. 89 emakume kalera bota zituzten eta borondatezko baja moduan daude jasota.

Errepublika garaian herriko ezkerreko pertsona asko lanik gabe gelditu zen eta haiek enpresa berriak sortu zituzten herrian.

1947ko maiatzaren gan, eskualde osoan (Bergara, Aretxabaletan, Elgeta, Oñati, Eskoriatzan) greba eta lanuzteak izan ziren. Eibartik iritsitako kontragindu baten ondorioz ez zen gelditu herrian.

1950 eta 1960ko hamarkadetan enpresa askotan grebak izan ziren eta 1954an Sindicato Verticalaren epaimahairako hauteskundeak egin zituzten.

Greba politikoak eta ekonomikoak

a) (1968-1992) Burgosko epaiketaz geroztik, batez ere, Arrasaten eta Euskal Herrian greba politiko ugari izan ziren gaur egun arte iritsi direnak, hain zuzen ere. Errepresio eta askatasunik gabeko garaia zen eta greba asko egin dira .

- 1970-11- 13an eta 28an (Burgosko epaiketa)
- 1974-12-11n Askatasuna eta ekonomoki aurrerapena eskatzeko.
- 1975-6-11 (errepresioaren kontra)
- 1975-8-28 eta 1975 -11-30 (Txiki eta Otaegiren epaiketa eta heriotza).
- 1975-12-11 (Amnistiaren alde)
- 1976-3-4 (Gasteizen hildako langileen alde)
- 1976-9-13 (JM Zabalaren heriotza Hondarribian)
- 1976-9-27 (Amnistiaren alde)



- 1977-3-10 (Mendizabal eta Goikoetxearen heriotza, polizien esku)
- 1977-5-13 (Amnistiaren alde)

b) 1977-1992 . 1977an sindikatuak legeztatu ziren eta tarte horretan greba politikoak izan ziren, tartean aldaketa politikoak izan zirelako eta oinarri ekonomikoa zuten grebaizan ziren (Eraiste industrialak, hitzarmen kolektiboa, Moncloako ituna, legeen erreformak...) tarte horen bukaeran eman ziren greba gogorrenak; 1989ko abenduaren 14an eta 1992ko maiatzaren 27an. Lehena PSOEn politika sozio ekonomikoa salatuz eta bigarrena "el decretazo" izeneko legearen aurka.

c)1992-2012. Greba politikoak, indar gutxiagorekin, eta greba laboral ugari izan dira azkeneko hogeitun urteotan. Halaber Espainia Europan sartu zen eta euroan 2002an, horrek guztiak hainbat arlotan zeharo aldatu ditu orain arte ezagutzen genituen egitura politikoak, industrialak eta finantzakoak.

2007an Estatu Batuetan burbuila inmobiliarioak eztanda egin zuen eta krisi hori hedatu da lehendabiziko mundu industrializatuan, eta nazio ugarietan bukaerarik gabeko finantza eta ekonomia krisian utzi. Estatuetakoa eta etxetako ekonomiak

Krisi honetan neoliberalismoak sekulako indarra hartu du eta murrizketen politikak, **defizitean estatuen zor soberanoak eta Europako komunitatean gertatzen** ari diren erreskate ekonomikoak aldatu du zeharo gure ekonomikoaren oraina eta geroa.

Azkeneko sei urteotan bost greba egin dira Euskal herrian, Espainiako Estatuak eramaten ari den politikaren aurka protestatzeko.

- *2009-5-21ean krisi ekonomikoaren kontra,
- *2010-6-29an lan erreformaren kontra,
- *2011-1-11n pentsio erreformaren kontra,
- *2012-3-29an lan erreformaren kontra eta
- *2012-9-26an ekonomiako murrizketen kontra.
- *2013-5-30ean ekonomiako murrizketen kontra eta politika ekonomikoaren aldaketa aldarrikatzeko.

52.- EMAKUME LANGILEAK

XX. mendearen hasieran Union Cerrajera enpresaren langileen %10-%20 emakumeak ziren eta herriko beste lantegietan ere lan egiten zuten.

Emakumearen laneratzea lantegien hasieran gertatu zen eta Union Cerrajerari dagokionez sekzio batzuetara mugatuta eman zen (muntaketa eta paketatze sekzioan).

Gizonezkoen baino diru gutxiago ordaintzen zizkieten egintza lanengatik. 1909-1915 denbora tartean gizonen soldatak ziren egunean 3-4 pezeta artekoak, emakumeek 1'5 pezeta irabazten zuten eta gazteek 1'25 pezeta. Oro har, gizonezkoek kobratzen zuten soldataren %55-60.



Lantegiko 12 orduko lana egiteaz gain, etxeko lana egiten zuten eta, hortaz, jendarte haren euskarririk sendoena ziren.

Oro har, emakumeek egindako lanak ez ziren aitortzen gizonezkoek egiten zituzten lanen bezainbeste, balizko gutxiagotasunarengatik, makaltze fisikoagatik eta garai hartako rolen banaketarengatik: gizonek produzitu eta emakumeek umeak izan. Horrek guztiak legeria oso paternalista eragin zuen nolabait emakumeen ugaltze funtzioa babestearren.

Emakumeek beti izan dute lana, baina askotan ezkutuko ekonomian ibili direnez gero, ez dira jasotzen. Fabriketako langile, jostun, saltzaile, tabernari, dendari, neskame, irakasle, koltxonerak ... lege bat onartu zuten 1912an, gaueko lana debekatzen zuten emakumeentzat. Amatasun subsidioa onartu zuten 1922an, eta geroago errepublika garaian amatasun aseguruia abian jarri zen.

Gure herriko emakumeek garrantzi handiko lana egiten zuten lantegietan. Egiaztatu ahal izan denez, emakume langileek jasandako makaltze fisikoa gizonezkoek jasandakoa baino handiagoa zen; horrela frogatzen du emakume langileen heriotza tasa handia.

Gainera, handia zen jasaten zuten bazterkeria, Cerrajerako ugazaba batek zioen "gizonen ondoan lan egiten duen emakumeak distraitu egiten ditu gizonak". Horren ondorioz, hainbatetan emakumeei lana ematen zieten, baina etxeetan egiteko.

Etxean egiten ziren lanetan, batez ere, sarrailak muntatzen emakumeen kontura ziren eta familiak parte hartzen bazuen ere, zama gehiena emakumeak zeraman eta gero etxe zein baserriko lanen ardura ere bai.

Frankismoak (1939-1975) emakumearen papera etxeko lanetara eta zaintza lanetara mugatu zuen eta lan mundutik baztertuta gelditu zen. Etxearekin lotzen zituen ama eta emaztea izatearen rolak zuen zama ideologikoarengatik, lan esku femenino gehiena, emakume ezkongabeak eta alargunak ziren.

Ezkondu ostean normalean lanari uzten zioten; normala zen hori. Gizonek etxera soldata ekarri behar zutenaren rola zeukaten eta emakumezkoarena, berriz, behin ezkonduz gero, txarto ikusita zegoen etxetik kanpo lan egitea.

Lanbide ikasketei buruz, 1958. urtean, nesken lehen promozioa hasi zen ikasten Lanbide Eskolan, delineazio espezialitatean.

Garai hartan Estatua sartuta zegoen desarrollismo handian eta langile kopuru handiagoak behar ziren lan egiteko. Hori zela-eta, lan merkatura emakumeak sartzeko lege bat egin zuten 1961ean, non emazte-ama eredu apurtzeke gizonaren menpean jarraitzen zuten. Legeak aitortzen zizkion emakumeari gizonek zeuzkan eskubide (politiko, profesionalak, eta laboralak) berberak. Legea indarrean zegoen, baina oraindik lan egiteko emakumeak



bere senarraren nolabaitkeo baimena behar zuen lan egiteko.

Emakumez osaturiko lehendabiziko kooperatiba bat sortu zuten 1969an Arrasaten eta Estatuan, Auzo-lagun izenekoa.

Umezaintza haurtzaindegia sortu zuten 1970ean eta horrekin emakumea lan mundura sartzen eta normalizatzen hasi zen.

Ulgor kooperatiban lehendabiziko aldiz greba egin zuten 1974. urtean, hainbat kategoria jaitzieraren kontra, eta emakumeen parte hartzea nabarmena izan zen. Emakume gehienak katean lan egiten zutela-eta. Langile ugari kaleratu zuten eta haietatik bi heren emakumeak izan ziren.

Lagun Aroren Asanblada Orokorrak Ezkontzako dotea saria kentzea erabaki zuen 1989an.

JARDUERA .- *Emakumeak nolakoak izan behar ziren jakiteko, gidako testua entzundakoan, zein iritzi duzue emakume eredu horretaz?*

" La mujer debía ser hacendosa, discreta, amante del silencio, moderada de natural cándido y de digna simplicidad, mujer santa y vergonzosa, de cristiano y honesto decoro, cuya virtud principal es procurar la felicidad del otro del os coónyuges en el matrimonio; virtud que le da esa madurez o entendimiento por el que si recibe amarguras, quiere solamente devolver alegrías, si recibe humillaciones, no desea restituir sino dignidad y respeto"

" la prole sea numerosa y no se rompa el equilibrio económico del hogar y llegue a la miseria obligando a la madre buscar en la fábrica o el taller un salario con que cubrir la insuficiencia del conseguido por el padre."(1938ko uztailaren 18ko oinarrizko legea)

Testua irakurri ondoren, egungo emakume langilearen gaineko ikerketa moduko bat egitea proposatu nahi dizuegu. Horretarako, eta gelako hurrek erraz lortu dezaketen informazioa baliatuz, hiru emakume belaunaldiren datuak bilduko ditugu: amandrea, ama eta gure ikasleena, biharko emakume langileena, alegia. Azken horien kasuan, haien nahia izango da, noski. Gainera, zein sektoretan aritzen diren edo zein produkturen ekoizpenean galde diezaiekegu.

Ondoren, taula osatuta dutenean, ondorioak ateratzeko eskatuko diegu.

Nahi izanez gero, aldameneko gelakoekin erkatu ditzakegu datuak edo beste auzo batean dagoen ikastetxeren batekin.



Osatu ezazu taula azterketa egiteko:

	Lana etxetik kanpora		Zein sektoretan?
	BAI	EZ	
Gure amandreek%.....%.....	
Gure amek%.....%.....	
Eta guk?%.....%.....	

ONDORIOA:

53.- KOOPERATIBAK.- OINARRIAK. HASIERAK.

Europar batez ere, XVIII. mendetik aurrera ezagutu ziren esperientzia kooperatibak. Maila teorikoan eta praktikoan Saint Simonen ekarpenak (1760-1825), Fourierrenak. William Kingeneak, batzuentzat Ingalaterrako kooperatibismoaren sortzailea, Buchez, L.Blanc eta ia garaikideak Robert Owen (1771-1858). Owen eta Fourier kooperazioaren "guraso" bezala hartzen dira, printzipio kooperatiboak finkatu zituztelako: Asoziazio printzipioa, atxikimendu boluntarioarena, demokraziaren printzipioa, zerbitzurako jardueraren printzipioa. Owen-ek sortu zituen prezio egokiaren filosofia eta kapitalari interes mugatua eta finkoari ordainketaren kontzeptua. Printzipio haietan, hain zuzen ere, "Rochdale aitzindariaren esperientzia" (1844) sortu zen. Harrezkero, esperientzia horretan oinarriturik, Europar batez ere (Alemania, Frantzia, Ingalaterra Errusia, Jugoslavia, Espainian) eta Munduan (Israelen..) zabalduta zen eta Owen-ek bultzatuta nazioarteko kooperatiba elkarteak (ACI) jaio zen.

Euskal Herrian beti pentsatu izan dugu lehendabiziko kooperatibak Arrasaten izan zirela, baina 1884rako Barakaldon kontsumo kooperatiba bat sortu zuten, Araian 1886rako eta 1904rako Altos Hornos de Vizcaya-n. Baina Eibarren sortu ziren indar handiz. Kontsumo kooperatiba bat 1891n eta "La Eibarresa" kooperatiba industrial 1892an, ehiza eskopetak ekoizteko, 146 bazkideekin. Baina indartsuena 1920an izan zen, Eibarko Toribio Etxebarriak bultzatuta, "Alfa Sociedad Cooperatiba Mercantil de Producción de Armas de Fuego". Armen merkatuaren krisialdia zela medio, josteko makinak ekoizteari ekin zioten.

54.- ARRASATEKO ESPERIENTZIA. JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA.

Arrasatek tradizio industrial handia izan du betitik eta burdinola eta tiraderetatik langile eta jakintza handia eratorri zen. Udalaren aktetan ikusi ahal denez, 1870ean 134 sarrailegin profesionalak zegoen. Kooperatiben hasiera eta garapena ulertu eta kokatzeko, Jose Maria Arizmendiariaren figura lotu behar da, Arrasateko bizitza eraldatu egin zuelako.

Jose Maria Arizmendiarieta Barinaga auzoan (Markina) jaio zen, 1915eko apirilaren 22an. Gaztetatik jaso zituen euskal kulturaren ikasketak. Gerrate zibila iritsi zenean eta adin militarrean zegoenez, prentsa langile ibili zen, Eguna egunkarian, "Arretxinaga" gaitzizenarekin idazten zuen -horregatik deserriratzea eta atxiloteta jasan zituen eta fusilatuta izatetik libratu zen.- Gerra ostean, Gasteizko apaiztegiaren, 1941ko urtarrilean, apaiz ikasketak bukatu zituen. Apaiztegi hartan Manuel Lecuona eta Jose Miguel



Barandiaran izan ziren. Haren asmoa Lobainako unibertsitatera joatea izan bazen ere, 1941eko otsailan Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiara bidali zuen Lauzirika apezpikuak, lagunkide.

Garai hartan Arrasatek 7.000 biztanle izan zituen eta oraindik ere, gerraren ondorioen mende zegoen, garaileen eta galtzaileen arteko giro hartan hankaz gora zegoen gizartea, nagusi ziren herrian gorrotoak eta elkar ikusiezinak.

Gazteekin lana egiteko egotzi zioten bere jarduna eta etorri zenetik gazteriarekin lanean hasi zen hasiera batean "Accion Catolica"tik eta gero hortik bertatik sortu zuen "Juventud Deportiva" elkartetik (kirola, hitzaldiak, ikasketak...).

Herrian Aprendizen eskola martxan zegoen, baina mugatuta zegoen bere sarrera nolabait Zerrajerako langileen semeentzat soilik. Instituzioen eta Enpresa batzuen laguntzarekin, Eskola Profesionala zabaldu zuen, eskualdeko gazte guztientzat zabalik. Bere lehendabiziko kokapena Biteri eskoletan izan zuen eta gero Baezaren biltegian (egun Ospitalearen eraikin zaharrena).

Lehendabiziko ikasleen belaunaldikoek, lanbide ikasketak bukatutakoan, peritu ikasketak egiten jarraitu zuten, lana eta ikasketak batera eramanez eta Zaragozan librez aztertzen zituzten.

Espainiako ministroak lan domina eman zion 1966an. Bihotzeko amago bat izan zuen 1968an eta erabiltzen zuen bizikleta ziklomotore batez ordezkatu zioten kolaboratzaileek. Bihotzetik operatu zuten 1974an, baina 1976ko azaroaren 29an hil zen. Bestalde, gaur egun, Eliza dabil santu izateko kanonizazio bat jarraitzen.

55.- ARRASATEKO KOOPERATIBISMOAREN LEHENBIZIKO ETAPA

Zerrajerako enpresako bi epaimahaikideren bitartez, Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxearen bidez, saiatu ziren lortzen langilearen inplikazioa jabetzarekin, baina ez zuten lortu.

Union Cerrajerako bost langile (Usatorre, Larrañaga, Gorroñogoitia, Ormaetxea eta Ortubai) Arizmendiarrietaren ideien jakitun eta enpresak zeukan "paternalismotik aldenduz" irten ziren 1955ean Union Cerrajeratik eta erabaki zuten euren kabuz jartzea.

Herrian onarpen ona izan zuen erabaki horrek, eta Union Cerrajeraren lantegitik enpresa berria osatzeko irten ziren pertsonentzat erakargarriena zera zen: kapitala aportatzean eta jabetzaren jabeakidea izatea.

Hasierako proiektuak harrera ona izan zuen eta gazteak familia apaletatik zetozela-eta, maileguen bidez eta tartekoen laguntzarekin lortu zuten kapital zatiak aportatzea.

Gasteizen Maximo Beltran de Otaloraren lantegia erosi zuten 1955ean, 400.000 pezetan. Erosketa haren bidez lortu zuten etxerako erabiltzen ziren tresna elektrikoak ekoizteko



baimena. Lantegiak zuen 250 metro koadro, eta jarraitu zuten ekoizten petrolioren bidezko estufak. Modelo horri Tagor deitu zioten marka orokor moduan, baina gero "Maite" jarri zioten. Hasierako sukaldeei elkartu zitzairen petroliozko estufa berria, "Aladdin" izeneko, hain zuzen ere, eta arrakasta komertziala izan zuten. Horri esker aukera izan zuten Arrasateko San Andres auzoko Laxarte lursailak erosteko. Arizmendiarieta eta Ormaetxea Eskola Profesionaletik irten ziren eta pausoka neurtu zuten erosi berri zuten partzela. Berrogeita bost PTA metro koadroa erosi zuten. Hamabost egun geroago, lantegia eraiki zuten: 750 metro koadro zuen hormigoizko pabiloi bat, bi alturatan banatuta.

Irudikatze nolakoa zen fabrika, gogora ekarriko dugu sortzaileetarik batek zioena:

" ez zauen ez bentanarik ez ezer, hormigoizko estruktura bat bakarrik auen gu lanian hasi gintzenian, Bentana barik, ailegau zan nobiembria eta denbora txarrak, eurixa eta edurra sartzen jakun barrura, kartoizko kajekin ibili gintzen...Zubirik ez zauen, ha zubixa ein zan Santo Tomas egunian hasi eta gabon egunian akabau. Bi bider urak eruen zituen hormigoindako ipinten dan egurrek eta horreik (). Geu han ibili gintzen.

(..) Orduan anai moduan, familixia moduan. Bazkaiten gauen bertan eta bazkalostian eguzkitan pelotan danok. Etxeko moduan.

Langile bazkideek 58 ordu astean edo gehiago lan egiten zuten. Hasiera batean, soldata enpresaren baliabide ekonomikoetara mugatu beharra zegoen, baina gero 1-3 eskala jarri zuten, horrela geldituz: kalifikazio txikien bazkidearentzat 50 pezeta egunean eta 1.500 pezeta hilean. Zuzendaritzakoei aplikatu zitzairen 2'5 eta 3.750 pezeta zen eta handik bi urtera 3 indizera pasatu zuten.

Zapatu ingelesa asko errebindikatzen zuten langileek, baina joan zen mendeko 1950eko hamarkadaren enplegatu batzuentzat zen. Lantegi gehienetan langileek 48 ordu lan egiten zuten, batez beste. Ulgorrek bere bazkideentzat 58 ordu jarri zuen.

56.- ARRASATEKO KOOPERATIBEN OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Lehendabiziko kooperatiba industrialia Talleres Arrasate Cooperativa Industirala (TACI), 1957an, sortu zen.ULGOR enpresaren estatutu sozialak onartuta izan zituen **1959ko apirilaren 3an** Espainiako Lan Ministerioak. Hauetako batzuk pertsona bakoitzak boto bana, bazkideak ekarritako kapitalak interes finkoa jasotzea, etekinak izanez gero eta soberakinak bazkideen artean banatzea, egindako ekarpenaren proportzioan. Halaber, kapital ekarpenen mugak kendu zituzten eta kapital komanditarioaren figura jarri zen, hau da, kooperatiban lan egingo ez duten bazkideen ekarpenak zehaztu zituzten.

Edozein modutan, hasieran pertsona bakoitzak ez zuen boto bana, indize gutxien zuenak boto bat zuen eta 3. indizea zuenak 3 boto. Aldatu egin zuten 1966an.

Kooperatibak 30 urte sortu zela egindakoan, 1987an, Lehen kongresu kooperatiboan onartu ziren urte horietan guztietan landutako ideiak eta printzipioak:



- 1.- **Atxikimendu librea.** Printzipio hauek onartzen dituzten gizon eta emakume guztiei zabalik dago.
- 2.- **Antolakuntza demokratikoa.** Enpresa antolaketaren hautaketa demokratikoa izan behar dela aitortzen da, bazkide guztien Asanblada Orokorraren soberania bazkide guztiengan oinarritzen da, "persona bakoitzak boto bana" printzipio aplikatuz. Era berean Gobernu organoen hautaketa modu demokratikoan egin behar da.
- 3.- **Lan Subiranotza.** Ekoiztutako aberastasunaren banaketa egiteko lana osagairik garrantzitsuena da eta lan egiteko aukerak gizarte osoko kideengana zabaltzea proposatzen du.
- 4.- **Kapitalaren tresna eta subordinatu izaera.** Kapitala lanaren menpean dago, baina beharrezkoa da enpresa garapena egiteko. Hortaz, kapitalak izan behar du: bere ordainsari bidezkoa, egokia mugatua eta ez lotuta zuzenean jasotako emaitzekin.
- 5.- **Kudeaketan gestioa.** Kooperatibaren izaera demokratikoan oinarriturik, autogestioan sakontzea eta kide guztien inplikazioa kudeaketan eman behar da (parte hartzea sustatzea, gardentasuna), kontsulta eta negoziatioaren kultura garatzea, bazkide guztiengatik prestakuntza iraunkorra eskaintzea eta enpresako postuak hornitzeko barruko promozioa sustatzea.
- 6.- **Ordainketa elkartasuna.** Bazkideen ordainketa nahikoa eta solidarioa. Esperientziaren hasieran eta hogei urtean 1-3 abanikoaren ordainketa eman zen, baina 1988an Grupo kooperatiboaren lehendabiziko kongresuak ordainketa abanikoa 1-6 izatea onartu zuen. Edozein modutan ere, behin aplikatuta, zergen aplikazioak 0'95-4'08; beraz, gehienezko ordainketa 4'29 izango zen.
- 7.- **Elkarkidetzak (Interkooperazioa).** Kooperatiba guztien artean solidaritza eta esperientziak zein jakintzak partekatzeko prest.
- 8.- **Eraldaketa soziala.** Euskal Herriko Jendarte libreagoa, justuagoa eta solidarioagoa lortzeko :
 - Lorturiko soberakin garbi batzuk kooperatibetan lanpostu berriak sortzeko inbertitzea.
 - Gizarte obren fondoaren bidez, garapen komunitarioaren izaerako lanei babesa ematea.
 - Sistema kooperatiboarekin koherentea izateko Gizarte Segurantzak politika egokia eramatea, solidaritza eta erantzukizunean oinarrituta.
 - Euskal Herriko beste erakunde batzuekin kolaborazioa bultzatzea eta, batez ere, langileek bultzatutako ekimenekin.
 - Euskal kultura eta **euskara berrindartzeko antolatzen diren jardueretan kolaboratzea.**
- 9.- **Izaera** unibertsala. Ekonomia sozialean parte hartzen duten munduko erakunde eta pertsonekin bere elkartasuna aldarrikatzea.
- 10.- **Hezkuntza.** Printzipio hauek sustatzeko oinarritzkoa da baliabide ekonomikoa eta pertsonena inbertitu behar da Hezkuntzan, arlo hauetan (arlo kooperatiboan, arlo profesionalean eta orokorrean gazteengan, haien prestakuntzaren bidez, geroari begira esperientzia kooperatiboa egonkortzeko eta garatzeko.

7.- KOOPERATIBEN BILAKAERA HISTORIKOA

*1956.- Ulgor enpresa sortu zen. San Jose kontsumo kooperatiba sortu zen



- *1957.- Arrasate sociedad kooperatiba sortzen dute eta Ulgorrek dibisio elektronikoa.
- *1958.- Eskola Profesionalean, emakumeentzako kimika espezialitatea estudiatzeko aukera.
- *1959.- Ulgor, Arrasate eta San Jose Kontsumo kooperatibek Caja laboral Popular sortu zuten. Ulgor
- *1960.- "Cooperacion"aldizkaria, geroago "Trabajo y Unión" eta TU Lankide sortu zuten.
- *1961.- Arrasate kooperatibak bere produktuak "Taci" markarekin merkaturatzen ditu.
- *1962.- Copreci, Fagor Ederlan eta lana kooperatibak sortu zituzten. Caja Laboralek Arrasatetik kanpo lehendabiziko bulegoa zabaldu zuen Aretxabaletan.
- *1964.- Kooperatiben artean laguntza moduko elkarteak sortzen da, Grupo Cooperatibo Mondragonen hazia. Eskola Profesionalak 1.000 inguru ikasle du.
- * 1965.- Fagor Elektronikoa SCI sortu zuten. Lehengo Iturrieko lursailetan Eskola Profesional Politeknikoaren instalazioak inauguratzen dira. Okupatu duen azalera 40.000 metro koadraro.
- *1966.- Fagor Elektronikoa eta Tajo enpresa elkartzen dira. Nazioarteko merkatuetara irteten hasten dira kooperatibak. Alecoop kooperatiba, ikasleek lana eta ikasketak partekatuzeko sortzen da.
- * 1967.- Lagun Aro sortu zuten, Caja Laboralaren Gizarte Prebisioren barruan.
- *1968.- Amat enpresa elkartzen da kooperatiba gisa. Uztailaren 15eko BOEk ofizialki aitortzen diote "Eskola Profesional Politeknikoa"ri Centro Estatal de Enseñanza Técnica de Grado Medio" hau da. Injinerutza teknikoaren emateko baimen ofiziala.
- *1969.- Comercio/Eroski sortu zuten, bost kooperatiben fusioaren bidez, horietako bat Arrasateko "San Jose" kooperatiba. Alecoop bere instalazio berriak egiten hasi zen. Emakumez osaturiko lehendabiziko kooperatiba sortu zuten Arrasaten eta estatuan.
- *1970.- "Fagor Garagartza-Elektrotresnak-sortu zuten. "Fagor-Mercier "txirrindulari ekipoa sortu zuen. Lehendabiziko ordenagailuak lan jardueretan.
- *1971.- Caja Laboralek 100.000 aurreztaile zeukan.
- *1972. Libian Arrasate kooperatiba "Llave en Mano" tankerako enpresa zabaldu zuen (17.000 m²). Asteko lan jarduna 45 ordukoa zen.
- *1973.- Petrolioaren krisia dela-eta, krisi ekonomiko sakona mundu garatuan.
- *1974.- Ikerlan kooperatiba sortu zuten. Caja Laboralek zabaldu zituen bere instalazioak Olandixoko maldan.
- *1976.- Azaroaren 29an Jose Maria Arizmendarreta hil zen.
- *1978.- Irizar, autobusak egiten dituen kooperatibak eta Alecoop, material didaktikoa egiten duten ikasleen kooperatiba, Venezuelara 40 kamioi ikasgela gisa ekipatuta saldu zioten hango gobernari
- *1981.- Eroskik zabaldu zuen bere lehen hiperra Gasteizen.
- *1983.- Behi alde kooperatiba sortu zen. Lagun Aroko kotizatzaileen kopurua 18.119 pertsona.
- *1985.- Antolakuntza indartzeko sektore askotako kooperatibek Grupo Cooperatibo Mondragon sortu zuten.
- *1986.- Lan indizeak 1 eta 4'5en artean kokatzen badira, 1 gutxieneko eta 3 gehienekotzat hartzen dira. Espainiak Europarekin atxikitzeko hitzarmena indarrean sartu zen.



- *1987.- Grupo Cooperatibo Mondragonen 1. Kongresuan Esperientzia kooperatiboaren oinarriko printzipioak onartu ziren.
- *1988.- Fagor Elektrotresnak kooperatibak onartu zuen bere baitan "Fabrelec-Edesa 2 enpresa sartzea.
- *1989.-Lagun Aroren Asanblada Orokorrak Ezkontzako dotea saria kentzea erabaki zuen.
- *1990.- Grupo Fagorrek eta Ederlan kooperatibak onartu zuten Hernani eta Tafallako "Victoriano Luzuriaga" enpresa erostea.
- *1991.- CLPko Arlo enpresarialetik LKS kooperatiba sortzen da. Sevillako 1992ko Exporako kontratu handiak lortu zituen Fagor Elektrotresnak kooperatibak. Mondragon Cooperacion Cooperativa (MCC) sortu zuten.
- *1992. Txekoslovakian "Fagor Automation" enpresari urrezko domina eman zioten, berrikuntza teknologikoarengatik.
- 1993. Ikerlanek "Eureka" proiektuan parte hartu zuen.
- 1995.- Fagor Elektrotresnak kooperatibak hozkailuak egiteko planta bat zabaldu zuen Marokoko Mohamedian.
- 1997.- Mondragon Unibertsitatea sortzen da 2.400 ikaslerekin.
- 1998. MUren barruan, Unibertsitate Institutu Kooperatiboa sortzen dute.
- 1999.- Fagor Elektrotresnak kooperatibak inbertsioak egin zituen Poloniako Wrozamel herrian, elektrotresnak egiteko bertan.
- 2001.- Caja Laboralek Gaztelan eta Aragoian hedatzea onartu zuen. Guztira 300 sukurtsal.
- 2003.- Eroskik "Eroski ekarpen finantzieroa" erabiliz Mercaten 70 milioi euro inbertitu zuen. Edertek I+Dko zentroa sortu zuten.
- 2004.- Garai Berrikuntza gunea zabaldu zuten kooperatibek Uribarri auzoan, I+D jarduera lantzeko eta 10 zentro teknologiko jarri zuen abian. Fagor Elektrotresnak Enpresak Frantziako Brandt enpresa erosi zuen.
- 2006. Eraikuntza eta elektrotresnen arlotan salmenta handiak eman ziren.
- 2007; Talde kooperatiboak Shangai poligono industrialak bere enpresak jartzeko inauguratu zituen. Eroskik Caprabo erosi zuen. Mundu garatuan AEBetako eta Europako finantza eta ekonomia krisiaren hasiera.
- 2008.- Nazioartean planta produktibo ugari eta Poligono industrialak instalatu zituen, 73 guztira, bere nazioarteko estrategiaren barruan.
- 2011.- Taldeak jarraitu zuen nazioarteko hedatze prozesua. Irailaren 26an Basque Culinary Center zabaldu zuen Donostian. Caja Laboralak bereganatu zituen Lagun Aro EPVS, Lagun Aro eta Lagun Aro Vida.
- 2012.- Kunshan-Shangai-n Fagor Ederlanek eta Cikautxo kooperatibek lantegi bana zabaldu dute.
- 2013.-Urriaren 16an, Fagor Etxetresnak kooperatibak konkurtso legearen aurrekora aurkeztu zuen eta bere jarduera eten zuen, printzipioz, lau hilabetez, hartzekodunekin negoziazioak egiteko.Enpresa honek Euskal Herrian bost lantegi ditu Basaurin, Arrasaten(San Andresen eta Garagartzan), Bergaran eta Eskoriatzan, 1.800 langileekin.Atzerrian 8 planta ditu, Frantzia (4), Polonian (1), Marokon (1) eta Txinan(2) 3.600 langileekin
- 2014.-Fagor E.kooperatibaren itxierangatik hainbat bazkidek galdutako beraien aurrezkiak



berreskuratzeko asmoz, Ordaindu eta Eskuratu elkarteak sortu zituzten.. Erreklamazioa 47'8 milioi eurokoa da. Cata enpresa katalanak Estatu Españolean Fagor Etxetresnak enpresak zeuzkan aktiboak, 42'5 milioi euroengatik erosi zituen eta enpresak abian jarri zituen.

JARDUERA 1.- Gaur egun, munduan ezagunak dira Arrasateko kooperatibak, baina zuk zeintzuk ezagutzen dituzu?

JARDUERA 2.- Arlo askotan sortu dira enpresa kooperatibak, baina zure ustez zeintzuk dira kooperatibek dituzten alde onak eta alde txarrak, gainerako lantegiekin konparatuz gero?

Koadernoko 15.orrialdea.

58.- IRTEERA DIDAKTIKOA/BIRTUALA: DESAGERTURIKO HAINBAT LANTEGI ERAIKINEN KOKAPENEN BILA.

5. UNITATEAREN IBILBIDE DIDAKTIKOA

Azken urteotan lantegi asko desagertu dira Arrasaten. Ibilbide didaktiko honen bidez gogora ekarriko ditugu lehen zeuden tokitik desagertu diren hainbat enpresa, eta ortofotoaren bidez saiaturako gara ibilbide didaktikoa egiten eta enpresak kokatzen.

1.- "ALTUNA, MENDIZABAL Y CIA" "TIJERAS". "Altuna, Mendizabal y Cia" enpresa artaziak egiteko lantegia zen. Artaziak egiten zituzten beste enpresa batzuentzat forja estanpatua egiten zuen eta propio berak ere artaziak egiten zituen. XX. mendearen lehendabiziko mendearen erdialdean Gipuzkoan (Eibar, Mutriku, Deba, Bergara, Irun) artaziak egiten zituzten enpresak zeuden eta Arrasaten enpresa hau 1944az geroztik behintzat artaziak egiten zituen eta desagertu arte, 1980ko hamarkadaren hasieran, jarduera horretan izan zen. Azken urteotan "Altuna, Garay y Cia " enpresa bihurtu zen.

2.- ABC. Arzamendi, Berecibar y Cía enpresa 1931n sortu zen. Enpresa horretako hainbat bazkide "Ugarte y Cia"tik zetozen, eta, horregatik, sarrailagintzaren merkatua ederki ezagutzen zuten, jarduera horretan aritu ziren. Bere sortzaileen akronikotzat ABC ezaguna zen herrian eta gaur den Arimazubi (Arrasate pasealekua) izan zen, joan zen mendeko 1980ko hamarkadaren hasiera arte.

3.- POLMETASA. Kimika arloan (hauts metalikoak) eta automobilgintzarako produktuen arloan aritzen den enpresa da. San Andres auzoan 2008. artean kokatuta, baina gero Uribarri auzora (Ibarretagain baserriaren aurrean) aldatu zuen lantegia.



4.- MOLDCAM (Ustillajes URIBESALGO, SA).

Uribesalgo enpresariaren eskutik enpresa esanguratsua izan da Arrasten. San Andres auzoan kokatuta Geroago Moldcam enpresa bihurtu zen eta 2009 zein 2010 urteetan, enpresak jarduera bertan behera utzi nahi zuela, langileekin lan gatazka eragin zuen eta prozesu luze baten ondorioz enpresak itxi egin zituen atak.

5.- ESKATU, SA (Estirado y Calibrado de Tubo S.A). 1954an sortu zuten enpresa San Andres auzoan zegoen, Etxaluze baserriaren aldamenean (Super BMren inguruan) zegoen, errekaen beste aldean. Alde horretan Hirigintza birmoldaketak egin ziren eta enpresa joan zen hortik, eta egun Araban jarraitzen du bere jarduerarekin.

6.- UNION CERRAJERA. 1906. Lantegi honi buruz informazio zabala dago aurreko kapituluetan. Lehen herriaren erdian garatzen zuen bere jarduera, baina gaur ez da gelditzenharen instalazioen arrastorik.

7.- RONEO. Union Cerrajera SAK hitzarmen bat sinatu zuen 1926an Ingalaterrako Roneo enpresarekin eta estatuan altzairuzko altzariak egiten zituen lehendabiziko lantegia sortu zuten. Musakola auzoan kokatu zuten lantegia, bi sailetan banatuta: batean altzairuzko altzariak eta bestean inprimategiko gauzak. Geroago, Garibai etorbidearen alde batean eraiki zuten eta joan zen mendeko 1990eko hamarkadaren hasieran bota zuten eta Kataide industrialdera eraman zuten. 2008. urtean enpresak bere atak itxi zituen.

8.- METALURGICA. Desagertu baina lehen Metalurgica Cerrajera izenaz ezaguna bazen ere, sortu zenean, 1917an, Ugarte y Cia izenarekin sortu zen, batez ere Union Cerrajerari lehia egiteko. Enpresa hark sarrailagintza jarduera garatu zuten lantegia sortu zutenek, 1916ko greban Union Cerrajeratik kaleratutakoak zirelako gehien batean. Joan zen mendeko 1930eko hamarkadan hartu zuen Ugarte y Cia izena. Hasieratik bere jarduera egin zuen Nafarroako etorbidean eraiki zuten lantegian. Beheko solairuan galdaketa eta fabrikazioa egiten zuten, goiko solairuan, pintura, muntaketa, eta bilketa. Gaur egun, Debagoieneko Mankomunitatea, Lanbide Hastapena, Udaltzaingoa eta Txatxilipurdi elkarteak dauden eraikinean zegoen lantegia. Joan zen mendeko 1970eko hamarkadaren hasieran Gasteiza eraman zuten lantegia.



9.- ELMA. Union Cerrajeran ibilitako hainbat langilek beren enpresa sortu zuten 1924an. Etxebarriak, Leibarrek, (Velez de)Mendizabalek eta Arkauzek/ Aguirrebeitiak/ Arreguki sortu zuten eta beren abizenen lehengo letrekin izena eman zioten fabrika berriari "ELMA".

Fabrika eraikitzeko garaian arazo ugari izan zuten: batetik, Maalako zubia aldean, eraikitako nabe bat, haize handi batek bota zuelako, eta bestetik Kataide aldean egindako beste eraikin batekin, gauza bera gertatu zelako.

Sute handi bat piztu zen 1927an pintura sailean, eta triskantza handia suertatu zen fabrikan. Urte horretan kapital berria biltzea erabaki zuten akzionistek eta Donostiako dirudun pertsona batengana jo zuten.

Ibilbidearen hasieran burdindegiko artikuluak egiten ziren ELMAN, baina ikusita lehiatzaile ugari zegoela arlo horretan, etxerako tresnak egiten hastea erabaki zuten.

Aukera handia zeukan bere produktu eskaintzan: etxeko produktuei dagokienez, kafe ehogailua, izotza egiteko makinak, haragia txikitzeko, ogi birringailuak, ezkatatzen kentzeko koilarak, kafe errotak... eta beste arlo bati dagokionez, atek ixteko tramankuluak ezagunak ziren merkatuan.

Enpresak ibilbide ona egin zuen hainbat hamarkadatan eta bertan lan egiten zuten hainbat langilek enpresa utzi eta gero, AMAT kooperatiba sortu zuten. Joan zen mendeko 1980ko hamarkadako krisialdia oso gogorra izan zen eta lantegiaren gainbehera hasi zen. Elkarte anonimoa (SA) izatetik elkarte anonimo laboralera (SAL) izatera pasatu zen eta 1990eko hamarkadan, beste enpresa talde batek (Gibert) erosita GELMA bihurtu zen eta galdategia Agurainera eramatea erabaki zuten.

Enpresak errekaren alde batean okupatzen zuen orubea saldu zuen eta 2006. urtean toki horretan etxebizitzak eraikitzen hasi ziren. Egun etxebizitza batzuetan jendea bizi da, baina etxebizitza asko hutsik dago eta 2008. urtean munduan hasi den finantza krisiaren ispilu dira.

10.- "LA INDUSTRIAL MONDRAGONESA" LA CUCHARERA.

Hasiera batean, Musakolako Olatxo pabiloietan (egun Kataide industrialdea duen kokapenean) sortu zuten enpresa, Ramon Barrenaren Yute-lantegi zaharrean. Hasiera hartan, Zarugalde inguruan eta Garibai hiribideko pabiloi batean izan zen enpresa, baina 1930eko hamarkadan herriko enpresarekin bat egin ondoren, Eugenio Resusta



eta haren koinatu Anizeto Arantzabalek fabrika hartu zuten, haiek kudeatzeko, eta 1932an pabilioi bat eraiki zuten Nafarroa etorbidean.

Fabrikak hainbat produktu desberdin egiten zituen, baina gero erabaki zuten produktu familia egitea (mahai tresnak) eta esan daiteke Arrasateko familia askok enpresa honen produktuak zituela etxean. Lantegian emakumeen presentzia handia zen, gizonezkoena baino handiagoa.

Mahai tresnak egiteko prozedura hauxe zen:

Xaflak mozten zituzten.

Forma egokia ematen zieten prentsetan.

Esmeriletan leundu.

Eztainuan, nikelean, edo alpaka bainuetan hainbat geruza ematen zizkieten mahai tresnei.

Enpresaren izena "Limsa" baldin bazen ere, herrian "La Cucharera" esaten zioten fabrikari.

Joan zen mendeko 1980ko hamarkadan, Magefesak enpresa handiak erosi zuen, baina garai hartako krisia zela-eta enpresa desagerrarazi zuen. Greba asko egin zituzten langileek lanpostuak defendatzeko, baina enpresak ateak itxi zituen betiko.

11.- ASAM. Asam enpresa 1928an sortu zuten sortu zen. Produktu gama zabala du haren katalogoak: jostailu askotarikoa, bizarra mozteko bizar aitzurrak, batzeko palak, sutontziak, zartaginak. Urte askotan erreferente izan zen Arrasaten, baina beheruntza joan zen bere jarduera etengabe eta 2006an bere ateak itxi zituen.

12.- IFAM. " Feliciano Aranzabal y Cia" IFAMek tailer txiki batean eman zituen lehen urratsak 1944 aldera.Gaurko egunean katalogo zabal orokorra du, batez ere, segurtasun handiko giltzarrapoak, korrosio kontrakoak, konbinazioko giltzarrapoak, sarrailak, giltzarrapo eroaleak... egiten ditu. Egun, A-20an kokatuta dago baina duela urte batzuk bere kokapena Zuberoa, Lapurdi eta Legargain kaleek okupatzen duten tokia izan zuen.2014an JMA Alejandro Altuna SLeK erosi izuen enpresa.

13.- IRUBIDE. "Fundición Irubide SAL. Musakolan zegoen. Joan zen mendeko 1980ko hamarkadaren erdialdean bere jarduera bertan behera utzi zuen. 2015ean bota zuten bi merkataritza zentroak egiteko.

14.- UNION CERRAJERAREN ZERRATEGIA. Union Cerrajerak Musakola auzoan Zerrategi jarduera garatzen zuen enpresa izan zuen. Joan zen mendeko 1980ko



hamarkadaren bukaera aldean bota zuten, eremu hori hiritartzeko eta komertzio batzuk jartzeko.

JARDUERA: *Liburuxkan lantegi horien argazkiak aurkituko dituzue herriko mapan kokaturik. Hemen aipatu ditugun lantegiak baino gehiago izan ziren, ordea, herrian. Nahi izanez gero, ikasleei eskatuko diegu beste lantegi batzuen berri biltzea eta guk emandako mapa osatzea. Taldeka egin dezakete lan hori eta aurkitutako lantegiaren argazkiren bat eskuratzu gero, mapan itsasi dezakete.*

Koadernoko 16. eta 17. orrialdea.

59.- INDUSTRIALIZAZIOAREN GARAPENEAN AZPIEGITUREN BEHARRA.

XIX. mendearen bukaeran Arrasateko herriguneak bost kale osatzen zuten (Olarate, Ferrerías.

Artekale, Iturriotz eta Zearkosteta) zeharkako kantoiez elkarturik, Gazteluondo, Zarugalde, Maalako errabalak, landa auzoak eta hiru auzotan poblazio txikia..

Herrian hiru auzo gune zeuden: Musakola, Meatzerreka eta San Andres, horietan jende gutxi bizi zen.

Union Cerrajera (1906) Zaldibar auzoan zegoen eta XX. mendearen lehen hamarkadetan lantegiak sortzen joan ziren.

1900tik 1930era ia bikoiztu egin zen populazioa (3.713 biztanle-7.720 biztanle) eta etxebizitzak egin beharra zegoen pertsonentzat. 1924an "Etxe txikiak 2 egin zituen Unión Cerrajerak eta geroago Zigorrolan egingo zituen. Era berean, San Barbara inguruan etxe batzuk egin zituzten.

Modernizazio uhin hartan Union Cerrajerak eta Pedro Viterik sekulako garrantzia izan zuten eta eragile handiak izan dira beraien baliabideak erabili zituztelako herriaren garapenerako eta onurarako. 1900an Arrasatek 3713 biztanle zeukan, 1910ean 4.706, 1920an 5.915 eta 1930ean 7.720 biztanle. Hogeita hamar urteotan bikoiztu egin zen populazioa eta har azpiegiturez gain, etxebizitza gehiago egitea eskatzen zuten.

XIX. mendearen amaieran industrializazio prozesuarekin biztanleen hazkunde handia ematen ari zen eta azpiegiturek beharrezkoak ziren herrian. Ahalegin horretan Union Cerrajerak eta Pedro de Biteri y Aranak sekulako garrantzia izan zuten hasieran. Urte haietan jarritako hainbat azpiegituren bertan:

1886an zezen plaza.1911an eraitsi .	1939 Aprendizes eskola sortu zen
1892an Olarteko atea eraitsi zuten	1946 Anti Tuberculosis zerbitzua zabaldu zen
1894an U Ck elektroindarrezko argia ekarri	1943 Eskola Profesionala sortu zuten.



zuen eta herriko argiak jarri zituzten.	
1894an U, Cko bi lantegien artean instalatu zituzten telefono lineak	1951 Asociacion Mondragonesa del Hogar sortu zen
1896an Meatzerekatik ura etxeetara Hainbat garbitegi publiko jarri ziren	1955.- Hiltegi berriaren proiektua
1898an Gesalibarko Ospital Psikiatrikoa inaguratu zen	1956.- Ur hornidura Urbaltzetik.
1900an Udalak Zaldibar frontoia egin	1958.- Garibaitik errepeidea(Vitoria-Ondarroa) * Herriko argiketaren berrikuntza hasi zen gauzatzen.
1900. Pedro de Viteriren diruarekin azoka egin zen	1959 San Juaneko anbulategia zabaldu .
1902an Biteri eskolak zabaldu ziren 1968an eraitsi zituzten	1963.- Semaforoak jartzeko proiektua.
1902an udal hiltegia	1963.- Iturripeko futbolzelaia zabaldu
1906an estolderia sarea jarri zen	1964. Eskola Pr. Iturripen kokatu zen
1910 musika kioskoa	1971.- Azoka eraitsi zuten. Anbulategi berrirako proiektua hasi zuten egiten eta hamarkada horretan zabaldu zen Anbulategi berria
1911 Gazteluondoko atearen eraistea	1977.- Musakolako kiroldegia
1919 Tren Vasco navarroaren inagurazioa izan zen.	1986.- Urkuluko ura ur sarean.

JARDUERA1 1894an lehendabiziko aldiz telefonoak instalatu ziren herrian, mende bat geroago, (telefonoak) etxeetan, poltsikoetan (smartphone, tableta, Internet) ditugu. Urte batetik bestera aldaketa gehiago eta bizkorragoa.

Zuk, ziur asko, ez duzu izango sakelako telefonorik, baina zure gurasoek zer dute eta nola erabiltzen dituzte gailu horiek?

JARDUERA2: Urte batzuk barru, herentziaz edo loteriarik egokituko balitzaizu eta aberats bihurtuko bazina, diru hori zertan gastatu zenuke? Eta jendarteari laguntzeko? -----

Koadernoko 18. orrialdea.

JARDUERA 3.- 1896. urtean ura etxeetara ekartzeko lanak hasi zituzten eta mendearen hasieran garbitegi publikoak egin zituzten. Garbigailua 1901. urtean Alva Fisherrek asmatu zuen, baina gure etxeetara XX. mendeko 1960ko hamarkadan hasi ziren jartzen. Garbigailua izango ez balitz, nola irudikatuko zenuke gaurko bizimodua? -----



JARDUERA 4.- *Lehen, igogailurik ez zegoenean, jende nagusiak zer-nolako bizimodua eramango zuen etxean?*

JARDUERA 5.- *Lehen baserritarrak astoekin jaisten ziren herrira eta astoak uzteko tokiak zituzten. Gaur egun, azoka erabiltzeaz gain, hileko 3. astean Arrasateko baserritarrek, zapatuetan, azoka egiten dute.*

Zure gurasoek non erosten dituzte elikagaiak, denda txikietan edo azalera handiko dendetan?

Ezagutzen dituzu Arrasaten dauden azalera handiko saltokien izenak?

-Koadernoko 19. orrialdea

6o.-HIRIGINTZA

Hirigintzak lotura handia du industrializazioarekin.

1924an U.Ck "etxe txikiak", San Juan auzoan 1952an eta Musakolan 16 etxebizitzak egin zituen. 1951an sortu zuten Agrupacion Mondragonesa del Hogar.

1934ko urriko matxinadak eta 1936ko gerrak Arrasate gerarazi zuen demografikoki eta ekonomikoki. Gerraren garailen eta galduen jendartea bilakatu zen herria: lanera sartzeko debekuak, emakumeak etxean, gosetea, errazionamendua.. Gerra 1939an bukatua zegoela eta berehala errazionamendu kartilla jarri zen martxan. Ofizialki 1952 arte indarrean izan zen baina praktikan 1959 arte. Hilean familia bakoitzak bazudkan

Ondorioz, biztanle-dentsitatea biderkatu eta herriko jendea pilatzen hasi zen. Herri-gunearen saturazioa zela eta, dentsitate handiak gertatu ziren. Lurzoru eraikigarria maximizatu zen, eta etxeak gero eta gehiago sakabanatu ziren: herriko esparruko baratze eta otalur guztietan eraiki zen; eta barruko etxeetan, lehen familia bakarrak hartzen zuen espazioa orain hainbat familiak okupatzen zuten. Langile familiek gutxitan hartzen zuten etxe oso bat; oro har, beste familia batzuekin erdibanatu behar izaten zuten etxea.

1956ko Hirigintza Plangintza Orokorreko legean oinarritzen dira herrian egindako garai hartan ordenamendu guztiak. 1956tik 1960ra eraki eta eman ziren 407 etxebizitzak eta 300 zeuden entregatzeko.

1960 eta 1970ko hamarkadeetan kanpotik jende asko etorri zen lanera eta haientzat etxeak eraiki behar izan ziren. Denbora gutxian auzo berriak sortu ziren erreken ubidean eta mendien maldetan. Hiritartu gabeko guneak ziren, zerbitzu gutxirekin hornitutakoak eta zerbitzu gehienak herrigunean zeuden.

Zortzi kide baino gehiagoko familiak etxebizitza berean bizitzen ziren eta "apopilo" formula ere erabiltzen zen, alokairuren bidez etxe batean bizitzea



1960-1970 urteen artean 25 egitasmo partzialak onartu ziren zolua zonifikatzeko eta bolumena asignatzeko baina herriko garapen urbanistikoa kontrolagaitza izan zen. Kasu batzuetan hazkunde bertikalekoa auzoak, lehendabiziko etxeorrazak egin ziren. Industriak erdialdean eta auzoetan etxeetatik gertu zeuden. Garai hartako etheen prezioa, batzaz beste 100.000 pezetakoa (601€) zen eta langile baten soldata gordina 20.000 pezetakoa (120€) zen.

Trafikoa ia ia ez zegoen kotxe gutxi zeudelako eta baserritarrak astoekin jaisten ziren herrira eta astoak uzteko tokiak zituzten.

Garai hartan sortu eta handitu ziren hainbat auzo: San Antolin (1957), Musakolako " Elorza etxeak"(1967-1973), Kristobrero (1967), San Teresa(1966-1969), San Andres(1961-1967), Erguin,(1965-1968) Uribarri,(1963-1969) Santa Marina(1965), Makatzena(1980-82).. Kasu batzuetan sustatzaile pribatuek beste batzutan enpresek bultzatzen zuten eta besteetan erregimen politikoaren ministerioak "Obra sindikala"ren bidez.

1969an hauek ziren biztanleko densitatea auzoka: Erdialdea (297 biztanle /hekt), Santa Marina (337), Musakola (450), Uribarri (446), San Andres (675).

Hazkunde honek ur horniduran, osasun atentzioan eta hezkuntzan arazoak sortu zituen herri osoan.

Hurrengo hamarkadetan Arrasaten erritmo motelagoarekin etxeak egin dira(8.653 etxebizitza guztira daude Arrasaten).

1980ko hamarkadaren krisi industrialia izandakoan, herriaren barruan zeuden lantegiak planifikazioaren ondorioz tokiz aldatuz joan dira herriaren kanpoaldean kokatzeko. Industrialdeak: Garagartza, Markulete, Mugarrieta, Kataide, Zaldispe, A-20.

JARDUERA 1.- Hemen dituzu bi argazki: goikoa 1959koa eta behekoa, 1977koa. Bi argazki horein inguruan saiatu zaitez ahalik eta inormaziorik zabalena jasotzen ondoko galderari erantzuteko. Argazkietan agertzen diren lantegietako lursailetan, zer dago gaur egun?

Koadernoko 20. orrialdea



61.-BIZTANLERIAREN BILAKAERA

*1535.urtean ARRASATEKO BIZTANLERIAREN BANAKETA("vecino" bakoitzak hiru pertsona, gutxigorabehera izan litezke:613x3(1839 biztanle)

ESPARRUA	Auzotarrak(vecinos)	%
ERRABALAK	155	25
MUSAKOLA	16	3
BEHEKOA	61	10
ZARUGALDE	52	8
GAZTELUONDO	26	4
KALEAK	340	56
ITURRIOTZ	107	18
ERDIKOA	103	17
FERRERIAS	130	21
ELIZATEAK	118	19
UDALA	24	4
GARAGARTZA	61	10
GESALIBAR	18	3
URIBARRI	15	2
GUZTIRA	613	100

* Biztanleriaren banaketa. Ikuspegi orokorra.

Urtea	Biztanle kopurua	Urtea	Biztanle kopurua	urtea	Biztanle kopurua
1556	1900	1910	4706	1981	26.045
1787	2.601	1920	5.915	1986	26.681
1800	2.200	1930	7.720	1991	25.532
1820	2300	1940	8645	1996	24.571
1844	2114	1950	10.014	2000	23.718
1881	2.989	1960	14.168	2011	22.071
1900	3713	1970	22.421	2012	22.029

*1780 inguruan eman zen altzairugintza industriaren gainbehera. Industrializazioaren hasiera 1881inguruan koka daiteke eta 1960 eta 1970eko hamarkadetan industriaren garapenaren ondorioz handitze handia. Hazkunde hau 1986 arte eman zen.1986tik aurrera biztanleria jaitsiz joan da eta azkeneko urteotan 22.000 biztanletan egonkortu da .

*AUZOEN BILAKAERA 1881 eta 1986 urteen erkaketa

1881.urtea		1986.urtea	
Zentroa	1.502	Zentroa	6.926
San Andres	165	San Andres	4.717



Musakola	197	Musakola	3.219
Zaldibar	149	Makatzena/Santam	3.688
Uribarri	237	Uribarri	6.066
Udala	119	Udala	2.065(912 pertsona psikiatrikoan)
Garagartza	291	Garagartza	
Miatzerreka	169	Mietzerreka	
Gesalibar	160	Gesalibar/Bedoña	
Guztira	2989		26.681

Norberak hausnarketan sakontzeko eta bere errealitatearekin alderaketak egin ditzan, hainbat galdera proposatu ditugu

JARDUERA 1.* 1961.urteko argazkia da. Musakola auzoko lehenbiziko etxeak. Gaurko egoerarekin konparatuta zenbat etxebizitza falta dira?Kiroldegiko eta Mojategiko instalazioak non daude egun?

JARDUERA 2.-*Zenbat etxebizitza ditu bizi zaren eraikinak?

JARDUERA 3.-*Zein zerbitzu daude zure auzoan?

JARDUERA 4.-*Zenbat etxe orratz daude herrian?

JARDUERA 5.-*Industrialdeak herriaren kanpoaldean kokatu dituzte; zure ustez plangintza hori egokia da?

Koadernoko 21. orrialdea

62.-MIGRANTEEN ETORRERA

Euskal Herria herri migrantea izan da baina azkeneko 100 urteotan 3 boladatan etorkinen etorrera izan du eta kulturalki eragin handia izan du herrian.

1.-Trenarekin batera (1919) herrira lan egitera Nafarroatik, Arabatik, Errioxatik eta Burgosetik izan ziren. Askok euskara ikasi zuten eta bere eragina txikia izan zen. Sarri entzun diegu gure herriko eta amandreei etorkin haietaz berbetan " trenarekin etorri ziren bai baina askok euskara ikasi zuten".

2.- Industrializazioa hasi eta mende bat geroago, XX. mendeko 50 eta 60eko hamarkadetan, industrializazioaren garapen izugarriak langile gehiagoren beharra sortu zuen. eta Andaluzia, Extremadura, Gaztelatik, Galiziatik etorri zen jende asko eta biztanle



kopurua handitu zen eta etxebizitzak eraiki behar ziren.1950tik 1986era ia 16.000 biztanle gehiago zuen herriak eta honek jendartean, kulturean, hizkuntzan ..ondorioak izan zituen.

Langile hauen atzetik familiak etortzen ziren.Kulturalki etorkin hauen etorrerak eragin handia izan zuen herrian, urte gutxitan herriak aldaketa handia izan zuen, jendartearen arlo guztietan: kultura, hezkuntza, hezkuntza... Kualifikatu gabeko langile multzo horrek eskulan merkea eta esplotatzeko erraza suposatu zuen, etorkinak iristen zirenean bizi zuten behar eta estutasun egoera ekonomikoa zela-eta. Etorkin horiek gehienak nekazariak ziren, bakarrik aurkitzen ziren, kokatu gabe, etxebizitzarik gabe eta abar. Langileekin edo haien atzetik beren familiak etorri ziren. 31 urteetan herria pasatu zen 10.014 biztanle izatetik (1950) 26.045 izatera (1981)

3.-2000-2007.Estatu Espanoletik kanpotik etorkin asko etorri dira, Hegoamerikatik, Pakistandik, Errumaniatik.. egoera ekonomiko ona zegoenean. Egun, etorkin hauen porzentaia guztiaren %4´8otan egonkortu da.

JARDUERA: Gaiari sarrera emateko azalpen testu bat (23.orriaren lehendabiziko pasarte) duzue koadernoan. Testua irakurri eta zalantzak argitu ondoren, immigrazioaren eta etorkinen gaiari buruz dituzten ezagutzak eta ideiak bil ditzakegu.

Nahi izanez gero, etorkinei buruz komunikabideetan agertzen dena bildu eta eskolara ekartzeko eska diezaiekegu. Azterketa bat egin dezakegu ea etorkinak zein motatako albisteekin lotzen dituzten eta abar.

Koadernoko 23. orrialdea.

63.-ETA ZEIN DA GURE HERRIKO ETORKINEN JATORRIA?

Unitate didaktikoan, 2008-2-1eko dataekin Arrasaten zeuden Espainako Estatutik kanpoko atzerritarrak zenbat ziren agertzen da baina bilakaera ikusteko 2011-4-13ko erlazio jarri dugu. Bertan agertzen dira Espainiako Estatutik kanpoko etorkinen jatorrizko herrialdeak zeintzuk diren eta bakoitzetik herrian erroldatuta bizi den lagunen kopurua.

2011-4-13. Arrsatan 22.017 biztanle ziren. 11117 emakume eta 10900 gizon

Kolonbia	185
Portugal	158
Bolivia	86
Ekvador	46
Maroko	87
Dom. Errep.	42
Pakistan	93
Txina	31
Errumania	46
Brasil	27
Kuba	16



Peru	15
Venezuela	16
Britainia H.	11
Italia	12
Grecia	1
Argentina	12
Frantzia	7
Alemania	8
Txile	8
Polonia	8
Aljeria	11
Irlanda	3
Paraguai	7
Islandia	1
Urugai	3
Bulgaria	11
Herbehereak	3
AEB	10
Mexiko	13
Turkia	3
San Marino	1
Australia	1
Georgia	1
Belgika	1
Eslovenia	1
India	41
Japonia	1
Liberia	1
Mauritania	3
Txekiar err.	1
Eslobakiar, er	7
Bosnia	1
Kongo	2
Etiopia	1
Ghana	2
Guinea	1
Mozanbike	1
Nigeria	1
Senegal	1
El Salvador	2
Guatemala	2
Honduras	26
Nikaragua	13

1056



Urtea	Etorkinak	Biztalaria	%
2002	199	23.061	
2004	356	22.597	
2006	471	22.112	
2007	585	21.965	
2008	721	22.061	
2011	1056	22.071	

Urtez urte, berriz, hauxe izan da Espainiako estatutik kanpoko etorkin kopuruaren bilakaera (erroldatutakoen datuak dira):

JARDUERA₁: *Gure herrian bizi diren etorkinei buruzko datuak eta zein dituzten jatorriko lekuak ezagutu ondoren, datu horiekin hainbat ariketa egitea proposatu nahiko genizueke.*

Urtez urte herrian bizi ziren atzerritarren koadroa duzue hor. Ehunekoen zutabea bete gabe dago. Ikasleei eskatuko diegu atzerritarren kopurua ehunekotan emateko. Osatu atzerritarrak zenbat diren ehunekotan.

JARDUERA₂: *Aurreko taulan emandako datuak grafikoan islatzeko eskatuko diegu ariketa horretan.*

Osatu grafikoa goiko datuekin ea nolako marra ateratzen den.

JARDUERA₃: *Datuetan ikusi dugu zenbat diren eta nongoak diren herrian bizi diren etorkinak.*

Jarraian, antzeko ikerketa egiteko proposatu nahi diegu. Oraingo honetan, ordea, aztertzeko unibertsoa haien familia izango da: hiru belaunaldi, hain zuzen.

Zutabeak osatzeko adierazleak, aztertu behar dituzten aldeak, alegia, ikasleek beraiek aukera ditzakete.

Ondoren, nahi baduzue, aldameneko gelako datuekin edo beste ikastetxeren bateko datuekin aldera ditzakezue.

Herritarren jatorriari buruz egin duten datu bilketaren antzekoa egin dezakezue zuek ere. Hiru belaunaldi azter dezakezue. Zutabeak hutsik dituzu nahi dituzun adierazleak jartzeko.

JARDUERA₄: *Ikaslekideak non jaiotakoak diren jasotzeko eskatuko diegu ikasleei.*

Era berean, datu bilketa egiterakoan, eska diezaiekegu galdetzeko zein den elkarrizketatuaren jaioterria, herrian jaio ez den kasuan.

Non jaio zarete zuek?

Koadernoko 22. orrialdea



64.-ANIZTASUNA.BESTE KULTURA BATZUK

Etorkinek beren kultura ekarri zuten eta beren ohiturak dituzte. Lagun asko, beren sorterriko beste hainbat lagunekin elkartu eta bereari eusteko elkarteak sortu dituzte.

Urtean zehar hainbat ekitaldi egiten dituzte. Baliteke zuen ikasleren baten etxeakoak elkarte horietako baten kide izatea.

Elkarte horietako norbait gonbidatu dezakegu gelara zer lan eta zergatik egiten duten konta diezagun.

JARDUERA1: *Beste herri batzuetatik etorri diren pertsonak informatu, hezi eta lagundu behar ditugula jabetuta, Ekin Emakumeen euskara elkarteak abian jarri zuen harrera proiektu bat haiei laguntzeko. Horren barruan, Kulturartekotasun jaialdia antolatzen du urtero, pertsona horien nazioen kultura, musika, gastronomia ezagutarazteko. Aberatsa da beste herritar batzuen ohiturak ezagutzea.*

JARDUERA2: *Ezagutzen duzu pertsonak biltzen dituen elkarerik? Eta nongo lagunak biltzen dituzte?*

JARDUERA 3.- *Imajinatu ezazu beste herrialde batera joan behar duzula bizitzera. Zelan nahi izango zenuke harrera egitea herri horretan?*

JARDUERA 4.- *Zer eramango zenuke emairatzen baduzu? Zer uste duzu sentituko zenuela bizitzen hasten bazara beste herrialde berri batean? Zeren falta sentituko zenuke? Zeren hutsunea igarriko zenuke?*

JARDUERA5: *Akaso, topatuko zenuke norbait herri berria erakutsi eta hangotarrak nolakoak diren eta zer egiten duten adieraziko lizukeena. Eta zuk, zer erakutsiko zenioke etorri berri bati? Zein leku erakutsiko zenizkioke?*

JARDUERA6: *Herriari buruz etorri berriak jakin beharko lukeena idazteko eskatuko diegu. Alboan, erakutsi nahiko lioketen argazkia itsasteko eskatuko diegu. Horrelakoa da gure herria eta horrelakoak herritarrak.*

JARDUERA7: *Ikasleak binaka edo hiruak jar ditzakegu eta etorri berri bati herriko gauzarik adierazgarrienak erakusteko ibilbide bat antolatzeko eskatuko diegu. Ibilbide horretan zehar zein gauza erakutsiko dizkieten adierazteaz gain, bakoitzari buruz zein azalpen emango lioketen idazteko eskatuko diegu. Nahi adina sakon dezakezue jarduera horretan. Adibidez, ibilbidea argazkiz edo marrazkiz lagundurik prestatzeko eska diezaikegu. Bestalde, gure ohiturei, jaiei eta abarri buruz ere azalpenak prestatzeko eska*



diezaiekegu. Era berean, euskarazko oinarrizko hiztegi bat ere prestatu dezakete.

Koadernoko 23. orrialdea

65.- BITERI ESKOLAK.

XIX. mendearan bukaeran Arrasateko biztanleriaren erdia baino gehiago analfabetoa zen eta eskolatzea, neurri handi batean, Elizaren esku zegoen. Giro horretan Pedro Marino de Viteri Arana arrasatearrak (1833-1908) ekarpen handia egin zien herriaren garapenari, oro har, eta hezkuntza arloan, bereziki, Gipuzkoari eta Arrasateri.

Pedro de Viteri Arana 1833an jaio zen Arrasaten. Aita Legutiokoa zen eta ama Arrasatekoa, eta gerra karlistaren ondorioz, bere familiarekin Baionan erbesteratu behar izan zuen. Aitak Ameriketara atera zuen bere fortuna eta Pedro, burgesiako kide izan zenez, gaztaroa ikasten eta Europatik eta Amerikatik bidaiatzen ibili zen. Miarritzen, Parisen eta Londresen bizi izan zen urte luzez. Celina Wood ingelesarekin ezkondu zen 1874an eta ez zuten seme-alabarik izan. Miarritzen hil zen.

Arrasatera itzuli zen 1893an eta batzuek diotenez herria "ilun, pobretu eta atzeratua" ikustean negar egin zuen. Erabakia zuen bere amaren herrian haren omenezko zerbait egitea eta horretarako bere dirua erabiltzea. Arrasateko alkatearekin hitz egin zuen, eta hark proposatu zion eskolak egitea eta marrazki eskola bat eraikitzea.

Familiaren ondarea heredatu zuen eta diru-kopuru horrekin bere lan filantropoa egiten hasi zen.

Garai hartan, indarrean zegoen hezkuntza legea, baina ez zegoen dirurik eskolak egiteko. Arrasateko etxebizitzek ez zutela ur korronterik eta estoldarik ere ez zegoela. Etxeetako ur fekalak esterako errekarara botatzen ziren.

Krisi garaia zen eta herria ere modernizatzea bere helburu ere bihurtu zen.

Eskolak egiteko garai hartako arkitekto onenetarikoa kontratatu zuen: Luis Aladren. Eskola argitsua, ondo hornituta (pupitreekin, komunekin, lorategiekin, frontoiarekin eta goiko pisuan, argi zenitala izateko Marrazki eskola martxan jarri zen.

Arrasateko eskolak 1902an zabaldu ziren eta geroago, Gipuzkoan eskola ugari sortu zuen (Donostiako Gros auzoan, Hernanin, Irunen, Pasa Antxon, Pasai Donibanen, Erreterian, Urnietan, Hondarribian eta Aretxabaletan). Luis Aladren eta Juan Jose Aguinaga arkitektoak izan ziren eskola haiek egin zituztenak eta Arano irakasleak zioen eskola horiek egiten Viterik 800.000 pezeta inbertitu zuela.

Eskolak eraikitzeko kostua bere gain hartzeaz gain, Fundazio bat sustatu zuen garai hartako 200.000 pezeta (1.202'02€) maisu-maiestrei ordaintzeko, 2.000 pezeta urtero, eta eskolen sostengua bermatzeko. Diru hori gaurko kopuruera traslazioa eginez gero, 4.800.000 €ko



diru-kopurua izango zen. 1944an oraindik ere Fundazioak diru asko zeukan, baina inork ez daki zer gertatu zen kapital horrekin.

Eskola laikoa, mistoa, doakoa zen eta gaztelaniaz ematen zen eskola. Biteri eskolak ahalegin berezia egin zuen nesken heziketa bultzatzeko. Garai hartan, neskak normalean etxean geratu edo neskame joaten ziren. Eskolen araudiaren arabera, ezarri baino haur gehiago matrikulatzen baziren, errentarik baxuena zutenek izaten zuten lehentasuna. Irakasleek ongi irabazten zuten.

Gipuzkoako biztanleen erdia eskolatugabea zenean eta hezkuntza aberatsen pribilegioa zenean, herri xehearentzako behar bezalako eskolak jartzea sekulako aurrerapena izan zen Herriarentzat eta Gipuzkoarentzat.

Hala ere, fundazioko aginte organoetan kleroko ordezkariak ez zegoenez, kleroak ez zituen ongi hartu eskola haiek, baina erlijioaren presentzia bazegoen:

Gurutzea geletan jartzea, Joakin Arin parrokoarekin adostu zuten eta dotrina ikasten zuten eskolan eta gainera igandero joaten ziren mezara irakasleekin batera. Frankismoak eskolak 1936an itxi zituen.

Arizmendiarrietak eskolak erabili zituen 1943an Eskola Profesionalaren lehendabiziko egoitza izateko. 1957ko urrian Viteri Fundazioko eskuineko alboko eraikina bota zuten eta 1968ko martxoaren 25ean dorrea eta eskolen eraikina.

Hezkuntza arloan sekulako ekarpena egiteaz gain, herriaren modernizaziorako egindakoa ez zen txikiagoa:

- Garibai etxea moldatu eta herriarentzat eman zuten epaitegi, liburutegi eta artxibategi gisa erabiltzeko.

- Bere diruarekin Parisko modako burdinazko eta kristalezko azoka estalia eraiki zuten.

- Lorategiak egiteko dirua eman zuten.

- Musika kioskoa egin zuten. Hasiera batean eskolen ondoan izan zen, baina 1911. urtean herriko

Parrokia berri bat eraikitzeko proiektua aztertu zuten, baina itxura denez, eskola organoetan kleroaren partaidetza aintzat hartzen ez zuelako, proiektu horrekiko parrokoaren jarrera negatiboa izan zen.

Arrasateko Udalak seme kuttuna izendatu zuten eta bere koadroa pleno aretoan dago.

JARDUERA 1.- Badakizu non dagoen Biteri eskainitako estatua Arrasaten?

Jarduera planteatzeko galdetuko diegu ikasleei ea dakiten estatua non dagoen eta ez badakite behean dagoen testua irakurri.

Biterik emandako diruarekin egin ziren eskolen herri guztietan kale izen bat dauka Biterik, Aretxabaletan izan ezik, baina bizirik zegoenean estatua bat egin zioten.



Arrasatek, Gipuzkoa osoko diru ekarpenekin, Viteriren omenez estatua bat egin zion 1911n eta estatua eskolen lorategietan jarri zuten. Piqué, Molina eta Riu artistek eginiko estatua da. Harriz harri desmuntatuta izan zen eta 1974 urtera arte gordeta izan zen udal biltegia eta urte horretan Arrasateko Alfonso X Jakintsua plazan jarri zuten. Sarritan eskatu badute ere estatua tokiz aldatzeko, egun plaza horretan jarraitzen du.

Eskoletako lorategiak non zeuden kokatzeko, 3. orrialdean dagoen planoaren laguntza izango dugu eta ikasleei galdetuko diegu ea egun, estatua zegoen tokian zer dagoen gaur (Biteri plaza-Pergola-).

Pista horiek emandakoan, saiatuko gara kokatzen gaur egungo estatuaren kokapena, Grupo San Juanaren Alfonso X. el Sabioaren plaza.

Koadernoko 24. orria

66.- TERESA GARCIA ETA FELIS ARANO IRAKASLEAK

Biteri eskolen lehendabiziko irakasleak Felix Arano eta Teresa Garcia izan ziren. 243 hautagai aurkeztu ziren oposizioetara, baina beraiek hautatu zituzten. Hirugarren irakaslea marrazki linealaren irakasle izan zen, Antonio Armengou.

Felix Arano Saez de Adana, 1856ko azaroaren 20an Agurainen jaio zen eta 1929an Arrasaten hil zen. Arrasatera etorri baino lehen, Altsasun egon zen maisu.

Felix Arano izan zen mutilen irakaslea eta Teresa Garcia neskena. Ikasgelak 80 mutilekin eta 50 neskarekin beheko solairuan zeuden eta goiko plantan marrazketa linealaren irakaslea, Antonio Armengou zegoen. Arano eta Garciaren lan pedagogikoa esker ga izan zen eta belaunaldi askotan oraindik ere bere oinatza utzi dute. Felix Arano eta Teresa Garcia senar-emazteak ziren.

Hezkuntza laikoa, mistoa, berritzailea ematen zuten. Ordura arte Eliza zen, bai Gipuzkoan, bai Arrasaten hezkuntza kontrolatzen zuen bakarra, baina Biteri Fundazioaren patronatuan ordezkaturik ez zegoenez, horrek sortu zuen kleroan nolabaiteko mesfidantza eta Arrasateko hainbat sektoretan ezinegona eragin zuen. Nolanahi ere, eskola haietan doktrina, ebanjelioak eta beste irakaspen erlijiosoak ikasten zituzten eta igandero ikasleak mezara joaten ziren, irakasleekin batera.

Felix Aranok aparteko garrantzia ematen zion kalkulu mentalari. Gaur egungo eskoletan biderketa taula 10 arte ikasten da, baina Aranok 40ra arte irakasten zien umeei.

Horri esker, mutilek eskola utzi eta Zerrajerara 14 urterekin lan egitera joaten zirenean, trebetasun handia zeukaten beren eginbeharrak egiteko. Aranok esaten zuen, kalkulu mentala lagungarria zela beste asignatura batzuk ere ikasteko.



Mutilak kalkulu mentalean trebatu zituen eta Aranok hainbat erakustaldira eraman zituen bere ikasle azkarrenak: Donostia, Iruñea, Eibar, Burgos, Val de Aranera...

Publikoa harrituta gelditzen zen umeen gaitasuna ikusten. 1924ko azaroaren 20an, bere urtebetetzearen egunean, ikasle batzuekin Burgos probintziako Briviesca herrira joan ziren eta hango antzokian, hiru bider, 350 maisu-maistren eta bertako autoritateen aurrean "erakustaldia" egin zuten. Ordubeteko saioa egin eta gero, bertan Lehen Hezkuntzako arduradun batek izendatu zuen maisuen maisu eta horrek negar eragin zion Aranori.

Saio hartan parte hartu zuen ikasle bat, oraindik ere bizirik dago David Arzamendi (Arrasate, 1914), eta horren oroitzapena jaso da hainbat hedabidetan azken urteotan. Ezaguna izan da herrian "Aranoren ikasleak" esamoldea eta horrek adierazten zuen sekulako errespetua irakaslearekiko eta ikasleekiko.

Halaber, ezagunak izan ziren Donostiako Ateneo Gipuzkoarrera ikasleekin egindako bisitak eta "erakustaldiak", bere arrakastagatik eta itzuleran, herriak sekulako harrera egiten zielako (musika banda, jende nagusia, gaztea, emakumeak gizonak, udaleko zinegotziak...). Trenz Maltzagara (Eibar) etortzen ziren eta handik diligentziaz Arrasateraino.

Eskolan elkarbizitzarako grina eragiten zuen eta jende nagusiarekiko eta elbarriekiko errespetua sustatzen zuen eta baita zuhaitzei eta txoriei ere. Beti martxoaren hasieran enaren etorrera ospatzen zuten. Alkoholarekiko abstentzioa sustatu zuen, liga bat osatu zuen eta ikasle gehienak partaideak ziren. Kuriositatez bada ere, oraindik ere pilota munduan gelditzen da Aranok egindako ekarpena, partidua suspenditzen denean apustuak kobratzeko berak asmatutako banaketa proportzionala oraindik ere aplikatzen baita.

Espainiako Alfontso XII.aren Ordenaren Zaldun izendatu zuten 1925ean. Arrasateko Udalak "seme kuttuna" izendatu zuen 1925ko ekainaren 19an eta gaurko Erdiko kaleari "Calle del Sr. Arano" deitzea erabaki zuen. Arrasaten hil zen 1929an eta sekulako dolu manifestazioa eman zen herrian. Hombrados Oñativia pintoreak Aranori eginiko koadroa eskegita dago Udaletxeko pleno aretoan. 1936ko gerraren ostean, frankismoak "Calle del Sr. Arano" kendu zuen eta "Calle General Franco" bataiatu zuen.

Teresa Garcia nesken irakaslea izan zen Biteri eskoletan eta lan pedagogiko eskerga egin zuen, baina haren lanak ez zuten izan Aranok izan zuen errekonozimendurik.

Garai hartan emakumeek ez zuten bozkatzeko eskubiderik, ez eta kargu publikoetan egoteko ere. Gizartean haien rola amarena, pertsonak zaintzearena, gizonen mendekoarena zen eta emakume irakasle gutxi zegoen.

Eskolek izan zuten "arrakasta" hiru irakasle haiei esker izan bazen ere, Aranori, modu askotan errekonozituta, Armengou, marrazki linealaren bidez lantegi mundurako eginiko aportazioa, Teresa Garcariaren ekarpena bere garaian "ahaztuxea" gelditu zen.



Frankoren tropak Arrasatera etorri zirenean, Bilbora alde egin zuen Teresak eta gero Baionara. Geoago Bilbora itzuli zen. Nabarmentzekoa da frankismoak utzi ziola soilik klase partikularrak ematen.

JARDUERA 2.- Badakizu Arano pasealekua non dagoen?

Aurreko jardueran, Eskoletako lorategiak non zeuden kokatzeko 3. orrialdean dagoen planoaren laguntza izan dugu eta jarduera hau egiteko hori erreferentzia izan daiteke. Dakizuenez, Erdiko kaleari Calle Sr. Arano jarri zioten, baina kendu egin zuten. Bada, ikusirik eskolak non zeuden, ea asmatzen duten ikasleek non dagoen kalea?

Koadernoko 24.orrialdean.

67.- APRENDICES ESKOLA

Aurreko ataletan aztertu dugu Biteri eskoletan Arano maisuaren, Teresa Garcia maistraren eta Luis Armengou marrazketa maisuaren ardurapean, emandako eskolatzearen izaera eta kalitatea. XX. mendearen hasiera zen eta Arrasaten industrializazioaren zurrunbiloaren barruan sartuta zegoen, baina enpresa nagusia Union Cerrajera zen eta bertara, hain zuzen ere, joaten ziren eskola haietatik irteten ziren ikasleak.

Mendearen lehendabiziko hamarkadan UCko agintariak honezkero ikusten zuten beraien lantegietan arituko ziren langileek prestakuntza teknikoa beharko zutela. Gabezi horretaz gain, Biteri eskolek erabiltzen zuten metodoaren eragina beraien interesen kontrakoa, kaltegarria izango zelakoan, hasi ziren lantzen Zerrajera enpresa berak sistema propioko lantegi eskola bat sortzea. Aranok defendituriko heziketa postulatuetan ikasleei bizitzari aurre egitea irakasten zitzairen edozeinen aurrean eta edozelan burua makurtzen ibili gabe. Langileen kontzientzia zioa hazi egin zen eta ugazabek erabakiak hartu behar negoziarioa lotuta eramateko.

1908an izan ziren lehendabiziko mugimenduak eskola propio hori sortzeko eta enpresako Administrazioak onartu zuen eskola partikular bat abian jartzea; enpresako koadro teknikoei eman zieten marrazkigintza lineala, matematika eta teknologia mekanikoa. (Lafitte). Geroago, Toribio Agirrek 1911n bultzada eman zion ikasketen eskaintzari eta Biteri eraikinean Artes y Oficios en eskola ematen zuten. Eibarren Escuela de Armeria jarri zen abian 1912an, eta horrek sortu zuen UCEMeko ugazabengan eskola profesional izatearen grina, eta horregatik, Madrili baimen ofiziala eskatu zioten. XX. mendeko 1930eko hamarkadan Udala zeharo konprometitu zegoen Biteri eskola Lan Eskola Profesionala bihurtzeko, baina ez zen egin, itxura denez, lantegiko lehendakaria Marcelino Oreja aurka zegoelako.



Gerraren ostean, Ricardo Orejak bere egin zuen Udalak proposatutako proiektua eta 1939ko urriaren 1ean sortu zen Escuela de Aprendices. Ikasleak langileen semeak ziren, 14 eta 18 urte bitartekoak, eta eskolaren ibilbidean neskak ez ziren izan ikasleak. Ikasle kopurua betetzen ez bazen, UCEMtik erlazio aizan ez zutenek aukera zuten sartzeko. Eskola sartzean, Zerrajerak ikasleak altan eman zituen Gizarte Segurantzari. Goizean eskola jasotzen zuten eta arratsaldean, lantegian. Eskolako heziketa zikloak bost ikasturte zeukan; Sarrerakoa eta garapeneko 4. Enpresako goi mailako teknikoak ziren irakasleak eta ikasleen prestakuntza "humanistikoa"az, San Viatorreko fraideak okupatu ziren. Juan Zubizarreta zuzendari izendatu zuten eta karguan 33 urtean izan zen.

Eskola horretatik geroago Arrasateko industriaren garapenean nabarmendu ziren hainbat, haien artean kooperatiben sortzaileak; Zaragozako Peritu Eskolan Peritutzia Industrialia libretik egitea lortu zuten. 1972an Eskola Profesional Politeknikoan integratu ziren eta 1974an Viatoristek ere zentroa utzi zuten. Neskak ez ziren zentro haren ikasleak izan.

Oraindik ere zutik dago eraikina, argazkietan ikusgai duzuen moduan. Hainbat urtetan Arrasate Musikal elkartearen egoitza izan zen, baina eraikinak egiturazko akatsak sumatu zirelako, segurtasunagatik elkarteak utzi egin zion erabiltzeari.

68.- ESKOLA PROFESIONALA. IBILBIDEA

1941ean Jose Maria Arizmendiarieta Arrasatera iritsi eta gero, 1943an, herriko enpresa batzuen laguntzarekin, Lanbide Eskola sortu zuen. Biteri fundazioaren eskoletan izan zen lehendabiziko egoitza. Hogei ikaslerekin zabaldu zen eta lehen ikaslea Domingo Agirre izan zen. Esperientzia kooperatibistaren garapenean oinarri izan da eskola, eta hastapenetan, Juventud Deportivarekin -Jose Maria Arizmendiarieta elkarte hartako partaidea zen- lotura handia izan zuen.

Eskolatik ikerketa eta garapen proiektu asko sortu dira, enpresa ekimen ugari sortu dira eta hemen ikasitako ikasleak eskualdeko koadro teknikoak osatzen joan dira urtez urte. Iturripeko futbol zelaia inauguratu zen 1945ean eta bertan Lanbide Eskola berrirako tokia gorde zuten. Eskolatik irtendako lehendabiziko promozioa beren ikasketak librez hasi zituen 1947an Zaragozan eta elektrizitate espezialitatea jarri zen.

Geroago, 1948an, Liga de educación y Cultura elkarteak sortu zen, aurrerantzean eskola konplexuaren titulartasun juridikoa izango zuena. 1950ean Estatuak aitortu zion ofizialki Eskolari Ofizialia eta Maestria ikasketak ematea. Zalduspen Eskola Profesional berria zabaldu zuten 1952ean (Egungo ospitalearen eraikin zaharrena), 150 ikaslerekin. Nesken lehendabiziko promozioak hasi zuen Industria delineaioaren espezialitatea 1958an. Bono kanpaina bat egin zuten 1962an, eskola berria finantzatzeko.

Eskola lekuz aldatu zen 1963an Iturripeko instalazio berrietara eta 1964an Gurea frontoia egokitu zen zine tokia izateko eta Iturripen bi frontoi eraiki ziren eta Iturripeko futbol zelaia egoki zen. Halaber, Espainiako Ministerioak ikasleen egoitza eragin guztietara



gizonezkoentzako Ikastetxe txikia izendatu zuen. Eskola Profesionala Eskola Profesional Politekniko bilakatu zen 1965ean. Eta hurrengo urtean Alecoop (Actividad Laboral Escolar Cooperativa) sortu zen, ikasleak lana eta ikasketak partekatze aukera izateko.

Injinerutza tekniko emateko aitortza ofiziala eman zioten eskolari 1968an eta Injinerutza tekniko industrialaren ere onartu zuten 1976an unibertsitate eskola moduan, Valladolideko Unibertsitate atxikituta eta Institutu Politeknikoaren aitortza ere jaso zuen. Urte hartan, Jose Maria Arizmendiari hil zen. Eta eskolari 1977tik aurrera izan da Jose Maria Arizmendiari Escuela Profesional Politeknikoa. Eskolak "teknologia" liburua euskaraz argitaratu zuen 1978an, Ikerlanek robot bat egin zuen eta Askasibar eskultoreak Arizmendiariaren estatua egin zuen eta harrezkero lorategietan dago.

Gizabide fundazioa sortu zen 1981ean. Acemex proiektuak Saiolan izena hartu zuen 1983an. 1985ean egunkari berri bat sortu zen eskolan: "Hontza". Goier proiektua sortu zen 1986an eskolan. Juventud Deportibak bere jardura bukatutzat eman zuen 1987an. Saiolanen promozioak eta goi mailako injinerutzaren instalazioak kokatzeko Eskolaren pabiloi berriaren obrak hasi ziren 1992an. 1997an Arrasateko Jose Mari Arizmendiari Unibertsitate Eskola Profesional Politeknikoa, Oñatiko Eteo unibertsitate eskola eta Eskoriatzako unibertsitate irakasle eskola (egun HUHEZI) elkartu ziren Mondragon Unibertsitatea sortzeko. Ikasgune haietaz gain, Goierri, Bidasoa eta Aretxabaletan ditu eta 2011n Donostian Basque Culinary Center (Gastronomia Zientzien Fakultatea) zabaldu du.

JARDUERA 1.- Badakizu frankismo aroan (1939-1975) ia bukatu arte, eskoletan mutilak eta neskek bananduta jasotzen zutela? Zein iritzi duzu horretaz?.

JARDUERA 2.- Eta eskola, euskaraz ezin zuten eman. 1968. urtean euskaraz emateko legea onartu bazen ere, eskola gehienek gaztelaniaz ematen zuten.? Zergatik ote zen horrela?

Koadernoko 25.orrialdean.

69.- DENBORAREN JOANEAN ARRASATEARRAK HEZI DITUZTEN ESKOLAK.

Arrasate herriak betidanik sustrai historikoak izan ditu hezkuntza arloarekin eta esparru honetan oso herri ekintzailea izan da. Unitate didaktikoaren 26.orriko arbelean jaso dugu azkeneko 125 urteotan Arrasaten izan diren eskolen nolabaiteko ibilbidea eta historia baina gai honen bere zuztar historikoak ezagutzeko ezinbestekoa da, Juan de Araoz Uriarteren (1525-1581) ekarpena herriko hezkuntzara eta azaletik bada ere, oro har, gure egunetara eman den nolabaiteko transito legala ezagutzea.

Juan de Araoz Uriarte arrasatearrak Mexikora emigratu zuen eta Zakatecaseko



meategietan hamabi urtez lan egindakoan, herrira itzuli zen. aberastuta, 1565ean. Arrasaten ezkondu zen baina seme alabarik ez zutenez, erabaki zu(t)en, 1579ko abenduaren 16an sinaturiko codicilo (testamendua) batean beren dirua eta ondasunak erabiliko zirela Arrasaten, San Frantzisko kastetxe-monastegia egiteko. Testu haren hamaikagarren klausulak beste gauza batzuen artean predikatzailea euskalduna izan behar zela zioen.

1581an hil zen Araoz Uriarte eta bere alargunak ikastetxe-monastegia hiribilduaren "extramuros"ean eraikitzea agindu zuen, eta ordudanik, Juan Carlos de Guerra arrasatearrak 1917ko uztailaren 22an, idatzi zuen bezala, 2 mende t'erdiz, kultura eta errukitasuna lantzen izan ziren, non euskara hitz egiten zen, hizkuntza ikasten Axularen "Gero" bezalako liburuarekin.

Elizaren eskuetan mendeetan zehar jakintza izan da eta hezkuntza ere bai. eta herri xehea, gaur egun ezagutzen dugun bezala, mendeetan ez da eskolarizatu. Euskal Herrian, XVIII. mendean gizonetako erligio orden garrantzitsua jesuitena zen eta andrazkoena Maria Konpainiakoa. Oinarrizko hezkuntzan lehendabiziko letreentzako maisu-maistra gutxi zeuden.

San Frantsisko ikastetxe.monastegia funtzionamenduan XIX. mendearen bigarren erdialde artean funtzionamenduan izan zen, J.C.Guerrak 1917an zioen bere gurasoek ezagutu zutela martxan, baina Gobernuak exklausazio agindua eman zuen.

Arrasateren inguruan ezaguna da emakumezkoen irakaskuntza Bergarak izan duen historia, 1644an hasi, 1766an jarraitu eta 1793an errege onarpenarekin. Geroago irakaskuntzaren ikastetxeak "nobleen apaiztegia" ren kategorian sartu ziren. Oinatiko unibertsitateak jarraitu zuen izaten hezkuntza sistemaren goia baino ez bere ikasle kopuruarengatik ez eta bere gaien prestigioarengatik ere.

Bergaran , 1775ean " El real seminario patriótico" zabaldu zuten.

XIX. mendean, Madrileko Jovellanonek dio baliozko formula izan daitekeela Bergaran jarraituriko formula esanez erligio ordenak berez ez baitira beti beharrezkorik.

Kadizeko Korteek (1812) erabaki zuten herri guztietan lehendabiziko letren eskolak jartzea baina zentzu zentralizadore handiarekin. Korteen enkarguz, Quintana idazleak txosten bat egin zuen eta bertan, irakaskuntza publikoa Udalen eta Diputazioen ardurapean uzten zuen, irakasleen horniketa udalen kontua eta eskolen finantzazioa diputazioen eskuetan.

Txosten hura erreglamendu bihurtu zen 1821ean, 1824an Calomarde planak ordezkatu zuen, geroago 1836 Rivas dukearen planak ordezkatu zuen , beranduago 1845ean Pidal plana eta azkenean 1857ean Moyano Plana indarrean jarri zen.

1868an bi irakuntza mota ezarri ziren ofiziala eta librea, hiru mailarekin: lehen hezkuntzakoa, bigarren hezkuntzakoa eta unibertsitaria.



Euskal Herrian, 1896an, Resurrección Maria de Azcuek lehendabizkiko "ikastetxea" fundatu zuen.

Arrasateri dagokionez, XIX.mendearen bukaeran Mertzedariak etorri ziren herrira San Frantzisko komentura 1892an eta XX. mendean hasieran eskolaurrea bi lekutan ematen zen: bata Ospitale zaharrean mesedetako mojen eskutik eta bestea Eskola txikian zeritzan, gaur egun, Erdiko kale 21eko tokian, hain zuzen ere, Maxima Herizen eskutik.

Hamalau urte arteko irakaskuntza ikasteko aukera bi zeuden: Udaleko eskoletan eta Biteri eskoletan. Udaleko eskola udaletxean bertan zegoen, ezker aldeko azken balkoian zegoen eta gero azoka plazan zein Zarugalde aldean, eskola haien maisurik ezagunenak Urrutia eta Portillo abizenekoak izan zirelarik.

Biteri eskolei dagokienez, Pedro Biteri Arana arrasatearrak (1833-1908) 1902. urtetik 1908. urtera Gipuzkoan aurrera eramanez diren ekimen filantropikorik emankorrenetakoak burutu zituen, epe horretan bere ondarearen kontura, lehen hezkuntzako 10 eskola libre, eskolatze mistoan, eraiki zituelako. Arrasatekoa eraiki zuen lehena izan zen, 1902. urtean, hain zuzen ere, eta geroago Hondarribia, Errenteria, Pasai Antxo, Pasai Donibane, Irun, Donostia, Aretxabaleta, Hernani eta Urnietakoak. Horretarako, gaur arte iraun duen Biteri Fundazioa sortu zuen 200.000 PTA jarritz eta dirutza horren interesekin hiru irakasleren soldatak ordaintzen zituen.

Horretaz gain, bere diruaren kontura ere herriko azoka eraikitzea, Garibai jaio zen etxearen berreraikitzea burutu zituen.

Izan ere, eskola haietan bere sorreratik Felix Arano Maisuak, mutilekin, eta bere emaztea Teresa andreak, neskeekin, egindako lan pedagogiko eskergak utzitako oroitzapenak eta sorturiko eskola zein metodoa (buruzko kalkulua) Arrasate herriko historiaren gomutan gelditu dira.

Arrasateko langileen prestakuntzarekin kezkatuta Union Cerrajerak 1911. urtean marrazketa eskola sortu zuen, marrazketa lineala eta teknikoaren eskola Biteri eskolan zegoen, goiko solairuan, Armengou maisuaren eskutik, arratsaldeko 7etatik getara, marrazketa mota haren garrantziaz oharturik eta lanpostua hobetzeko helburuaz, lan egin ostean langile asko hurbiltzen zen hara.

Musakola auzoan eskola unitarioa eraiki zuten 1923. urtean eta erdigunean Gazteluondokoa (1931. urtean). Errepublikara garaietan, Gipuzkoako Aldundiak bideraturiko "Gipuzkoako auzo eskolen proiektua"ren barruan, Udala auzoko eskola eraiki zuten 1934. urtean. Geroago, Gesalibar, Garagartza eta Bedoña auzokoak eraiki zituzten.

Errepublikara garaietan (1931-1936) kristau sustraiko ikastola bat sortu zen herrian 1932. urtean,



abade etxean eta Maalako errebelean zegoen Batzoki zaharreko frontoian ematen zen eskola, 8oren bat ikasle zuen, hainbat ikasgai euskaraz ematen ziren eta irakasleak izan ziren Patxi Mendizabal, Juan Mari Zaitegi eta Juanito Etxeberria. Gogoratzekoa da, Jose Markiegi abadeak antzezlanak prestatzen eta Leandro Guridi abadeak dotrina ematen egindako lanak, gero bi abadeok 1936. urtean fusilatu zituen Oiartzunen ejertzito frankistak.

1939. urtean gerra zibila bukatutakoan, nazional katolizismoaren edukietan, arauetan eta jarreretan oinarrituriko eskola ereduak ezarri zuten erregimen garaileak: konfesionala, elebakarra (gaztelera) eta baloreetan inposatzailea, eskola mota haren eragina hainbat belaunalditan eta luzaroan, frankismoaren garaian, (1939-1975) eta deituriko trantsizio aroan (1976-1980) isla nabarmena izan bada ere, aro beltz eta zail hartan eskola guztiak arian-arian beren nortasuna garatzen eta ekimen eraldatzaileak sortzen joan dira.

Gogoan izatekoa da garai hartan Union Cerrajeraren babesean, 1939. urtean sorturiko "Escuela de Aprendices", bere aitzindari izaeragatik, bertan industria maisutza ikasketak egiten hasi baitziren Arrasaten. Geroago, indar sozialak animatu eta konbentzitu ostean eskola hartako irakaslea zen, Arrasateko esperientzia kooperatiboaren sortzailea eta bultzatzailea izan zenak, Jose Maria Arizmendiartak hain juxtu ere, 1943. urtean, Eskola Profesionala sortu zuten. Eskola hura, lan mundurako Debagoieneko horrenbeste belaunaldi eta koadro teknikoak hezi dituenak, Mondragon Eskola Politeknikoa bilakatu zen, 1968. urtetik injinerutza ikasketak emateko baimena lortu zuten eta gaur egun da Mondragon Unibertsitatearen hazia bihurtu dena, hain zuzen ere, 1997. urtean Oñatiko ETEO, Eskoriatzako HUHEZI eta Arrasateko Goi Mailako ingeniarietza eskola (Eskola Politeknikoa) Mondragon Unibertsitatea sortu zuten.

Bost urteren buruan Aprendiz Eskolan Industria Maisutza egin zuten 11 ikaslek Zaragozako Peritu Eskolan Peritutza Industrial libretik egitea lortu zuten eta gero haietatik bostek lehen industria kooperatiba sortu zuten 1956. urtean (ULGOR kooperatiba elkarte industrial); gertaera hark, herrian, denboraren poderioz, sekulako eraldaketa industrial eta soziala eragin zuen.

Arrasateko hezkuntzaren historiaren joanean, San Viatorren klerigoek, 1938az geroztik herrian, mutilekin, eskolaratze mistoa ez baitzegoen, garaturiko hezkuntza ibilbidea, Colegio San Josek, lehen "Centro Escolar Bolivar" zenak, 1961-1962 ikasturtean oinarritako batxilergoa emateko baimena lortu zuten eta 1965-1966 ikasturtean goi batxilergoa ematekoa. Geroago, belaunaldi ugari hezi dituen Arrasate pasealekuko ikastetxeak 1967. urtean ateak zabaltu zituen eta 1984. urtean ikastetxea San Viator ikastola bilakatu zen. Garai hartan ere "eskola nazionalak bere ikastetxeak zeuzkan San Antolinen – Musakola- (1960. urtean eraikia) eta Parbulitoak, auzo berean, Uribarri auzoan eta Gazteluondon.

Era berean, Mesedetako Andra Mariaren mojek, 1892. urtetik Arrasaten, neskekin jardura pedagogikoari dagokionez, Ospitale zaharrean emandako ikasturteak aipatzekoak dira,



batxilergo ikasketak egiteko nesken belaunaldi mordoan bertan eskolatu baitziren, eskolatzeko mistoarekin La Merced ikastetxeak jarraitu zuen bere hezkuntza jarduerara 1969. urtean eraikitako ikastetxe berrian 2007-2008 ikasturtean bukatu arte, ikastetxea itxi egin zelako.

Ezin ahaztu XX. mendean Kontzeziñoaren ordena erlijiosoak (1977. urtean itxit zuten eskola) eta Asunzionaren ordena erlijiosoak (1991. urtean hezkuntza jarduerara bertan behera utzi zuen) garaturiko ibilbidea, Arrasateko makina bat nesken belaunaldiak ordena erlijioso haiekin hezi baitziren.

1967. urtean San Frantzisko Xabier ikastolaren sorrerarekin aldaketa sakona ematen da Arrasateko hezkuntza historian, herri ekimenak bultzaturiko proiektuak, hezkuntza jardueraren ardatz eta tresna, euskara bihurtu zuelako. Frankismoaren garaian egonik, juridikoki Parrokia Eskola edo Katekesi bezala eratu zen ikastola, hasiera batean, Arrasateko parrokoa Jose Luis Iñarra titular gisa agertzen bazen ere, geroago Udalak ikastolaren kudeaketa eramateko Patronatu bat eratu zuen eta 1973. urtean San Frantzisko Xabier ikastola irakaskuntza kooperatiba gisa eratu zen.

Kooperatibetako hainbat emakume langilek lanean zeuden bitartean seme-alabak zaindu eta hezteko, Gipuzkoako lehendabiziko haurtzaindegietariko bat sortu zuten 1970. urtean, Umezaintza, horrela bide berria urratzen joan zen, hezkuntzarako eta emakumeak lan munduratzeko.

Urte bertsuan, hain zuzen ere, Leintz bailarako udalen bazkidetzarekin Eskoriatzako Marianisten Dorletako Ama ikastetxea Almen ikastetxea bihurtu zen eta geroago 1979. urtean kooperatiba gisa eratuz ikastola bezala jarraitu zuen jarduerak, eta aipatzekoa da ikastetxe hartan zenbait arrasatear hezi eta hezten ari dela.

1976-1977 ikasturtean Arrasateko Institutua sortu zen, bere lehendabiziko kokapena Altamira auzoan izan bazen ere, geroago 1980ko hamarkadaren hasieran Musakola auzoan finkatu zen, horrela bukaera emanez, irakaskuntza publikoari dagokionez, Batxilergo eta UBI ikasketak egiteko, Oñatira eta Bergarara joan beharri.

Abian ziren hainbat ikastetxek zuten hezkuntza eskarmentuan eta legeria-aldaketan oinarrituz 1980. urtean eskola publikoen agertze indartsua eman zen, San Andres herri eskola (1970) Ferixalekua herri eskola, (1972-1989), Erguin herri eskola (1981) eta Musakola herri eskola (1976) Arrasateko hezkuntza sistemaren eragile esanguratsu gisa beren hezkuntza ibilbidea jorratzen hasi baitziren.

Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroak helduentzako irakaskuntza garatzeko, bere ateak zabaldu zituen 1988an Arrasateko Ferrerías kalean eta 2011tik Arrasateko pasealekuko zentro berrian aritzen da.

1997an Arrasateko Unibertsitate Eskola Profesional Politeknikoa Unibertsitaria Jose Mari Arizmendiarrera, Oñatiko Eteo unibertsitate eskola eta Eskoriatzako unibertsitate Irakasle



eskola (egun HUHEZI) elkartu ziren Mondragon Unibertsitatea sortzeko. Ikasgune haietaz gain, Goierri, Bidasoa eta Aretxabalan ditu eta 2011n Donostian Basque Culinary Center (Gastronomia Zientzien Fakultatea) zabaldu du.

Udalak haur eskolako zerbitzua sortu zuen 2000an 0-3 urte bitarteko umeentzat. Herriko hiru eskola publikoak San Andres (Bedoñabe) herri eskola, Musakola herri eskola eta Erguin herri eskola batu ziren 2002an, Arrasate herri eskola sortzeko. Urte berean Debagoieneko eskola publikoek sortu zuten Goieskola elkarte.

Bailarako ikastolak, Eskoriatzako Almen eta Arrasateko Umezaintza, San Viator, San Frantzisko Xabier ikastolak batu ziren 2003an eta Arizmendi ikastola sortu zuten kooperatiba enpresa izaerarekin.

Udala "Haurreskolak" Partzuergoan sartu zuen 2004an eta Bedoñabe haurreskola sortu zuen 0-2 urte bitartekoentzat. Era berean, Udalak 2010.ean Musakola haurreskola sortu zuen.

Unitate didaktikoan eskola horien izenak arbelean jarri ditugu ordena historikoan ikusteko, eskola asko desagertuta daude, baina eskola askoren oinarrian eta hazian eraiki dira egun martxan daudenak, jarraian, egindakoa hobetzen eta egokitzen gure gizartera, etengabe.

Ariketa moduan bi ariketa proposatzen ditugu egitea emandako informazioarekin:

1) Arbel finkoan hamarkadaka (1890-1900) , (1900-1910)(1910-1920).....(2000-2010) jarri eskola guztien izenak koadroan.

2) Arbel digitalean jarri izenak banan-banan.

Koadernoko 26.orrialdean

70.- IKASITAKOAZ HAUSNARTZEN

Beste unitateetan egin bezala, bosgarren honen amaieran landutakoen inguruan zer ikasi dugunaz eta nola ikasiko dugunaz hausnartzea proposatuko dizuegu.

Gertaera, historia data, arlo asko jorratu ditugu eta nolabaiteko ebaluaketa egiteko egoki ikusten dugu arlo horietan zer da ondoen ikasi dugunaz eta gutxien ikasi dugunaz hausnartzea.

Lan hori banaka egitea gomendagarria izango zen eta gero talde txikietan iritziak, sentsazioak denon artean partekatze eta gelaren ikuspegi orokorra izateko.

JARDUERA₁: Arlo horien barruan, zer ikasi duzu ondoen?.

Herriaren kokapenaz

Gerrez

Industrializazioaz

Herria ezagutzen

ARRASATEKO UDALA



Kooperatibez

Azpiegiturez

Kultura taldeez

Hirigintzaz

Hezkuntzaz

Bizi garen jende taldeez

JARDUERA2: Arlo horien barruan, zer ulertu duzu gutxien?

Herriaren kokapenaz

Gerrez

Industrializazioaz

Kooperatibez

Azpiegiturez

Kultura taldeez

Hirigintzaz

Hezkuntzaz

Bizi garen jende taldeez

Koadernoko 27. orrialdea.



BIBLIOGRAFIA

*LIBURUAK/txostenak/ artikuluxkak.

HIK HASI aldizkaria. "Herria ezagutzen 5. unitate didaktikoa eta bere gida pedagogikoa"

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA: "Arrasate gure herria", Arrasateko udala, 1993.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL. 2 Maalako errebala"Arrasateko udala.200 urtea

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL:"Nire haurtzaroko Arrasate", Arrasateko udala, 1996.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL:"1949.urtea Arrasate eta mundua", Michelena arte graf. 2009

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL:"Bizi izan juat", Arrasateko udala, 2000

JOSE LETONA.- "Mondragón y sus calles". Gipuzkoako Aurrezki kutxa.1984.urtea. "Jose Letonaren artxibategia".

JOSE LUIS URANGAREN ARTXIBATEGIA. "Arrasateko uholdeak", "Albercas y lavanderas"

JOSE LETONAREN ARTXIBATEGIA. "Inundaciones señalables sufridas por la villa""Traida de agua potable a Arrasate"

ARRASATEKO UDALA. "Mapa toponimikoa".Arrasateko udala eta Eusko Jaurlaritza. 1998

OCTUBRE TALDEA: "Arrasate 1936: Belaunaldi etena.Arabera argitaletxea.1987

ARRASATEKO UDALA: "Arrasateko emakumeak, XX:mendean".2002 urtea

JUAN LEIBAR GURIDI: 1833-1908 " Don Pedro de viteri y Arana.1999

AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA.http: //www.euskomedia.org/aunamendi. Guerra 1936-1939.

JOSE LUIS ORMAETXEA LASAGA: " Arrasateko Toponimia"Euskaltzaindia .1996

JM Velez de Mendizabal, JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA, JUAN RAMON GARAI: " Ama Cerrajera""101".2007.urtea.

JUAN LEIBAR GURIDI."Don Pedro de Viteri y Arana" 1833-1988 filantropo".Arrasateko udala 2003.

LEIRE PARRA/ISABEL ARAMENDIA."Arrasate, langileek eraikitako herria". Arrasateko Udala.2004.urtea.

GOTZON ARZELUS GARAI: "Arrasateko baserri auzoetako bideak". Arrasateko udala 1995.

ARRASATEKO UDALAREN ENPLEGU SAILA:Erakusketa industrialia egiteko txostena..

ARRASATEKO UDALAREN ARTXIBATEGIA:Hainbat informazioren gaineko informazioa

GOIENA ALDIZKARIA; Juanjo Olazoila Elordiren bi artikuluxka:" Breve historia del ferrocarril en el Pais Vasco"" Los intentos de los ayuntamientos guipuzcoanos para que funcionase de nuevo el ferrocarril Vasco-navarro en 1968.

REVISTA BASCONGADA: Apuntes biográficos sobre Pedro de Biteri.

WEB ORRIAK eta ARTIKULUSKAK

JOXE MARI VELEZ DE MENDIZABAL " Pedro Viteri eta bere ekarpena gogoratu".

JOXE MARI VELEZ DE MENDIZABAL. " Arrasateko okupazioaren ondoko txosten bat"2012 urtea.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: " Union Cerrajera eta heriotza baten kronika". Mondraberrri argitaratua.2011.

GARA egunkaria; " Viterik, kalitatezko eskola jende xumeari zabaldu zituen.

GARA egunkaria; " Auzolana gure kulturaren". Jasone Mitxeltorena. 2012 urtea.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA: "Eskolaren kronologi laburra". Saiolan departamendua.



- LUIS CASTELLS; "La abolición de los fueros vascos". Euskal Herriko Unibertsitatea 2003.
- IÑAKI EGAÑA: " Bergarako besarkada. Berria egunkaria (2011).
- "Soldadutza eta gipuzkoarrak". Berria egunkaria .2010. "Maria Luisa" (2012)
- JUAN RAMON GARAI ETA NEKANE ARRAZOLA; "Muru Gaineko trintxerak eta Dragones Bataloia" (2011)
- JUAN RAMON GARAI ETA JULIA MONGE."Faxistak Arrasaten sartu zirela 76 urte . Mondraberrin argitaratua.(2012)
- KAROLINA ALMAGIA: " Un libro recoge 136 testimonios inéditos de la Guerra del 36 recogidos por Barandiaran" . Gara egunkaria(2006)
- URKO APAOLAZA / XABIER LETONA. Larrun 107 zenbakia. " Memoria historikoa 1936ko gerra." (2007)
- TEXTOS BASICOS DE OTALORA. " AREA DE EDUCACION Y DIFUSION COOPERATIVA Capitulo I. Mikel Lezamiz. Capitulo II.-Juan Leibar eta Jse Maria Ormaetxea eta Capitulo V. Jose Mari Ormaetxea .
- ARRASATEKO udaleko Hezkuntza saila: " Hezkuntza historia."100 urteko ibilbidea", ARRASATEKO udaleko Kultura eta Enplegu sailak:" Made in Arrasate. Museo industrial sortzeko bidean" txostena .
- JUAN CARLOS GUERRA: " Un patriota vasco en el siglo XVI". Juan De Araoz de Uriarte
- KARMELO SAENZ DE SANTA MARIA; " la educación institucionalizada en el Pasi Vasco en los siglos XVIII y XIX"
- <http://www.mondragon-corporation.com> CAS/cooperativismo
- "Origenes Historicos, Corporación Mondragon"
- <http://www.wikipedia.org>
- " Corporación Mondragon"
- <http://www.mondraberri.com/mondraberri>. ISEI BARBERO, KOLDO CARRILLO ETA GONTZAL LANDAREN artikuluxkak
- " Garcia eta Arano: Hezkuntza laikoa ekarri zuten irakasleak"
- " Arrasatek Biteriri bueltatu dio zor dion guztiaren zati bat"
- " garaik planteatu du Erdiko Kaleri " Garcia Arano" izena jartzea"
- "Hace go años; ArrasAte fue referente en educación"
- " Pedro de Viteri Arana" biografia egin dute lau historialariak"
- " Franksimoaren krimenen aurkako mozioa azatertuko da plenoan"MB.
- <http://www.goiena.net>
- "Berdura plaza erdugarri eta erakargarri izan zenekoa" Ubane Madera.
- " Filantropo diskretu baten memoria, herriarendako". Leire Kortabarria.
- " Bergarako besarkadaren 173.urtemuga da daur". Monika Belastegi.
- <http://www.argia.com>
- "Baioneta errimatuak karliberalen artean". Urko Apaolaza.
- "Paisaia kulturala auzolanean bizi" 2010. Estitxu eizagirre.
- "<http://www.euskonews.com>
- "El testamento inédito de Don Pedro de Viteri y Arana: Nuevos datos para su biografía"
- JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL Pedro Viteri AranA :175 urte.461 zenakia. emandako



hitzaldi bateti hartuta.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: " Union Cerrajera SA un patrimonio de cien años (I/li)

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: " Union Cerrajera ; Ehun urteko abertasuna"2012,

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: " Hots danbolinak blogetik "Elma (2).

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL: "Jusus Larrañaga, uno de los precursores del coopertivismo en Mondragon".2004

<http://www.euskomedia.org/aunamendi>

<http://www.luberri.net/mendi>

<http://www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com>

<http://www.bizikasi.com>

<http://www.diariovasco.com>. KEPA OLIDENEN artikuxkak.

" Piden reponer a Viteri en su plaza en el centenario de su muerte en mayo"

"Vida y fortuna de Pedro Viteri"

" Garai recordará las figuras de Arano y Garcia en las jornadas sobre Viteri"


" Mondragon y la Gipuzkoa española"

"El magnicidio según la prensa"

" Hjo, no vulevas, serás una carga"

" Union Cerrajera suspende pagos al verse afectada por la crisis de la construcción"

Euskara zuzentzailea.- Karmel Uribarren.



A) AZPIEGITUREN GEHIGARRIA. ERREPIDEAK

Erromatarrak	Erregebideak Kaltzabideak	Errepideak	Errepideak	1958	1990	2004 2009
Bordele-Astorga kaltzada XXXXIV.bidea	*Arrasate Oñati (1374) Osinaga Azuela Matromai Oñati	* Arlaban Behobia (1780) Camino Real de coches * Luzera.- 177'014 km * Gatzaga-Arrasate-Bergara- Deskarga-Zumarraga-Behobia	*Arrasate Gesalibar Diputazioak eginda 1866an *Arrasate Elorrio 1780(zaharra) Udalak egina *(Berria) Diputazioak 1866an egina	Gasteiz Ondarroa Errepidea (Garibaitik)	Arrasateko sahiesbidea Arrasateko Epeleren sahiesbidea (1997) (Durango Beasain	*Maltzaga Armiñon Autopista *2004ko uztailaren 31an Arrasatera iritsi zen. *Arrasatek Gasteizera 2009ko maitzaren 22an
Belcía Gatzagain Debarainoko bidea	*Arrasate Durango (1477, 1502)					

Arrasatek errepideak nondik pasatu diren:

- 1) **1.errepidea**.Arrasate pas, Txoxagorri, Intxaurrenondo, Gazteluondo(Goiko Portaletik), Artekale (Erdiko kalea), Portaloia, Maalako errebala, Zaldibar, Zubi gorria
 - Zalduspe, Osinaga , Azuela, Zubillaga, Oñati.
 - 2) **Arlaban-Arrasate-Bergara-Deskarga-Zumarraga-Behobia**(1780an osotasunean bukatuta)
 - 3) **(Gasteiz-Ondarroa) Garibaitik, San Andreses auzotik, erreka desbideratukoan (argazkiak)**. Proiektua 1956an egin zen
 - 4) **Trenbide zaharraren errepidetik.**
 - 5) 1990.Sahiesbideetik.(Kaskonategitik **Mugarriteraino**)
 - 6) **Autopistatik.** Lehengo zatia Bergarik Etxezarretaraino (2004) eta bigarrena Gasteizeraino (2009).
- Interbentzio Gune Partehartzaileak(IGP).**1996urtean Gesalibarran proiektua eztabaidatzeko hainbat jendarte eragile bildu ziren eta proposamen bat adostu zen: bidesaririk gabeko autobia izatea eta "Zarimutzeko sahiesbidea" izeneko proposamena onartzea. Diputazioari helarazi zitzaion baina ez zuen onartu.

